


Joxe Ramon Zubimendi

Bidezkoak



23984
QAS-128/102

Bidezkoak

SENDIA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Joxe Ramon Zubimendi

Bidezkoak

(1994-1996)
kazetari-lanak

Donostiako El Diario Vasco periodikoan,
Bidezkoak izeneko zutabeen,
argitaratutako iritzi-artikuluak

* * *

Labaien, hitz bitan
dokumentalaren gidoia

Auspoa Liburutegia
(1997)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-51-8

Legezko Gordailua: S.S. 287/97

Bidezkoak

Herriko plaza

Ez aztoratu!

Beti zuri idaztekotan, eta beti nagi. Baina heldu zaizu txanda: astean behin idatzi asmo dizkizut bidezko gutunak.

Gaurkoaren izenburua ez dagokio nire erabakiari, ez: duela hirurehun urte hilarri batean idatzitako mezuaren hasierako hitzak dira. Egia esan, ingelesez idatzita omen daude, baina euskaratzeak merezi zuela uste dut; hilburuko ederra utzi baitzigun dena delakoak. Begira!

Ez aztoratu! Zarata eta presa artean bada ere, lasai bizi zaitetz. Gogoratu: isiltasunean aurki daiteke bakea.

Saiatu denekin ondo moldatzen, baina zeure burua ukatu gabe. Astiro eta argiro esan zeure egia. Entzun bestena; baita traketsak eta ezjakinak badi-ra ere: nork bere bizitza dauka adierazteko.

Utzi alde batera jende zaratatsua eta zakarra: espiritua iraintzen dute gogaikarri horiek. Hutsal eta erresumin zaitetzke, besteekin alderatzen baduzu zeure burua: beti ere izango duzu, urruti gabe, zu baino hoberik eta zu baino okerragorik. Poztu zaitetz zeure egite eta egitasmoez.

Maitatu zeure lana; baita xumea bada ere: zeure bizitzako altxorra duzu. Zuhur jokatu negozio-kontuetan; besteren axolarik gabeko asko baitabil

munduan. Ez uste izan, ordea, jende zintzorik ez dagoenik: asko dira helburu garbien bidetik doazenak; eta bizitza, nonnahi ere, egite handi-ederrez beterik dago.

Zu zeu izan zaitez. Batez ere, ez ibili zeure joerak eta zaletasunak ezkutatu nahian. Ez egin irribarre gaizto maitasunari; etsipen antzua, aurpegian ezagun denerako, belarra bezain iraunkorra baita.

Onartu lasai urte joanen itzala: onez onean eta betirako agur eginaz gaztaroko dohaiei. Sendotu zeure gogoia, ustegabeko ezbeharrek hondamendira eramanez zaitzaten. Baina ez asmatu sasi-zoritzarrik. Beldurra, sarri, nekearen eta bakardadearen ondorio da. Izan onbera zeure buruarekin; baina ez belaska.

Unibertsoa izaki bat besterik ez zara; baina bazara, ordea, zuhaitza edota izarra adina, gutxienez: baduzu hemen bizi izateko eskubidea. Eta, baldin zalantzarik ez baduzu, ate zabalik hartuko zaitu munduak.

Bakean bizi Jainkoarekin (ez dio axola zer-nolako Jainkoa duzun gogoan). Eutsi barruko bakeari, zeure eginbeharrak eta eginnahiak ahaztu gabe eta bizitzako zalaparta nahasiarekin aztoratu gabe.

Zure sasi-jokoak, burruka neketsuak eta amets hondatuak gorabehera, Lurrak eder dirau. Ez izan axolakabea.

Ahalegina egin ezazu zoriontsu izateko.

Bidezkoak
1994ko martxoak 29

Dolumin

Gau ilunak eraman digu, baina ez erabat uste-kabea. Ez nuen ez adiskidea eta ez ahai-dea. Ez dut uste lagunak ginenik ere, lankideak baizik: lankide eta, euskalduntasunean, senide. Mingarri gertatu zait haren heriotza, mingarri zitzaidan bezala haren bizimodu etsia. Asko dira, tamalez, etsipen horrek berak jota bizi direnak: gogoz kontrako zulo beltzean sartuta, bihotz sentibera saminduta, adimen argia lausotuta, ekimen adoretsua antzututa, sufrimenduak itota... Kantu zaharrak dioenez, *begiak, barrez-barrez; bihotza, negarrez...*

Ez da, beraz, atzo goizeko kontua; are gehiago, esango nuke gizona bera bezain antzinakoa dela bizitzarekiko etsipena. Izan ere, mundua ez baita atseginen baratza, oraindik gazte eta berde direnentzat izan ezik. Baina horiek ere ikasiko dute, haurtzaroko errugabetasuna galdu ahalean, maldan gora ibili beharreko bide malkarra dela bizitza: maldan gora eta zamatuta; hemen nork bere zama eraman behar izaten baitu, gutxienez. Eta apenas dagoen atsedetik; maldan behera amiltzen baita, azkar nahiz astiro, goiari eusten ez diona. Horregatik, halako nekea; hortik, etsipena, gogo bizirik ezean. Eta etsipenetik ihes egin nahia, ezinezko bakearen zulora.

Inguruan daukaguna ez da batere panorama atsegina, egia esan. Ulertzekoa ez ezik, pozgarria eta beharrezkoa da, beraz, gaztearen bihotz zabalari darion grina iraultzailea: mundua hobetzeko irrika. Baina, esaerak dioen bezala, *Balitz eta balego goseak hil ziren*, tamalgarria bada ere: zakur-ametsak alde batera utzi eta eguneroko zereginen ahalegin-
du behar dugula, alegia. Gogotik ahalegin-
du ere; ez baitago mundua hobetzerik, aurrena nork bere burua ondu gabe. Eta horrek ematen dizkigu lanak, ezinak eta amorrazioak. Eta dena pikotara bidaltzeko gogoia, geure buruagandik hasita.

Askatasunaren izenean axolagabekeria daukagu nagusi: «Hor konpon! Nahi duena egin dezala, lepoa berea du eta!». Baina hori gezurrezko errespetoa da; ez da gizalegezkoa. Zenbat aldiz damutu behar ote zaigu lozorroan zebilen laguna astindu ez izana? Artean garaiz gaudenean, hari muturreko on bat ematea baino nahiago ote dugu beraren hiletetara joatea? Lagun zuria baino etsaia nahiago!

Lore galkorra izan da beti bizipoza: apala bezain galkorra. Baina bai lore ederra, hilobiak apaintzen dituztenen aldean! Heriotzaren segadan ebakitako loreek, hildako lagunak, ernaldu eta fruitu eman dezatela gudan.

Eutsi; ez etsi!

Bidezkoak
1994ko apirilak 19

Ezberdinari, gorroto

Nor da euskaldun? Galdera horixe egin ziguten, duela ez asko, mahai-inguru batean. Ez dauzkat gogoan han esandakoak; bai, ordea, oinarrizko hainbat jakingarri argitu gabe utzi izana. Orduko hutsunea berdinuko ez badut ere, gogoeta batzuk adierazi beharrez sumatzen dut neure burua.

Alde batera utzi nahi ditut, hobe beharrez, politikaren ikuspegitik eman ohi diren arrazoiak; izan ere, euskaldun izateak ez baitu zuzeneko zerikusirik politikarekin. Alderantzizkoa, ordea, ez da egia, zoritxarrez; ezberdintasunik onartzen ez dutenen politikak eraso egiten baitio euskaldun izateari.

Hego Euskal Herrian, nabarmen askoa izan zen 36ko gerra ondorengo kultur etnozidio ahalegina. Ipar Euskal Herrian, aldiz, eraso ez da nabarmena izan; bai, ordea, ondorioak. Mugaren alde bietan heriotz-zigorra ezarri zioten euskal kulturari: hemen, tiro ozen nabarmenez; han, zapuzketaren lakio isilaz.

Euskal kulturak zer du, ba, afusilamendua edota urkamendia merezi izateko?

Euskaldunari ez zaio barkatzen ezberdin izatea; ez zaio barkatzen besteak bezalakoa izan nahi ez izatea; ez zaio barkatzen berea utzi eta besteen sailera bildu nahi ez izatea.

Baina, zergatik utzi behar du berea? Zer irabaziko du euskaldun izateari uko eginda? Ezertxo ere ez. Zer galduko du? Bere izatea, bere nortasuna. Eta nork bere buruari eustea ez da politika; baizik eta bizilegea.

Zer irabaziko du munduak euskalduntasuna deseginda? Ezertxo ere ez. Zer galduko du? Europa guztiko herrietan lehena, munduko hizkuntzarik bakanena, bizirik dirauen mendebaldeko kulturarik antzinakoena... Euskal izaera beste edozein herrirena bezain aberasgarria da, gutxienez, munduarentzat. Eta horren araberako eskubideak eskatzea ez da politika, baizik eta gizalegea: *Bakoitzari berea, hori da gizalegea, hori da zuzenbidea.*

Zuzenbideak aitortzen du euskaldunok badugula izateko eskubidea. Baina izatea ez da irautea bakarrik: izatea bizitzea da, nor bere buruaz jabetzea, esku-besoak zabaltzea, hazia ereitea, sustrai zaharretatik ernamuin berriak loratzea, fruitu ematea, uzta bildu eta mundua aberastea... *Eman ta zabal zazu munduan frutua* esatea. Eta ahalegin horretan saiatzea ez da politika. Gernikako Arbola bonbaz desegin nahi izatea, bai; oso politika okerra, ankerra eta makurra, gainera. Botatako arbolak ez dezake fruiturik eman; ez bada gorrotoaren hazi gaizto eta iraunkorra.

Gorrotoaren hazia ereiten ari direnek —alde batekoek nahiz bestekoek— galbidera daramate euskal kultura.

Bidezkoak
1994ko azaroak 8

Lozorroan

Eguberriak amaitu zaizkigu eta Errege Magoak ere joan dira, gu umezurtz bezala utzita: umezurtz, negu gorrian. (Eta negu gorria ez da *invierno rojo*, baizik eta *crudo invierno* edo *pleno invierno*, oker ez banago.)

Kioak jotako oilarraren antzera, muermoak jota bezala dabilta neguko oporrak amaitu berri dituzten batzuk: nagiak atera ezinik. Gogorra dute, non-bait, kopetan azala. Azala gogorra eta sakela bero; ez neguaren minak eta ez bizimoduaren garestitzeak ez baitiete hotzikararik eragin. Lozorroan daude.

Lozorro galgarri bat aipatu nahi dut, ordea; euskal gizalegea galbidean baitaukagu.

Gizalegea da, nire ustez, «etika» delakoaren euskal izen jatorra. Eta gizalegea eta jatortasuna elkarren eskutik dabiltzanez euskal kulturaren, hona, bi hitz horien berri:

gizalege. *iz.* Gizartean bizitzeak ezartzen dituen jokabide-arauen begirunea.

jator. *adj.* Herri edo lurralde baten hizkuntzari, ohiturei, izaerari eta beste ezaugarriren bati berez dagokiona; horiei arrotz zaien gauzarik ez duena. // Pertsonen mintzatuz, bere herri edo lurraldeko ezaugarriak dituen.

LUR Hiztegi Entziklopedikotik hartutako hitz horien arabera, oinarri-oinarrizko kultur balioak dira euskaldunontzat gizalegea eta jatortasuna. Euskaldun jakin bati buruz esan daitekeen gauzarik onena hauxe da: gizalegeko gizona (ala emakumea) dela; oso gizon (ala emakume) jatorra dela. Alde ederra daukagu, balio gorenei dagokienez, beste zenbait lurraldetako kulturekin. Adibidez, Madrilen gehien estimatzen dena *muy listo/a* izatea omen da; Canarias aldean, berriz, *muy cariñoso/a* izatea. Gure artean, aldiz, *oso jatorra* izatea.

Zoritxarrez, ordea, jator jokatzeari edota jatorra izatea gero eta gutxiago estimatzen da Euskal Herrian. Badirudi euskaldunok —baita abertzalerik sutuenak ere— Madrilerara begira bizi garela eta nahiago dugula *muy listo/a* izatea. Ez dakit zein den aldaketa horren zergatia, baina hiruzpalau arrazoi hauek bururatu zaizkit: 1.) atzeratutzat dauzkagu geure buruak eta euskal kultura; 2.) jatorra izatea ez da ez modernoa, ez posmodernoa eta ez 'progre' itxurakoa; 3.) diruaren edota ospearean morroi gabiltza; eta 4.) aurreko hiru arrazoiak batera. (Esan gabe doa zenbat *listo* ospetsu dagoen Madrilen; haietako batzuk, gutxi, giltzapean preso.)

Dirua galtzea baino okerragoa da gizalegea galtzea. Dirua ebasten duenari lapurra esaten badiogu, zer esango diogu gizalegea galerazten duenari? Eta jatortasuna bost axola zaionari? Lozorroan bagaude, ezer ez.

Bidezkoak

1995eko urtarrilak 10

Amets gaiztoa egin dut bart

Batek daki egoki den ala ez kontuok jendaurrean aipatzea; baina ez nintzateke batere harrituko, irakurle, baldin eta esango bazenit zuk eta biok amesgaizto bera edo beretsua egin dugula.

Behin lotara orduko, samur lokartzen direneta-koa nauzu, ia beti; adiskide baititut Txomin Itsu (Txomintxo) eta Mari Bekaineko. Hori gutxi balitz, loaldi bakarrekoa naiz: lokartu eta segi, goizean esnatu arte, seko lo. Hala esan zidan, behinola, lagun batek: nik kontzientziarik izan ere ez nuela izango, noski, gau osoa lo eta lo ematen nuenerako.

Bart gaueko ametsa, ordea, gaiztoa zen, horratik! Amets hori egin behar nuela jakin izan banu, nahiago nukeen loa galdu eta begirik itxi ez.

Bart egin dut amets, alegia, Donostiako udal-
txean zeuden euskaltzaleetako bat nintzela, Elorza alkateari barre eta iseka egin ziotenetako bat. Hura lotsa nirea; euskaraz hitz egiten hasi eta nekez ari zelako egin baitgenion burla!

Bart egin dut amets, alegia, ertzain bat nintzela, epaile jaun arrotzaren erabaki are arrotzagoa bete behar izan zutenetakoa: torturapean hildako bi mutil errugaberen familiartekoei, Lasa eta Zabala-
tarrei, zenduen gorpuzkinak ikustea galerazi. Hura lotsa nirea, Tolosako hilerrian, zenduetako baten ama jo dudanean!

Bart egin dut amets, alegia, irakaslea nintzela, eta nik hezi beharreko neska-mutilek ikusi egiten nindutela herriko plazan. Hura lotsa nirea; bazter guztiak hondatu beharrez ari bainintzen, jo eta su, ikasleek ikusi nautenean!

Bart egin dut amets, alegia, udaltzaina nintzelá, kaleko arazo edota istiluei ezikusia eginzalea. Hura lotsa nirea; ezikusia egin baitiot, badaezpada, herriko alkateari harrika eraso dion mutikoari ere!

Bart egin dut amets, alegia, Urliak «Putasemea!» deitzen ziola Sandiari, honek lazo urdin bat zeramalako agerian. Hura lotsa nirea, Urliá eta Sandia ama berberaren seme direla konturatu naizenean!

Bart egin dut amets, alegia, bahitua askatzearen aldeko kantaldira bildutako hamar mila lagunetako bat nintzela. Hura lotsa nirea, cow-boy sonbreroa zeraman mokordo kakaloratu arraio bat euskal duintasuna eta bakezaletasuna aldarrikatzen hasi denean! Nor, eta Gurruchaga!!

Bart egin dut amets, alegia, “Euskal Herria askatu” aldarrikatuz sutsu dabilzanetako bat nintzela. Hura lotsa nirea, besteen askatasuna galerazten ikusi dudanean neure burua!

Bart egin dut amets, alegia, musikari batzuk negu gorriak gartzelan pasa ez ditzaten (eta adierazpen-askatasunari eutsi nahirik) milana duro emandako hiru mila lagunetako bat nintzela. Hura lotsa nirea, hamabost milioi horiek jasoko dituen jeneral txapelokerra barre-algaraka ikusi dudanean!

Eta ez esnatzen, halere!

Bidezkoak
1995eko uztailak 4

Oparia

Ustegabeko oparia izan dut urtebetetze-egunean: neska gazte baten karta irakurri dut *Arantzazu* aldizkarian. A zer indarra, bizipoza eta itxaropena darizkion neska gazte horren eskutitzari!

Leire Atxega Pagola deritzo neskak. Usurbiltarra da: San Esteban auzoko Zabalea baserriko alaba.

Aspalditxo egin genuen elkarren ezagutza: Uda-regi ikastolako irakasle nintzen garaian. Egia esan, Leire ez zen nota on-onak ateratzen zituztenetakoa. Hori zela eta, kezkatu ibiltzen zen bere ama; eskola-kontu horietan asekaitezak izaten baikara gurasook. Ez gara ohartzen, nonbait, irakaskuntza eta hezkuntza ez direla gauza bera, eta bietan garrantzitsuena hezkuntza dela.

Ikusi besterik ez dago zer ari zaigun gertatzen Euskal Herrian: badirudi Medikuntza edo ikasten eta bibolina edo jotzen ez duen gaztea ezgauza dela. Eta ikasi, gogotik ikasten dute; beharko! Ez dira zailtzen, ordea; ez dute lanean ikasten. Eta ez dut esan nahi lan hau edota beste lan hori egiten ikasi; baizik eta "lanean" ikasi, zaildu: zailtasunari, nekeari, atsekabeari edota zoritxarrari aurre egiten ikasi, alegia. Horixe da hezkuntza, eta hori ez da liburutan ikasten; hori bizitzan ikasten da, etxetik hasita.

Langabezia eta abar direla eta, gazte asko etsita bizi da; etorkizunaren beldurrez kikilduta. Etsipen horren errua ez da gazteena bakarrik; gurasook ere errudun gara. Baita irakasleak eta agintariak ere! Ez da harritzekoa; helduok ere halamoduz gabiltza eta: nork bere erantzukizunak onartu nahi ezik.

Hezkuntza eta irakaskuntza nahasten ditugulako edo, elkarren kontrako jokabide bi hartzen ditugu guraso eta irakasleok. Alde batetik, gauza gehiegi ikastera behartzen ditugu seme-alabak, ikasteko benetan gauza diren ala ez begiratu ere egin gabe. Bestalde, esnegainetan bezala hezitzen ditugu haurrak, eta horrelakoak ateratzen zaizkigu: belaxkak, kemenik gabeak, dena zor zaiela uste dutenetakoak... Baina lanean ikasiz, zaildu egiten da, eta zaildutako gaztea aurrera ateratzen da beti; baita eskola handirik ez badu ere!

Leire, adibidez, Amerika aldera joan zen mi-siolari. Orain Panamako oihanean ari da lanean, bertako indiarrei laguntzen. Indiarrengandik ikasi omen du naturan eta lanean ere Jainkoa aurkitzen.

Herrialde aberatsenei beren herri-diruaren ehuneko zero koma zazpia eskatzen zaie hirugarren munduko behartsuenei laguntzeko. Leirek ez du %0,7a ematen, ez %7a eta ez %70a: Leirek dena ematen du, %100a. Horregatik biziko da horren pozik. Bejondeiola! Hori da oparia!

Bidezkoak
1994ko azaroak 15

Ongi egin

Duela urte batzuk gertatu zitzaidan, Zubieta-tik Asteasura mendiz nindoalarik zakur zuri batekin. Juanasoro deritzon Andatzako hegalean pinudia botatzen ari ziren, eta, bertara iritsi ginenean, bidea erabat estalita aurkitu genuen: hango enbor, adar eta abarrek sekulako hesi trinkoa osatzen zuten, pasabidea galeraziz.

Beheragotik bada beste bide bat, eta bertara jo genuen. Ez alferrik!: igarobide hura ere, goikoa bezalaxe zegoen. Hala, etsi-etsian, etzandako baso hura zeharkatzen hasi ginen, enbor gain batetik bestera. Eginahal arriskutsua, egia esan: ez, hainbat, enborrak mugitu egiten zirelako; baizik eta euren adar printzatuak ezpata zorrotz ziruditelako.

Kostata, eta haserre antzean, iritsi ginen pinudiaren beste aldera; onez, halere! Basomutil bat, gazte-gaztea bera, topatu genuen bertan, eta hark entzun behar izan zituen nire arrazoiak: herribideak itxi eta oztopatzerik ez dagoela; mendizaleren batek ezbeharren bat izanez gero, ea nondik eta noizko iritsiko zitzaion laguntza, biderik ezean; basomutilen beren arteko batek ere min hartu zezakeela... Beraz, bidea libre utzi behar zela ahalbait arinen, eta ez hiruzpalau egunez oztopatu eta galerazi, eurek egin zuten bezala. Are gehiago, arriskua eta min hartzeko artea sortzen bazen, han bezala.

Basomutil gazte hark arrazoi bakarra eman zidan, motozerra sakatu eta alde egin aurretik:

Baina, zuk zer nahi zenuke: lana egin eta, gainera, ondo egitea?

Lana, dena delakoa, ongi egin behar hori gehiegizkoa iruditzen zitzaion, nonbait.

Beste batek, bere buruari sasi-arotz eta sasi-igeltsero deitzen dion batek hauxe esan zidan:

Guk, etxeren bat edo eraikitzen dugunean, hormari eskuz eusten diogu, badaezpada ere, kobratu arte.

Hori esan zidana, Nafarroako Gaintzako Mitxetoneko Iñaxio, txantxetan ari zen; baina langile eta merkatarari askotxo dira maltzurki jokutzen dutenak: kobratu arte, eutsi; eta gero, hor konpon! Hamaika lardaska eta lan narrats ikusten da bazterretan! Bizkor usteko litxarrerero horiek ez dakite, nonbait, bezeroak engaina ditzaketeela, baina beren buruak inola ere ez.

Baita ederki egindako lanak ere, ikusten dira, zorionez! Asko, gainera! Badakit, ordea, askoz gehiago direla oharkabean pasatzen zaizkigun langile apal eta txukunak. Zorionak denei, eta eskerrik asko.

Bidezkoak

1994ko maiatzak 31

Basora nahi ezik

Lanik ez dela? Gezurra da hori! Lantegiak badi-
ra; gogo behar! Eta ez nolana hiko lan zikinak,
ez; baizik eta langintza osasungarri eta mesedega-
rriak, bai norberarentzat eta bai herriarentzat. Basa-
lana edo basoko egurgintza da horietako bat; soldata
polita irabazten dena, gainera. Badira, izan ere, egu-
neko bi mila eta hiru mila duro irabazten dituzten
basamutilak; hortik atera kontuak! Jendearen lautik
bat langabezian dagoela? Gazte-jendearen bitatik bat
lanik gabe dagoela? Horietako asko, inondik ere,
zaildu gabeko jendea izango da! Lana ez; lanerako
gogo falta zaie horiei! Kalekume belaxkak! Sasi-
-ekologista alaenak! Berriketa ugari, eta fundamentu
edo ganora gutxi! Lanik ez dagoela, alazankoa!
Datozela, datozela mendi-garbitzera, premia larria
dago eta!

Horrelako arrazoiak entzutea egokitu zait, orain-
dik orain. Beroarena kendu beharko zaie, jakina;
hego-haize epela baitze bilen goiko gain hartan.
Baina, beroarena kenduta ere, oso oker ote dabil
iritzi horien jabea?

Egia da mendiak garbitzeko premia larria dagoe-
la; laharra eta sasia baitira nagusi. Bada, ordea,
okerragorik ere: otea. Ikusgarria da otearen emana
gure mendiotan: ote zuri eta ote beltz, ugariegi

ikusten dira otadi trinkoak. Eta bai arantza zorrotzak! Mendibide zabalak ere galerazterainokoak! Galduak dira garai bateko gurdibide, bide-zidor eta xenda gehienak: oteak eta sasiak hartuta daude aspaldian.

Egia da, hortaz, herriaren, baserriaren eta mendia mesedetarako dela mendia garbitzea eta, garbitu ondoren, garbi eustea. Baina, betikoa: egin egin behar! Eta nork hartu nahi du langintza hori? Zeinek joan nahi du mendi-garbitzera?

Inor gutxik, noski. Ez gaude prest, ez gaude zailduta lan horiek egiteko. Bestalde, gure arteko zenbaitek nahiago du, dirudienez, soldatarik gabe geratu, langabezian egon, tabernatik urruti gabe, garagardo frexkoa edan eta ekologiaz 'arduratu'. Telebistak erakutsi ez digu, ba, Antartidako pinguino betokerra desagertzeko zorian dagoela? Hori da, agi danean, gure benetako arazoa, hori! Zer axola dio herriko mendi-basoak sasiak irensteak, baldin eta pinguino betokerra arriskuan badago? Modan dagoenez, gora kontsumorako ekologia ergela!

Beraz, egia da, zoritxarrez, sasi-ekologistak eta kalekume belaxkak garena ere. Eta egia da hemen go bertako jendeak ez duela egin nahi basalanik; hori dela eta, kanpotik ekarritako basamutilak ari-zen dira, leku askotan, egurgintzan.

Ezta herri aberatsa bagina ere!

Bidezkoak
1995eko azaroak 7

Herri-dirua

Asteartero hemen idazten hasi nintzenean, debekatu egin zidaten politika hartzea hizpide. Egia esan, ez nuen pena handirik hartu. Bake ederra!

Debekua apurtxo bat urratu beharra sumatu dut gaurkoan; horretarako bide eta hizpide eman baitit andoaindar batek: Manuel Larramendik.

Larramendi (1690-1766) jesuita zen: oso jakintsua, langilea eta euskaltzalea. Luze joko luke haren lanen aipamena egiteak hemen. Labur beharrez, haren *Corografía...* delako liburuan (170. or.) aurkitu ditudan hitz batzuk azaldu nahi ditut; hor esaten baita zer baldintza bete behar zituzten gipuzkoarrek agintari izan ahal izateko:

Aunque todos sean nobles, no todos pueden entrar en los cargos honoríficos de la república [Gipuzkoa]; para eso, además, son menester los *millares* que llaman, esto es, tanta hacienda, que sirva de seguridad a la república [Gipuzkoa] para sanearse de los daños que puede causarle un mal cargohabiente.

Beste atal batean (110. or.) dio abokatuek ez zutela botorik eta ez agintari izaterik, beti eztabaida edota liskarra sortzeko okasio bila ibiltzen omen zirelako beren probetxurako. Jakina; auzirik gabe ez izaki diru-etorririk eta irabazirik.

Baina gatozen oinarrizko baldintzara: Gipuzkoa-ko foru edo lege zaharrak zioenez, bertako agintari-gaiak dirua edota ondasunak behar zituen. Hain zuzen, herri-dirua xahutu edota axolagabe gastatzen bazuen, agintariak berak bere dirutik ordaindu behar zuelako.

Ai, lege zahar hori indarrean balego! Agian beste oilar batek joko liguke kukurruku! Gure agintariak ez lukete eralgiko, ez, herri-dirua parrastan. Izan ere, ez baikara herri aberatsa; eta zenbat eta herri-diru gehiago bota errekarra, are eta pobregoa.

Badakit lege zahar horrek baduela alderdi txar bat ere: dirudun izan beharra agintari izateko. Horrek esan nahi du dezaketenek aginduko luketela beti; eta hori ere ez baita ona. Baina besteren dirua gastatzea hain da erraza!

Pozgarri zait, bestalde, lagun baten eskarmentua azaltzea. Kanpotarra da nire lagun hori, eta hemen-go lantegi handi bateko salmentaburu izandakoa. Lagun horrek esan zidan hemendik kanpo ez dela salmenta handirik egiten, baldin eta aurretik eskupeko handirik ematen ez bada.

—Eta hemen?

—Hemen, herri-agintariren bati eskupekoa eskaintzen badiozu, haserretu egingo zaizu; gogotik haserretu ere, noski —esan zidan.

Horrela bada, horrela bedi!

Udal-hauteskundeak ditugu laster. Agintari berriek baldintza bi bete behar lituzkete:

1. ongi zaindu herri-diruak
2. ongi zaindu begi-bista, elkar ezin ikusia sendatzeko

Bidezkoak

1995eko martxoak 14

ARTELEKU, progreaku?

Sosik ere gastatu gabe pasa nahi dituzu abuztu-ko oporrak, aurtan, Donostian? Benetan ari naiz, irakurle; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Turismo Departamentua prest baitago, agi danean, hoteleko zure gastuak bere gain hartzeko. Eta logela ordaintzeaz gain, eguneroko dirua ere oparo emango dizu gose-egarriak berdintzeko.

Baldintza, ezinbesteko baldintza, hizkuntza eskakizuna betetzea da. Baina ez euskaraz; baizik eta ingelesez. Badirudi, hortaz, Gipuzkoan ere euskara baino beharrezkoago dugula ingelesa.

Oporrak esatea gehiegizkoa da; baina hor non-bait. Izan ere, zer ote da abuztua Donostian doan pasatzea, Artelekun ikastaro bat eginez?

Artelekuko ikastaro horrek izen nabarmen deigarria du: *Puntako teknologia eta kultur disidentzia*. Helburua, berriz, hauxe omen da: ... *sortzaile berrien nazioarteko talde bat Artelekun biltzea, go-goeta kritikoa eta irudi/testu digitalen ikus-aztertze esperimentazioa suspertuko dituen arte heziketarako ariketak egin ditzaten elkarrekin.*

Hori aski ez balitz zu eta denok txundituta uzteko, hona nola aurkeztu duten gonbidatuetao bat:

Michael Samyn (Belgika). Interface designer. Posta elektronikoko bitartez soilik komunikatzen da eta galdua du ikusmen gaitasuna; ezin ikus dezake ordenadore pantailan ez dagoen ezertxo ere.

Tristea da esatea, baina badirudi Artelekuko arduradunek ere ezin ikus dezaketela euskal kulturgintzan duten zeregina.

Artikulu honen aurrekoan aipatzen nuen, besteak beste, gure artista gehienen joera: euskalgintzan aurreratzeko ekarpen teoriko adierazgarririk ez dutela egiten beren artegintzatik. Bihotzez maite dutela euskara; baina erdaraz nekatzen burua. Aurpegia ateratzen dutela euskararen alde; baina bizkar eman ez euskarari berari.

Artelekugatik bada, gerora ere gauza bera egiten segiko dute, noski. Tamalgarria da, izan ere, euskararen alderako Artelekukoen axolagabekeria. Legea betetzen dute, hori bai: deiak-eta egiteko inprimakiak elebidunak dira (itzulpenak), beren aldizkaria ere bai... Baina legea betetze hutsarekin konformatzen direla dirudi, urtea joan eta urtea etorri.

Zein da kultur disidentzia? Euskaltzale izatea bera ez ote da aski disidentzia erdararen gehiegikeriaren aurrean? Bai, noski; baina euskaltzaleon ahalegina ez dago homologatuta, nonbait, progre profesionalen katalogoan: ez die balio *pour épater l'étranger*.

Zein da arteak eta euskarak elkarren berri ikasteko lekua? Arteleku ez, behintzat; izenak besterik badio ere. Non ikasi behar ote dute elkarren berri euskal idazleak eta pintore euskaldunak, musika-riak eta bertsolariak, eskultoreak eta artesauak, gainerako artistek eta ikasle gazteek? Artelekun ez, behintzat; hor ez baitute aintzakotzat hartzen euskara, axaletik ez bada.

Askoz nahiago nuke oker banengo. Horrela bada, froga dezatela. Baina ez hitz hutsez; baizik eta euskararen alde ere gogotik lan eginez. Bestela esan beharko dut aski dela artistakeria, antza, Donostian hilabeteko oporrak dohainik pasatzeko... gipuzkoarron kontura.

Bidezkoak
1996ko ekainak 11

Munstroen ametsak

Zubietako herriko plazan ipini digute eskuz egindako iragarki gaiztoa: bost metro luze dituen pankarta handia, argi eta garbi ikusteko modukoa. Bertan, euskara hutsean eta sinadurarik gabe, hauxe dago idatzita:

*Gure ametsak,
zuen ametsgaiztoak.*

Min eman dit horrek; baina ez nau ustekabeen harrapatu. Izan ere, pankarta horrekin batera egindako pintada bat ikusi baitut lehentxeago, ertzainak sokara (urkamendira) eramatearen aldekoa.

Ertzainen aurkako gorroto itsu hori oso kaltegarria da; baina ez nau gehiegi kezkatzen: ertzainak badira nor beren buruak defenditzeko. Benetan kezkarria, beldurgarria, izugarria zera da: herriko jendearen amesgaizto bihurtu nahia beste ametsik ez izatea bakarren batzuek.

Ez dago erraza asmatzen zeintzuk diren herriko jendearen amesgaiztoak; baina esango nuke zeintzuk diren Zubietako plazan agertu beharreko ametsik gozonenetako batzuk: bake zuzena, bizipoza, osasuna, lan egokia, gizalegea, elkartasuna, askatasuna, euskal nortasuna, umore ona, itxaropena eta abar. Ametsak, esan bezala: amets onak, helburu garbiak, utopia samurrak, bidelagunak.

Hortik atera, zeintzuk ote diren herriko jendearen amesgaiztoak: gerra zikina, gorrotoa, gaitza, langabezia miserablea, basakeria, elkar ezin ikusia, gogozkontrako morrontza, euskal itxurakeria, erre-sumin samina, etsipena... Nihilismo suntsitzailea.

Erabateko hondamendia opa digute, antza, herritar guztioi. Hortxe dago, plazan, mehatxu izugarria: alegia, gure amesgaizto bihurtzea dutela amets. Horrela bada, Franco, Hitler, Stalin eta Custer jeneralaren sailekoak dira pankarta hori egin edota eragin dutenak ere; eta ondu egin nahi dituzte orain arteko tirano eta borreroen markak. Eta hori gutxi balitz, badugu okerragorik ere: gure herriaren amesgaizto bihurtu nahi omen duten horiek euskaldunak ditugu, tamalez, senideak!

Nortzuk dira, baina, ertzainak urkamendira eta herria hondamendira eraman nahirik dabilzan horiek? Ez dakit; baina Zubietako jendearen etsai azaldu dira; izan ere, Santio bezperan agertu baitira bai pintadak eta bai plazako pankarta. Herriko jaiak hasi zain egongo ziren, noski, beren gorrotoa nabarmentzeko!

Festak aipatu orduko, horra hor, *cabezudo* buruhandiak umeen izugarri! Lau buruhandi hauek dabilta Zubietan: Tximua, Atso Sorgina, Akerra eta Infernuko Etsaia. Ez ote dira horiek berak pankarta-ko ametsak egiten dituzten munstroak?

tximua: gizonaren parodia; **atsoa:** emakume lehorra; **akerra:** erdaraz, *cabrón*; **etsaia:** horixe bera

A zer etxekalte-koadrila! Munstroak hazi ditugu, eta orain datozkigu ordainak.

Bidezkoak
1996ko abuztuak 3

Ala Ala!

Ala Ala! diote musulmanek —arabieraz— euren jainko Alaren izenean zin egiten dutenean. Beraz, *ala Jainkoa!* esatea bezala da haientzat.

Ala Ala! delako oihu hori oso sarri entzuten da Algerian aspaldion; gerra santua egiteko deia aldarrikatu baitzuten, duela hiruzpalau urte, bertako musulmanen buruzagi espiritualek. Eta, Koran delako beren liburu sakratuan idatzita dagoenez, gerra santua egiten ez duena ezin sartuko da, inola ere, Alaren paradisuan.

Ala Ala! oihukatuko zuten, noski, paradisia iritsi nahirik, gerra santuari ekin zioten sei 'gerlari ausart' haiek ere. Gaur zortziko periodikoak zioenez, sei bizardun haiek, armak eskuan, Ued Yer herriko eskolara sartu ziren fedez beterik. *Ala Ala!* esango zuten ozenki umez betetako ikasgela hartan sartzean ere, beren jainko urrikaltsuaren nahia betetzera zihoazela adierazteko.

Sei bizardunen artean hartu omen zuten Fatima, 15 urteko neskatxa errugabea. Hartu eta, gainontzeko neska-mutilen aurrean, lepoa moztu zioten Alaren izenean, burua gorputzetik bereizteraino. Gero, arrastaka eraman zuten bururik gabeko gorputz hura, eta eskolako patiora bota.

Periodikoak ez zekarren zer egin zuten gerlari bikain haiek Fatimaren buruaz. Neskatxaren eskola-lagunei Korana irakasteko erabili ote zuten? Bali-teke. Nolanahi ere, neska-mutil haiei ez zaie egundo

ahaztuko zer egin behar duten musulman zintzoek paradisia irabazteko: *ala Ala!* esanez neskatxei lepoa moztu.

Bezperagoan, Algeriako bertako Blida herrian, zortzi musulman irten ziren elkarrekin gerra santua egitera. Hauek, ordea, beste era batera iritsi zuten paradisia: *ala Ala!* oihukatu eta, zortzien artean, 26 urteko emakume bat hil zuten. Balentria hark bazuen meritu gehigarririk: emakumea haurdun zegoen, bederatzi hilabetekoa. Musulmanen paradisia irabazteko, dirudienez, amaren sabelean hil behar dira aingeruak.

Albisteak ez zioen zortzi haiek, 'errukizko ekintza' hura egin eta gero, *Ala* goretsi zuten *ala* ez; garbi asko zioen, ordea, bitxiak ostu zizkiotela emakume gajoari.

Alaren paradisian sartzeko beste biderik ere badute: esate baterako, misiolariak hiltzea. Hamaitzko sarraskitu dituzte aspaldion, *ala Ala!* oihukatuz: apaizak eta fraileak, mojak, lekaideak, seglarrak... Harrapatzen dituzten guztiak! Jakingarria da, halere, mojak hiltzea dutela gogokoen: binaka harrapatzen dituzte, ahal dutenean, bi mojak batera hiltzeko. Eta zenbat eta urte gehiago eraman bertan moja horiek musulman behartsuei laguntzen, hainbat hobel!

Ez gerra eta ez santu; baizik piztien paradisu!

Jokaera horren zuztarrean dagoen pentsakerari (?) fundamentalismoa deritzo, eta euskaldunok ere bapo hornituta gaude jenio horretarik. Hemen ere badugu, aspaldi luze honetan, hamaikatxo negar, marraska eta hortz-karraska.

Bidezkoak

1995eko martxoak 21

Oinarri ahulak

Etxeak eta erori, lantokiak lurrarekin berdindu, zubiak amildu, tunelak uskaldu, urari eusten dioten presak desegin, errepideak hondatu... A zer txikizioa, baldin eta hormigoi barruko porlan-zementua bigundu eta ahulduko balitz! Jasango ote genuke? Jasoko ote genuke bururik, horrelako hondamendi bat gertatuz gero?

Lasai, irakurle; ez bainator hondamendi-iragarle. Kontua da *UNESCOREN Albistaria* izeneko aldizkari ederrean honako hau irakurri dudala:

Honela amaitzen da Nabukodonosor erregearen ametsa: "Harri bat atera zen menditik, inork ere bultzatu gabe, eta irudiaren buztinezko oinak jo eta txiki-txiki egin zuen". Bibliako erraldoiaren antz handia du gure zibilizazioak. Aurrerapen ikusgarriak lortu ditu artean, zientzian, industrian, kulturean eta beste alor askotan.

Baina gero eta hauskorragoak izango ditu oinak, baldin eta arriskuan jartzen duten desorekak erabat konpontzen ez baditugu, gizon eta herri guztien arteko bakerik, justiziarik eta elkarbizitza duinik lortzen ez badugu, eta hurrengo belaunaldiei bizitzeko moduko planeta utzi ezin badiegu. Halabeharrik bultzatutako edozein harriren mehatxupean egongo gara.

Arazo gogorra, gogorrik bada. Pentsa, abididez, herrialde pobreetan milaka lagun hiltzen direla, egunero, goseak. Hemen, aldiz, obsesio nagusi bat dauka jendeak: argaldu, mehetu, liraindu, kiloak arindu edota erraldeak gutxitu. Beldurgarria, ikaragarria iruditzen zait haien gosea eta gure ase bereizten dituen amildegi gorria: hori ez da desoreka; pekatu mortala baizik. Horixe da, nire ustez, gure zibilizazio erraldoi honen oinarririk ahulena.

Baina baliteke, eta horretara nator, Babiloniako errege Nabukodonosorrek egin omen zuen ametsa ez izatea sinbolo, metafora edo alegia hutsa; baizik eta, gainera, hitzez hitz ulertu beharreko iragarpena:

Irudi erraldoi bat zegoen, guztiz distiratsua eta itxura beldurgarrikoa. Irudiaren burua urre finezkoa zen; bularra eta besoak, zilarrezkoak; sabela eta izterrak, brontzezkoak; hankak, burdinazkoak; oinak, berriz, burdinazko eta buztinezkoak. Zu hari begira zeundela, harri bat atera zen menditik, inork ere bultzatu gabe, eta irudiaren burdinazko eta buztinezko oinak jo eta txiki-txiki egin zituen.

Nik badakit Danielek nola azaldu zuen amets horren esanahia (*Elizen Arteko Biblia* delakoan dator, 1.095. orrialdean); baina, horrez gainera, hor aipatzen den «burdinazko eta buztinezko» zera horrek hormigoi armatua gogorarazten dit beti. Huskeria dirudi; baina...

Bidezkoak
1995eko urriak 31

Euskaldunon izaeraz

Joxe Artetxeren *Saint-Cyran* liburuak (1958) badu bigarren izenburu bat ere: *De caracteriología vasca*, hain zuzen ere. Artetxek, liburu horretan, gure izaeraz esandako batzuk euskaratu ditut zuretzat, irakurle.

- Euskaldunetan diplomatikoena gipuzkoarra da. Aurpegi bakarreko gizona da euskalduna; aurpegi bakar horrekin irribarre egiten dakien euskalduna da gipuzkoarra. Irakasle ona da muga. (22. or.)

- Sexu-konturik ez da aipatu ere egiten; gogorki salatzeke izan ezean. Mozkorkeria ere gaitzetsi egiten da. Baina ez hala tripazainen sabelkoikeria; horretan Rabelais-en zale formala baita euskalduna: jaten dakien gizonak eta jaten dakien herriak badute kategoria. Kontuz ibili, elkarrekin jan-edaten eta elkarrekin kantatzen ez dakitenekin! (30. or.)

- Eusko jendea hezikaitza da, indarraren zalea, pagano samarra. Bizkorra eta buruargia, bai; baina zurruna edo malgutasunik gabea, suspergarri bortitzak behar dituen. (33. or.)

- Usadioa da euskaldunen bizilegea; baita usadioei lotu gabekoena ere. (34. or.)

• Euskaldunak egiaren jabe ikusten du bere burua; eta entzule da, irakurle baino areago. Entzule edota predikari: ugari dira euskal misiolariak; oso gutxi, ordea, klausurako kontenplalariak. (34. or.)

• Euskaldun jatorrak alde batera uzten du arinkeria. Euskarak berak ere ez du txepelkeriatarako biderik ematen. (34-35. or.)

• Estrabon-ek duela bi mila urte ikusi eta idatzi zuenez, arropa ilunen zalea da euskalduna. (36. or.)

• Izua, ez; baina lotsatia da euskalduna. Lotsa gainditzeko ahaleginez, beste muturrera joaten da, sarri, neurritz gain lotsagabetuz: ezagun du desoreka. (36. or.)

• Richelieu kardenalak, estatu frantsesaren eta bertako nazionalismoaren oinarriak ezarri zituen tirano hark berak, alegia, honela laburbildu zuen Saint-Cyran-en berri: *Euskalduna da, errai-beroa, izaera sutsukoa. Gehiegizko gartsutasun horrek eragindako lurrinak, burua betean, malenkoniazko irudipen bihurtzen zaizkio; baina berak uste du irudipen horiek gogoetaren ondorio direla edota Espiritu Santuak eragindakoak.* (40. or.)

[Baionesa zen Saint-Cyran (1581-1643), eta euskara izan zuen ama-hizkuntza.]

Gaurkoa amaitzeko, Artetxeren beraren ohar bat: *Norbera, izatez, den bezalakoa da: bakoitza mundu bat da.* (36. or.)

* *

• Eztabaidaka jardutea omen da eusko jendearen zaletasun nagusia. (47. or.)

• Euskaldunenganako gorrotoz, sorgintzat hartutako errukarriak sarraskitzen ibili zen De Lancre malapartatuak erresuminez esana: *Apaizak, Euskal Herrian, jainko txiki halakoak dira.* (47. or.)

• Kontrarioren bat behar du beti euskaldunak. Horixe da, adibidez, apustuzaleen grina gaiztoaren ama: norbaiten edo zerbaiten kontra jokatu beharra. (53. or.)

• Oso geurea dugu 'egoskor' hitza. Erabateko egoskorra erabat setatsua da: inoiz ere, inola ere, ezertan ere amore ematen ez duena. (53. or.)

• Euskalduna benazkoa da, serioa. Bai izugarria, beti eta guztiz serioa dena! Santa Kruz apaizaren mutiletako batek honela adierazten zuen bere nagusiarekiko miresmena: *Behin ere parrez ikusi ez nuen gizona!* (54. or.)

• Eztabaidarako grina dela medio, joan-etorri txikieneko zerak ere handiesteko joera du euskotarrak. (54. or.)

• Agintari eta epaile zorrotz irudikatzen du, batez ere, euskaldunak Jainkoa; ez aita errukitsu. Beldurra nagusi; ez maitasuna. (55. or.)

• Bi eratako intelektualak sortzen dira Euskal Herrian. Batetik, beti ikasiagotzen ari direnak, kosta ahala kosta jakitun daudenak, berrikuntzak zer aurrerapen dakarren aztertu eta baliatu ohi dutenak. Halere, sendo eusten diote funtsezkoari, garaian garaiko iritzi aldaberaren baitan ibili gabe. Adimen zabaleko euskaldun horiek oinarrizko asmo jakin bat dute: ulertu egin nahi dute, ahalegina. [Barandiaran eta Lekuona datozkit gogora, irakurle. Eta oiartzuarrak esaten zuena: *Zahar izanak ez dio galerazi Euskal Herriari herri aurreratu bat izaten. Zaharra eta berria, gauza biak, ondotxo bizi izan dira gure artean beti.*]

• Bigarren saileko intelektual-jendeak ere ikasten du bateko eta besteko berri; baina bereari eusteko bakarrik. Beti bat diraute, beti berean, ezertan aldatu gabe, ñabardurarik onartu gabe. Adimen zimurreko intelektual horiek hortzak erakusten dizkiete

norberaren bidearen bila dabiltzanei; baita gatazka gogorak eragin ere! [Ezkertiarren artean ere bada hamaika horrelako: sektari alaenak!] (66. or.)

Joxe Artetxek aipatutakoez gainera, bestelakorik ere badela uste izango duzu, agian, irakurle; baina hirugarren horiek ez dira intelektualak, *progre* modernoak baizik.

* * *

- Egotatria. Norbera bere buruaren jainko bihurtzen du euskaldun askok. (90. or.)

- *La soberbia del vasco es una afirmación que se nutre exclusivamente de la energía individual, que vive en seco de sí misma y equivale a una declaración audaz de democracia metafísica, de igualitarismo trascendente. ¡Quién duda de que esta actitud ante la vida rezuma un bronco sabor de grandeza, bien que satánica!* idatzi zuen Ortega y Gasset filosofoak.

- Euskalduna harroa da eta, aldi berean, ingenuo edo 'xano-xanoa'. (90. or.)

- Ba ote da munduan herririk euskaldunak bezain gizonki eta samurki kantatzen dionik Ama Birjinari? (107. or.)

- Askatasunaren maitale sutsu da euskalduna; baina funtsean totalitarioa da. (97. or.)

- Euskalduna totalitarioa da, eta mendekunahiak eragiten dio, itxuraz dirudien baino sarriagotan. (90. or.)

- Udazkenekoa da euskalduna: fruitu sendo-iraunkorrek eman nahiago ditu, eta ez lore ahul-iragankorrek. (108. or.)

- Hondamendia atsegin izatea da euskaldun askoren sekretu ezkutua. (111. or.)

• Gizartean hitz egiterakoan, esaldi laburrak eta atsotitzak erabiltzen ditu euskaldunak, eta atxiki egiten zaio hizketagaiari. (115. or.)

• Euskalduna ez da gorapatu zale. (48. or.)

• Sentimenduei dagokienez, zinezkoa da euskalduna. Ez dizu erakutsiko benetan sentitzen ez duen emoziorik; eta sentitzen duena bera ere ez dizu gutiz azalduko. Neurritsua edota lotsatia izanik, ez da jendaurreko aiene eta malko zalea. (116. or.)

• Euskaldunak atzerrian erakusten du bere egiazko ahalmenaren indarra. (10. or.)

• Ekintza-gizona denez, ekin ezinik eta burutazio hutsean geratzen bada, bere burua hondatzen du. (134. or.)

• Euskaldun askok eta askok dituzte bi ezaugarriok batera: lotsati izatea eta norberaren buruaren handiustea. (145. or.)

• Asko eta asko dira «dena ala ezer ez» jokutzen duten euskaldunak. (170. or.)

• Eusko lurrean sarri-sarri sortu ohi dira gizon setatiak, porrot egiteari temati atxikiak, porrota maite dutenak maitasun gaixoz. (171. or.)

Besterik ez, irakurle: asko dugu honenbestez. Joxe Artetxe zenak adierazi zizkigunak ez dira denak gustagarriak; bai, ordea, jakingarriak. Nolanahi ere, gogoan hartu Artetxek berak zioena: *Norbera, izatez, den bezalakoa da; bakoitza mundu bat da.*

Bidezkoak

1996ko urtarrilak 9, 17 eta 23

Bidezkoak

Euskaraz

Latinetik!?

Joan den asteartean, Ekaingo haitzuloaren berri ematean, zera aipatu nizuen, besteak beste: antzinateko pago eta gaztainondoaren lore-hautsa ere agertu zela bertan.

Ez zen hutsala izan aurkikuntza hura; lore-hauts hari esker frogatu ahal izan baitzuten bi zuhaitz-mota horiek ere Euskal Herrikoak bertakoak direla, eta ez erromatarrek ekarriak. Jakintsuen ordura arteko ustea erabat ustela zen, beraz.

Nondik zetorren, ordea, okerreko uste hori? Ba, dakizuenez, zuhaitz horien izenetik; pagoaren izena *fagus* baita latinez, eta gaztainondoarena, berriz, *castanea*. Hortaz, bistan da nolatan sortu zen okerra: zuhaitz on oraingo euskal izena latinetik datorrenez, zuhaitzak berak ere latinarekin batera helduko ziren Euskal Herrira. Zientziak, erdarazko zientzia harro eta interesatuak argudio horrekin «frogatu» zuen pagoa eta gaztainondoa ez direla berez hemengoak; baizik eta erromatarrek hona ekarriak. Ez zuen adierazi, ordea, latinezko *castanea* hori grekerazko *kástanon* hitzetik datorrela: ez komeni, nonbait, erromatarren gaztain-zorrak aipatzea.

Zorrak zor, Ekaingo haitzuloan egindako aurkikuntzari esker kitatu bide ziren euskararen gaztain-zorrak: Erroma sortu baino hamar mila urte lehenagokoak dira, gutxienez, hemengo pago eta gaztainondoak. Eta kitto!

• Zuhaitz horien enborra, ordea, zotz mehea baino ez da, zoritxarrez, orain sartu nahi diguten ziriaren aldean: euskal deklinabidea latinetik hartua omen da! To! Harrapa ezak Mateo Txistu! Hau da marka, hau! Hau da beti zorretan egon beharra! Hobeto esan, hau da interesa daukatena bakarren batzuek —ez gutxik— euskaldunok beti zorpean eradukitzeko. Zorrik ez dugunean ere, asma ahalak asmatzen dituzte geure burua zordun aitor dezagun.

Euskal filologoaren artean ere zabaltzen hasia omen da euskal deklinabidea latinetik hartua omen delako kontu hori. Nik, neure ezjakinean, ohar bi besterik ez dizkiet egingo: batetik, zentzudun izateko, eta ez etxekalte; eta bestetik, Orixeren idazlanak irakurri eta gogoeta egiteko.

Orixek oso ongi ezagutzen zituen latina eta euskara. Begira zer zioen: *Cicerón, con otros autores, tuvo que restablecer históricamente los casos de declinativos, que en su tiempo estaban en desuso en el pueblo.* Beraz, deklinabide kontutan ere, dirudienez, emateko baino hartzeko hobeak ziren erromatarrak.

Betiko leloa da: euskaldunoi morkots eta guzti irentsarazi nahi izaten dizkigute gaztainak. Ba ni, urraduren urratuz, kokoteko potxolaraino nago oraintxe horrenbeste koplarekin! Utikan, etxekalte!

Bidezkoak
1994ko uztailak 5

Ohizkoa

Euskaltzaindiak, hamaika ikerketa eta hamalau bilera egin ondoren, erabaki bat jakinarazi zigun: *ohikoa* esan eta idatzi behar* omen dugu, eta ez orain arteko *ohizkoa*.

Ez dakit erabaki hori arau den ala gomendio; badakit, ordea, huskeria dela. Badakit, gainera, Euskaltzaindiak ohizko jokabideari eusten diola; baita okerrerakoan ere.

Ohizkoa du Euskaltzaindiak araua eta gomendioa bereiztea —legelarien gisa— euskalgintzan dihardugunoi ematen dizkigun nahaspide eta nekeen axola handirik gabe. Ez naiz ari, jakina!, erabaki garrantzitsuetara egokitu eta moldatu beharrez; hortik helduko diren fruituek merezi baitute arreta eta nekea. Erabaki hutsalez ari naiz, esan bezala.

Ohizkoa iruditzen hasia zaigu beste hau ere: Euskaltzaindiak era batera egiteko gomendioa eman eta, denok hartara ohitu ondoren, Euskaltzaindiak berak bere gomendioaren aurkako araua erabaki. Horra, esate baterako, *arazi* eta *bait* hitzak: bereiz idaztea gomendatu zigun aurrena; elkaturik idazteko araua ezarri, hurrena. Gainera, *arazi* ez, baizik *erazi* hobesten zuen lehen. Eta abar.

Ohizkoa da —eta berau da okerre— Euskaltzaindiaren desoreka eta norabiderik eza, euskara biziaren kaltetan.

* Artikulu hau idatziz geroztik, biak ontzat hartzea erabaki zuen: *ohikoa* eta *ohizkoa*.

Ipuin hau datorkit gogora:

Ekaitza nagusi izan arren, hegazkinetik salto egin du gizonak, halabeharrez, gau ilunean. Haize zakarrak urrutira eraman dio jausgailua; baita zuhaitz baten adarretan trabatu ere. Zintzilik geratu da jauskaria, lurrera ezinik, kulunkan. Laguntzarik iritsi ezean, galdua da. Eta galduta dago. Gau beltzaren luzea!

Biharamunean pozik hartu du egunsentiko argia. Itxaron eta itxaron, laguntza behar eta laguntzailerik ageri ez, luzetsita dago jauskaria. Halako batean, ibiltari bat ikusi du urrutian, eta oihuka hasi zaio laguntza eske. Hor datorkio bestea. Gizaseme bat da. Borondate onekoa dirudi. Jauskariak, goitik:

—Non nago?

—Zuhaitz baten gainean.

—Zu apaiza zara, ezta?

—Bai. Baina kale-jantzian nabilenez, zertan ezagundut apaiza naizela?

—Erantzunean! Egia esan baitidazu; baina egia horrek ez dit ezertarako balio.

Ipuin hori, esan dezadan, ez da apaizjale batek asmatua; baizik eta apaiz batek: hots, A. de Mello jesuitak. Hala berean, Euskaltzaindiaren aldeko nauzue ni; baina aldekoa ezta, nahitaez, menpeko.

Euskaltzaindiari dagokio euskararen untzia gidatzea. Ongi deritzot. Baina, arraunlarietakoa naitenez, ez deritzot ongi noraezean ibiltzeari. Kapitain itsua da gramatika; halere, bera nagusi. Ohizkoa.

Bidezkoak
1994ko irailak 20

Gramatika eta mitoa

Euskara biziaren kalterako desoreka egotzi nion, gaur zortzikoan, Euskaltzaindiari. Eta noraezean ibiltzea, gramatikaren menpeko. Diruaz esan ohi dena egoki datorkio gramatikari ere: *Morroi ona da, baina nagusi txarra.*

Badakit ezinbestekoa dugula euskararen gramatika aztertu, jorratu eta hartaz baliatzea; baina larria deritzot aspaldi luze honetan eman zaion garrantziari. Badirudi, adibidez, *geniezazkizueketen* eta *gisako* aditzak ikasi gabeak ez dakiela euskaraz... nahiz eta erdaraz nekez hitz egiten duen euskaldun peto-petoa izan! Eta alderantziz; *euskañolez* mintzo den filologo askotxo baitabil gure artean. (Erdaraz pentsatutako euskarari deitzen diot *euskañola*; sasi-euskara eta euskara gordinaren amari, alegia.)

Horra, gramatika jainko txiki bihurturik! Horra, beste mito kaltegarri bat! Mito horrek oso ondorio gaiztoak dakarzkie euskalkiei; baita heriotz arriskua ere, agian, euskara biziari eta euskal estiloari.

Arriskuan dagoen ipuinetako printzesari bezala, salbatzaile askotxo sortu zaizkio euskarari ere: okerreko usteen oinarritutako mitoak.

Proventzako okzitanieraz idazten zuen frantses bati eman zioten Literaturako Nobel saria 1904an: Mistral jaunari. Hortik heldu zitzaigun lehen mitoa:

gure hizkuntza salbatzeko, ustez, Mistralen *Mireio* bezalako bat sortu edota *Kalevala* delakoaren gisako herri-epopeia bat idatzi beharra omen zegoen euskaraz. Orixe zenak hartu zuen bere gain zeregin hori; baita liburu ezin hobea idatzi ere, zorionez: *Euskaldunak* izenekoa. Baina euskarak arriskuan segi zuen: ustea ez baita izatea!

Gauza bera gertatu zaigu geroztiko mitoekin ere: lortu dugu zientzi gaiak euskaraz ematea; badugu telebista euskaraz; gogotik ikasi ditugu Nor, Nori eta Nork guztiak... Eta abar. Eta aurrera goaz. Baina bidea luzea da, pausoz pauso egin beharrekoa, eta ez dugu uste izan behar hurrengo urratsa izango denik azkenekoa: *Usteak, erdia ustel*.

Horregatik ez dugu onartu behar gramatikaren tirania: mito horrek ere erdia ustela duelako. Horregatik eta, borondate txarrik gabe bada ere, ahozko euskara biziaren bidea galerazten digulako.

Larria da Euskaltzaindiak arazo nagusi horretan daukan erantzukizuna; eta larriagoa, tamalez, orain artean egin dion ezikusia. Hortik heldu da desoreka; hortik, ahozkotasuna baztertu eta, nire ustez, Euskaltzaindia noraezean bezala ibiltzea; hortik, gramatika salbatzailearen mitoa.

Bidezkoak
1994ko irailak 27

Euskara batuaren ajeak

Euskaltzaindiaren beraren eta euskara batuaren urtebetetzeak ospatzen ari garenez, artikulu-sorta bat idaztea erabaki dut, opari gisa, euskaltzale guztiei zorionak eman asmoz. Badakit nire oparitxoak ez dela denen gogoko izango; baina, iritziak iritzi, denon mesedetarako izango delakoan ari naiz. Izan ere, txaloak eta goraipuak baino beharrezkoago baititugu, nire ustez, aurrerabideari buruzko azterketak, gogoetak eta proposamenak. Artobero-usaina baino egokiagoak izango dira, noski.

Ahozkoa

Gramatikaren tirania eta mitoa salatu nituen joan den astean. Gramatika, bere izatez, hizkuntzaren osagaien azterketa eta azalpena besterik ez da: gorputz hilari egindako autopsiaren antzeko zerbait. Hizkuntza, ordea, bizia da; eta ezinbestekoa zaigu ahozko euskarak dituen bizigarriak aztertu, azaldu eta erabiltzea, baldin eta euskarak bizitasunik izango badu komunikabide, eskola eta abarretan.

Bizitasuna galtzen duenean, hizkuntza galdu egiten da. Hil aurretik, ordea, agerian izaten ditu gaixotasunaren ezaugarriak; ahulezia, batez ere.

Zertan ezagun du euskarak —euskara batuak— osasun eta osotasun gabezia? Hona hemen ezaugarrietako batzuk; hona hemen, txanda librean, sindromea adinako zantzu edo sintoma-multzoa: erabilpen urria, inkomunikazioa, euskalkiak baztertzea, gaztelerarekiko morrontza, kultur ikuspegi aristokratikoa, euskal estiloa gutxiestea... Bada hor, beraz, kezkatzeko ez ezik larritzeko ere adina zio.

Adieraziko dizkizuet, bai, arrazoi horien xehetasunak eta zergatiak, baina ez txoko txiki honetan; ezinezkoa baita. Ezinezkoa den bezala titarean eskua osorik sartzea. Baina ez ditut aipatu gabe utzi nahi Luis Villasanteren hitz hauek:

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa.

Orixek Irigarairi esandako hau ere oso gogoangarria da:

En dos principios se basa su trabajo. Primero: *Ha de darse preferencia al cuidado del idioma hablado, y el escrito, en aquél ha de mirarse.* Con ese principio estoy absolutamente conforme.

Irigarai eta Orixeren iritzi berekoa naiz neu ere, gai honi dagokionean: ahozko euskara biziak behar du nagusi. Baita Euskaltzaindiak jaramonik egiten ez badio ere!

Gainera, Orixeren garaian ez bezalako behar gorria sumatzen dut gaur egun; izan ere, eta orduan ez bezala, ahozkoatasuna nagusitzen ari baita, berriro ere, munduko lurralderik aurreratuenetan.

Irrati, telebista eta elektronikak bidezko komunikabideek agerian utzi dute, hizkuntzari dagokionean, ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko eten zaharra. Eta zaharra diot, hain zuzen, hizkuntzaz baliatzeko era berri bat nagusitu delako komunikazioan: erdi ahozkoa. Eta euskarari horixe komeni, gure filologoen ez badakite ere!

Erdi ahozkoa

Erdi ahozkotasuna zer den? Ba, entzuleentzat idatzitako hizkuntza: idatzi, ahoz aldarrikatu eta belarriz entzutekoa, alegia. Horixe bera egiten dute irrati-telebistako kazetari eta esatariek, hizlariek, irakasleek eta abarrek. Eta horixe bera egiten dugu, gero eta gehiago, gainerako hiztun eskolatuok: buruz idatzi ahalean, buruan idatzita dakusaguna ahoskatu. Baita bertsolari gazte askok ere, Pello Esnalek jakinarazi didanez.

Bai, iraultza halako aldaketa nagusia gertatu da hizkuntz adierazpidean; gertatu da, gertatzen ari da eta gertatzenagotuz doa. Amaitu da inprentaren agintaldia; dagoeneko hasia da irrati, telebista eta ikus-entzunezkoena. Gainditu da idatziaren eta ahozkoaren arteko etena: erdi ahozkotasunak batu egin ditu biak; idatziaren laguntza behar baitu.

Lege berria, beraz: ahozkoaren zerbitzari behar du idatziak, eta belarria epaile; bestela ez dago komunikaziorik. Betirako galtzen da lehen kolpean ulertzen ez den mezua; eta betirako galduko da komunikazio bizi hori lortzen ez duen hizkuntza. Hordago!

Zorionez, ordea, euskarak abantaila izugarria dauka erdi ahozkotasunak jotzen digun erronka horri aurre egiteko: ahozko tradizio oso aberatsa; ahozkotasunean baitugu erdi ahozkotasun horretara egokitzeko giltza. Eta zer-nolako giltza —urrezkoa!— ahozko euskarak damaiguna! (Bidenabar, euskalkiak eta batua egokiro uztartuko genituzke: *Beharra, eragile on*). Ez ahaztu, bestalde, euskal prosa heldu gabe egoteak zenbat behaztopa eragin dizkigun hizkuntza idatziaren agintaldian.

Zoritzarrez, ordea, aski ezezagunak zaizkigu ahozko euskarak mendez mende landu dituen

komunikaziorako teknikak eta baliapideak: Euskaltzaindiak ez ditu aztertu, eta gure unibertsitateetako jakitunek ere ez.

Zorionez, ez da beranduegi.

Ahoskera

Ahozko adierazpena izaten da, gehienetan, komunikazioaren giltzarri. Ahozkoak baditu bere legeak —idatzizkoak ez bezalakoak—, eta lege eta teknika horiek ezagutu ezean, jakina!, inkomunikazioa sortzen da.

Ahozko adierazpenaren legeak hizketan ikasi ahalean ikasi ohi dira: haurtzarotik hasita, hain zuzen ere, gero eta ikasiagotuz hazten gara. Baina, zorionez eta zoritxarrez, ikasketa hori oharkabean bezala egiten dugu: zorionez, oharkabean ikastea bezalakorik ez dagoelako; eta zoritxarrez, ahazkotasuna baztertzen duen hezkuntza-plangintza oro kultur ikuspegi aristokratikoan oinarritzen delako.

Hezkuntzaren epistemologi mailako oker horren ondorioak gerora azaltzen dira; eta azaldu, batez ere, ahazko adierazpidez bereziki baliatzen diren langintzetan: aktore, esatari, kazetari, irakasle, hizlari, plazagizon, saltzaile... Profesional horiek, sarritan, nork bere aldetik bilatu eta landu behar izaten dituzte ahazko komunikaziorako baliapideak. Beharko landu, baldin eta lanean porrot egin nahi ez badute!

Horiek horrela, aipatutako gabeziak berdintzen ahalegindu beharra dago. Ikastaro bidez edo, ahazkotasunaren alderdi biak landu behar dira: teoria eta praktika, biak. Batetik, teoriari dagokionez, hezkuntza eta kulturaren arteko harremanean ahazkotasunak duen garrantzia aztertu. Bestetik, praktikaren alorrean, euskal ahoskera landu (loturak, azentuak, doinua, doinu-aldaketa, bustidurak...) eta

okerrak zuzentzen saiatu (sesekariak, zezekariak, erdal kutsuko doinuak...); beti ere, euskalkietako doinuak eta ahozkotasan bizia lagun, komunikazioa ziurtatzeko.

Euskaltzaindia, ordea, itzala galtzen ari da ahoskeraren alorrean: entzun besterik ez dago zenbait euskaltzain berriren doinu eta azentu negargarriak.

Ekin eta jarrai

Euskararen geroa, bistan da, oraingo euskaldunon esku dago. Etorkizun hori eskueran eta tirabidean dugunez, gogoeta labur bat ekarri nahi dut plazara, norbaitek aintzakotzat hartu nahi balu ere.

Bere baitan auzi nagusi bat erabaki beharrean ikusten dut Euskaltzaindia. Alegia, zer egin behar ote du gerora begira: *Jarrai*, besterik gabe, ala *Ekin eta jarrai*, bere ikurritzak dioen bezala?

Barandiaran zenak zioenez, kapitain ala notario izatekoak gara, joeraz, euskaldunok. Bietako bat: jokalari ala kontalari. Ataungo jakintsuak eskribauen sailean sartzen zuen bere burua; baina, ekin ere, gogotik ekin zion, zorionez. Izan ere, gutako bakoitza Marta eta Maria da, aldi berean, Kixote eta Santxo, ezpata eta luma, zuhaitza eta txoria... Ekin eta jarrai.

Idien aurretik ala gurdiaren atzetik joan behar du Euskaltzaindiak? Bide-erakusle ala kontu-hartzaile? Eta atzetik joatea erabakiko balu, zein izango genuke gidari hizkuntz gaietan? Nor bere kasa? Bakoitza bere aldetik? Nork uztartuko lituzke idiak? Nork batuko luke orga? Ba ote da halako itzainik, ideologia kontrajarrien arteko amildegia gaintuko lukeenik? Ba ote da halako akuilatzailerik, Gasteiz, Iruñea eta Akitaniako gobernuei onez onean eta denei norabide berean eragingo liekeenik?

Ez, noski, ez da halakorik, Euskaltzaindia besterik; izan ere, Euskaltzaindiaren itzala ezinbestekoa baita horretarako.

Euskaltzaindiak bikain jokatu du orain arte: ongi mereziak ditu, beraz, ospea eta itzala. Euskaltzaindia gogotik ari da lanean gaur egun ere: horra, adibidez, Gramatika batzordekoen ihardun txalogarria. Hortaz, nik ez diot eskatzen **gehiago** egiteko; baizik eta **bestarik ere** egiteko. Hitz batean esateko, hauxe: euskal estiloaren araberako komunikazioa ziurtatzeko bideak aztertu eta finkatzeko. (Euskara egoki horren berri, honen aurreko artikuluetan.)

Egia da Euskaltzaindiarekin zorretan gaudela. Baina alderantzizkoa ere egia da: Euskaltzaindia zorretan dago gurekin; euskalgintzan dihardugun ehunka eta alehunka lagunon eguneroko ahalegirik gabe ez baitezake ezer.

Ez da, ordea, zorrak aipatzeko garaia; baizik eta etorkizuna geureganatu asmoz elkarrekin lan egiteko garaia. Ikasle, irakasle, kazetari, aktore, itzultzaile, bikoizle eta abar luzea gaude Euskaltzaindiari begira —behinolako neskamea etxekoandarearen eskuei begira bezala—. Hizkuntzari dagokionez, lanerako tresna egokiak behar ditugu, eta Euskaltzaindiaren esku dago lanabes horien egokitasuna erabakitzea.

Ekin eta jarrai; laguntzeko ere prest gaude eta!

Bidezkoak

1994ko urriak 4, 11, 18 eta 25

Hika: To! eta No!

Hika egiterakoan, nola esan behar zaie abere emeei: *aizak* ala *aizan*? Eta landare edota izaki bizigabeei? Zuka hitz egiterakoan ez dago arazorik, jakina; *aizu* esaten baitzaie Peruri nahiz Mariri: arrari nahiz emeari biei *tori* esaten zaien bezalaxe.

Hika egiterakoan ere jakina da mutilari *to* esaten zaiola *tori* esan ordez, eta neskari *no*. Hortik dator, hain zuzen, *toka* edota *noka* deitzea hitz egiteko era horri; eta hortik dator *hitano* izena ere. Zuk badakizu, noski, horren berri, irakurle. Baina badakizu zein den artikulu honen hasierako galderaren erantzun zuzena? Ziur al zaude? Erabat ziur? Usteak ez du balio, e! *Usteak, erdia ustel*.

Ea zer dioen honetaz, esate baterako, orain atera dituzten hiztegi entziklopediko mardul horietako batek!

noka. Emakume bati hika.

Ederki adierazia! Zuzen, argi eta labur!

toka. Gizonezko bati hika.

Argi eta labur esana badago ere, azalpen hori ez da osoa.

to. Gizonezkoei edo animalia arrei deitzeko erabiltzen den hitza.

Geldi hor! Hortxe daukagu erantzuna! Lastima, erantzun hori erabat zuzena ez izatea; «animalia arrei» ez ezik, *toka* egin behar baitzaie emeei ere: ardi, behi, behor, oilo...

Baita mendi, zuhaitz, izar, itsaso eta gainerako izaki bizigabeei ere: *toka* den-denei. Bai gorpuzgabeei ere: arima, maitasun, kontzientzia...

Hauxe da, beraz, betidaniko usadioa: emakumeei bakarrik esaten zaie *aizan*; ez besteri. Gainerako guztiei, *aizak*.

Hori ez da nik asmatutako kontua, jakina!; baik eta euskararen eta euskal kulturaren berezko ezaugarri bat. Rene Lafon euskaltzalea arduratu zen auziaz. Euskal literatura aztertu zuen Lafonek: liburu ikasiak eta landuak ez ezik, baita herri-literatura ere. Eta euskal literaturak, aho batez, erantzun garbia eman zion. Ba omen dira legez-kontrako adibide gutxi batzuk ere: erdararen eraginezko salbuespenak. Eta ez da iritzi-kontua: argi dago, Koldo Mitxelenak zioenez.

Idazkera-liburua delakoan (269. or.), guk ere eman genuen auzi honen berri zehatzago. Bertara jotzen baduzu, ikusiko duzu hauxe dela hiztegirako gure proposamena:

to. Emakumea ez den bati deitzeko erabiltzen den hitza.

toka. Emakumeari ez beste edozeini hika.

Matxismo-konturik edo gisa horretako kutsurik ez dauka honek. Izan ere, *to* markagabeak bezalakoa baita, adiera zabalekoa; eta *no*, markadun gisakoa, adiera zehatzekoa.

Amaitzeko, jakingarri bat: antzinako Grezian, Egipton eta Mesopotamian ere ar edo maskulinoztat omen zeukaten landaredi edo flora osoa.

* * *

Hika, lehen

Lagunarterako hizkera da hika: adiskidetasuna, etxekotasuna, hurbiltasuna... adierazten ditu. Garai bateko euskaldunek guk baino egokiago eta lasaiago egiten zuten hika, irakurle.

Joanes Leizarragak, esate baterako, nahiz eta begirunerik handiena izan, hika hitz egiten zion Jainkoari berari ere. Begira, adibidez, hark itzuli eta 1571an (duela laurehun eta gehiago urte) argitaratutako otoitz-zati honi:

Gure Aita zeruetan haizena. Santifika bedi hire izena. Etor bedi hire erresuma. Egin bedi hire borondatea zeruan bezala lurrean ere. Gure eguneko ogia iguk egun.

Jainkoa ere hika mintzo da Leizarragaren itzulpenean. *Ni nauk hire Jainko Jauna* esanez hasten dira Hamar Manamenduak. Eta hika dakartza agindu horiek guztiak; baita hamargarren hauxe ere:

Ez duk gutziaturen heure hurkoaren etxea, ez emaztea, ez mutila, ez neskatoa, ez idia, ez astoa, ez haren den gauzarik batere.

XVI. mendeko usadioaren arabera edo, hika idatzi zuen Leizarragak —nik ortografia besterik ez diot aldatu— garai hartako kristau euskaldunentzat. Itzulpen hori Nafarroako erreginarenekin aginduz egin zuenez, bidezkoa da galdetzea Jainkoari hika egiten zion gizonak erreginari ere hika egingo ote zion. Leizarragak berak itzulitako Biblia horren hasieran daukagu erantzuna:

Guzizko Andre Noble (...) ni zure ezagun gabea bezala naizelarik (...)

Zuka, beraz, erreginari. Ez da harritzekoa, nire ustez. Eta zergatik egin ote zion zuka? Ezezaguna zuelako bakarrik? Ez; baizik eta, batez ere, garaiko

protokolo zorrotzak hala agintzen zuelako, noski. Dena den, ohargarria da berorika ez egitea erreginari.

Leizarraga baino askoz ere lehenagokoa dugu hitanoaren agerpena euskal literaturan. Bizpahiru adibide besterik ez dugu behar: antzinakoak dira denak, nahiz datarik jakin ez.

Batetik, esaera zahar hauxe:

*Behar haut eta hel hakit;
ez haut behar eta ken hakit.*

Bestetik, irain-erronka hau:

*Gaztelako Joanikot,
egidak ipurdian pot!* [muin eman]

Bereterretxeren baladan ere hika egiten dute, sarri, denek: kontalariak bere buruari (*ez nian uste*), Bereterretxek neskari (*habil eta so egin ezan*), ama Marisantzek bere nebari (*hitaz hunik ez baldin bada*), osaba Buztanobik Marisantzi (*arriba, hago isilik*) eta kondeak denei. Zuka egiten diete, ohizkoa den bezala, kontalariak entzuleei, semeak amari, eta denek jaun kondeari.

Azken mendeotako moralkeriak eta kultur ikuspegi aristokratikoak gaitzetsi egin dute hitanoa; baina, herriaren kulturari esker, oraindik ere bizi dugu hizkera bizi hori.

Hika, zeini?

Hika egiterakoan, ez da beti erraz jakiten non, noiz eta nori hitzegin behar zaion hika. Lekuan lekuko ohiturari eta garaian garaiko usadioari begiratu behar zaio.

Herri batean ohizkoa dena, izan ere, nabarmen samarra irudituko zaie, agian, beste herri batekoei. Baliteke, gainera, ohitura ezberdinak izatea herri batean berean ere, Imanol Aldaregiak adierazi zidanez. Imanol oiartzuarra da, eta baserrian jaioa.

Txikitan, hika egiten zuten senide artean; eta gurasoei, zuka. Kaleko neska-mutilek, aldiz, zuka egiten zioten elkarri; eta gurasoei, berorika. Baserritarrek barre egiten omen zieten kaletarrei horregatik.

Garai batean ohizkoa zena, bestalde, nabarmen samarra irudituko zaigu, agian, beste garai batekooi. Joan den astean aipatu bezala, Leizarragak (1571) hika hitzegiten zion, begirune osoz, Jainkoari; baita esku, begi, itsaso, zuhaitz, mendi, herri, hiri, arima, aingeru eta abarri ere: hika —toka— denei. Ba ote da, gaur egun, Jainkoari hika hitzegitera ausartzen den gizalegeko euskaldunik?

Jakina da seme-alabek ez dietela hika hitzegin behar gurasoei:

Haurrek aitari esatea To!, amari No!,
jotzea bezalatsu.

Baina ikasi berria dut (Mokoroa, 91017) ijito euskaldunek beti hika egiten omen diotela (ziotela?) elkarri; baita beren gurasoei ere.

Baina salbuespenak salbu, seme-alabek zuka egingo diete gurasoei; eta gurasoek ere zuka, haurtxo txikiei. Senide artean, berriz, lekuan lekuko ohitura duzu nagusi: batzuek kalean bakarrik egiten dute hika; beste zenbaitek, ordea, anai-arreben artean ere bai.

Egoera-aldaketak hizkera-aldaketa ekar dezake: lehen, ezkongaietan elkarri hika egiten zioten neska-mutilak zuka hasten ziren senar-emazte izan orduko. Bestelakorik ere izango zen, noski.

Gizalegez, morroiak ez dio hika hitzegiten nagusiari; ezta neskameak etxekoandreari ere. Nagusi-etxekoandreek, aldiz, hika nahiz zuka egiten diete euren menpekoei.

Ezezagunei zuka hitzegiten zaie; deabruari, hika; eta erleei, zuka. Nork bere buruari hika hitzegin ohi dio.

Jendaurreko hitzaldiak zuka egin behar dira beti; baita prentsako elkarrizketak ere. Literaturan, antzerkian eta zineman, ordea, hika mintza daitezke kontalaria ez beste guztiak; egokiena horixe baita zenbait giro adierazteko.

Euskarazko *hi-zu* eta gaztelaniazko *tú-usted* ez dira baliokideak; horretan ere alde handia dago hizkuntza batetik bestera. Beti *zu* itzuliko genituzke gaztelaniazko *usted* eta frantsesezko *vous*. Gaztelaniazko *tú*, ia beti *zu*; eta baita frantsesezko *tu* ere.

Bidezkoak

1995eko ekainak 13, 20 eta 27

Argi eta garbi, on eta merke

Ez dit poz makala eman etxeoandre ingeles batek! Ni baino gehiago da; bai horixe! Gu aspalditik ari gara hemen, esan eta esan, argi eta garbi egin behar dugula euskaraz, gramatikazko zulentasuna ez dela nahikoa, hizkera egokia eta samurra behar dugula, lehen kolpean ulertzeko modukoa, bestela inkomunikazioa sortzen dela, gaizki goazela sasi-euskara gordinarekin eta abar. Hamaika aldiz esan eta idatzi dugu horixe! Ez, ordea; apenas kasurik egin diguten oraintsu arte. Horregatik eman dit halako poza etxeoandre ingelesak.

Chrissie Maher du izena, eta langile-mailako ama familiakoa omen da. Beharrak erakutsita edo, hor konturatu da diruz estu eta larri dabilen zenbait jende —eta ez gutxi ere— gobernutiko diru-laguntzarik gabe geratzen dela, sarritan, zailegia delako laguntza eskatzeko paperak behar bezala betetzea.

Hor hasi omen da protestaka gure etxeoandre kementsu hori. Hizkera laua behar dela dio: korapiloric eta katramilarik gabea, jende guztiak argi eta garbi ulertzeko modukoa.

Agintariak, isilik; burokratak, lasai; administrazioako hizkera, beti bezain traketsa: hor konpon

dadila eskola handirik gabea! Eta horrelaxe, urtea joan eta urtea etorri: lehengo lepotik burua.

Harritzekoa ere ez da eta, hamar urteren buruan, hor aspertu da eske eta eske ari zen gure etxekoandre ausarta: baina, gogotik aspertu arren, ez du etsi. Kanpaina bat antolatu, *Plain English Campaign* izenekoa, eta hor bildu ditu hizkera lauaren aldeko herritarrak: administrazioak darabilen hizkera ilunaren aurkakoak, lantegietako kontratu ulergaitzen aurkakoak, bankuetako hipoteka eta aseguroetako polizatan azaltzen den letra txiki kaltegarri horren aurkakoak eta abar.

Bildu dira parlamentuaren aurrean, atera dituzte ehundaka paper eta inprimaki ulergaitz (herri-agintaritzan erabiltzen direnetakoak), erakutsi dizkiote jendeari, eta, azkenean, txiki-txiki egin dituzte idazki ilunok. Baita ozenki adierazi ere protesta horrekin lortu nahi dutena: hizkera argi eta garbia, denok ulertzeko modukoa.

Agintariak, harrituta; burokratak, urduri; administrazioko hizkera, auzipean. Lehen ministroak, kexatzeko adina arrazoi bazela ikusirik, agindu sendoa eman du: idazki ofizial guztiak aztertu, nekez ulertzen direnak baztertu eta ordezeko egokiak presta ditzatela.

171 mila idazki aztertu dituzte eta erdiak baino gehiago baztertu. Baita argi eta garbi idatzitakoei esker 250 milioi libra esterlina aurreztu ere! Esango dizut nola; baina datorren asteartekoan beharko.

* *

Ona, polita eta merkea? Aspaldi hil zen! Esaerak hala dio eta ongi dio; baina esaera ez izaki beti egia! Joan den asteartean esan nizun gobernu ingelesak 250 milioi libra esterlina aurreztu omen zituela, 1979an, idazki ofizial guztiak argi eta garbi idaztea

erabaki izanari esker. Kaleko jendearen eraginez hartu zuten agintariek erabaki hori; eta, esan bezala, etxekoandre xume bat ibili zen herritarren buruzagi: Chrissie Maher.

Ona da idazki ofizialak argi eta garbi idaztea; horrela jende guztiak ulertzen baititu. Komunikazio-rako ona izateaz gainera, polita da idazkera argia; begiratzeko ere atseginagoa baita. Baina egia ote da merkeago ateratzen dela argi eta garbi idaztea?

Bai; ingelesen eskarmentua ikusi besterik ez dago. Libra esterlinak 190 pezeta edo balio omen dituenek, a zer herri-diru pila aurreztu zutena: 47.500 milioi pezeta adina! Baina nolatan aurreztu ote zuten horrenbeste diru?

171.000 idazki eta inprimaki ofizial baino gehiago aztertu omen zituzten, eta horietatik 36.000 baztertu, nekez ulertzen zirelako. Gainerakoetatik, 58.000 aldatu edota birmoldatu beharra izan zuten: argiago idatzi eta garbiago diseinatu. Merezki izan zuen, hala ere, uste baino fruitu hobekak heldu baitziren:

- Inprentako gastuak asko merketu ziren: bate-tik, lehen baino bost aldiz gutxiago inprimatzen zelako; eta bestetik, herritar-jendeak gaizki betetako eskari-idazkiak asko urritu zirenez, bukatu egin zelako behar baino milioika kopia gehiago atera beharra.
- Lan-saritan ere dirutza handia aurreztu zen; agintariek ez baitzuten, lehen bezala, langile gehiago kontratatu beharrik izan gaizki betetako eskari-idazkiak aztertzeko eta herritarrei idazten jarduteko edota telefonoz deika.
- Telefono-gastuak ere asko jaitsi ziren; lehen, sarritan eta luzaro hots egin behar izaten bait zitzairen herritarrei banan-banan argibideak eskatzeko.

Gobernuak sekulako arrakasta lortu omen zuen hizkera argiari esker, eta, hori ikusi orduko, beste erakunde asko ere bide beretik abiatu zen.

Ipar amerikarrak aurretik zebiltzan, ordea, bertako kontsumitzaileen elkarteen eraginez. 1975ean, New Yorkeko Citibank delakoak hizkera garbira moldatu zituen bere mailegu-eskariak. 1978an, berriz, agindu hauxe eman zuen Carter gobernuak:

Lege, agindu eta erabaki nagusiak
argi eta garbi idatzi:
arau horiek bete behar dituenak
erraz ulertzeko moduan.

Eta Euskal Herrian? Noizko dugu hizkera argi eta garbia? Noizko, euskara egokia?

Bidezkoak

1995eko azaroak 14 eta 21

Euskaltzaindiak erabaki du

Gurdiaren atzetik ibiliko da, oraingoz. Horixe adierazi berri digu, Tolosan, Jagon sailburuak, Miren Azkaratek:

Euskararen zuzentasunaz arduratuko da Akademia; ez egokitasunaz. Baina, hala ere, prest dago euskara egokiaren beharrean diren euskaltzaleei laguntzeko, ahalegina.

Behin-behineko erabaki horrekin erantzuna dago, nik, orriotan bertan, orain dela bi urte justu (1994-X-25), argitara nuen galdera:

Idien aurretik ala gurdiaren atzetik joan behar du Euskaltzaindiak? Bide-erakusle ala kontu-hartzaile?

Eta atzetik joatea erabakiko balu, zein izango genuke gidari hizkuntza gaietan? Nor bere kasa? Bakoitza bere aldetik? Nork uztartuko lituzke idiak? Nork batuko luke orga? Ba ote da halako itzainik, ideologia kontrajarrien arteko amildegia gaindituko lukeenik? Ba ote da halako akuilatzailerik, Gasteiz, Iruñea eta Akitaniako gobernuen onez onean eta denei norabide berean eragingo liekeenik?

Ez dugu halakorik, noski, Euskaltzaindia besterik; Akademiaren itzala ezinbestekoa baita horretarako.

Begira, irakurle, zein den nik erabili nuen hitza: itzala. Esan nahi baita begirunea, ospea, babesa, errespetua...

Euskaltzaindiak bikain jokatu du orain artean eta ongi merezitako itzala dauka. Eta, hain zuzen ere, itzal horixe da guk behar dugun ezinbesteko laguntza euskara egokia landu eta eredutzat hartzeko. Hau da, eskola-mota guztietan, prentsan,

administrazioan eta abarretan euskal estiloaren araberako komunikazio argi eta garbia ziurtatzeko bideak aztertu eta finkatzeko.

(Kontuz, gero! Ez da gauza bera euskara argia eta euskara erraza: argia da ulertteraza, eta oso landua izan ohi da; hizkuntza erraza, aldiz, oso pobrea izan daiteke. Hortaz, ez nahastu bata bestearekin.)

Dezakeena ematen duenari ez dago gehiago eskatzerik. Eta Euskaltzaindia prest dago, gainera, bere itzala emateko.

Ba al dakizu, irakurle, noiz egiten diren Euskaltzaindiako lanak? Harrigarria irudituko zaizu, beharbada, baina hauxe da egia: nork bere lantokiko orduz kanpo, asteburuetan eta oporretan; izan ere, euskaltzainek ez baitute kobratzen Akademian lan egiteagatik. Eta, jakina!, nahi izatea ez da aski; iritsi ere egin behar da.

Horixe omen da egokitasunaren gidaritzza hartu nahi ez izanaren arrazoi nagusia: iritsi ezina. Bestalde, Espainiako Akademia eta Frantziakoa ere zuzentasunaz bakarrik arduratzen direnez... Gurdiaren atzetik, kontu-hartzaile.

Horiek horrela, nor, idien aurretik? Nor, bide-erakusle? Ba, euskalgintzan dihardugun ehunka eta alehunka lagunok, alorrez alor antolaturik, elkar harturik eta Euskaltzaindiaren itzalean koordinaturik.

Orain bereiziko da zein den benetako euskaltzale eta zein den alderdikeria zale. Erne! Batasunaren bigarren urrats nagusia egitera goaz, ahozko kultura eta euskalkiak ere lagun ditugula. Ekin eta jarrai!

Bidezkoak
1996ko urriak 24



*Joakin Berasategi, Pello Esnal, Bernardo Atxaga eta Antonio Zavala
Auspoaren auspoa aurkezten (1996-VI-25).*

Bidezkoak

Bertsoak eta areago

Auspoa

Antonio Zavala jesuita euskaltzaleak sortu zuen Auspoa argitaletxea; Tolosan sortu ere, 1961ean, oker ez banago. Ez du lanean atertu ere egin geroztik! Horko bertso eta kontu zaharrak!

Berrehun eta askoz liburu gehiago atera du, dagoeneko, Auspoa izeneko sail horrek. Ez da ahuntzaren gau erdiko eztula! Zorionak eta milesker Antonio Zavalari; beronen etengabeko ahalegin oparoari zor baitiogu, liburuz liburu, ahozko euskal literaturak eta bertsolaritzak emandako lore bikain askoak haizeak eraman ez izana. Gure agintarientzat, ordea, orri horiek orbel dira: hosto ihartuak.

Herri-literatura kultura da, eta herri-jakintza, jakinduria. Soineko apalez agertzen zaigu jakinduria hori, itxura sotila du kultura horrek; ez baititu handikiro aldarrikatzen bere altxorrak, ez baitu bere burua ederresten, ez baitu ezagutzen zer balio duen, *esatea* baino nahiago baitu *izatea*. Gizonok, arnaska bizi arren, ez dakigu geure arnasaren berri; baina arnasarik hartu ezean ito eta hil egiten gara.

Arnasa bera bezain xumea da herri-jakintza: arnasa bera bezain unerokoa, etengabekoa eta ezinbestekoa. Hain zuzen, kultura horren ezaugarri da herri-literatura.

Herri-literatura zaharreko gizonek pentsatu ere ez zuten egiten literatura egiten ari zirenik. Beste perspektiba bat dute horien testu konkretuek. Literatura ez zen edergintza huts: bazuen beste egitekorik. Kultura zaharretako gizonentzat literatura oso loturik dago erlijioarekin, magiarekin, erritoekin, historiarekin, gizarte-bizitzarekin, festaren ospakizunarekin, maitasun-sentipenen agertzearekin, gizalegea erakustearekin, edota mitoen bizia suspertzearekin eta abarrekin.

Juan Mari Lekuonaren hitz horiek akats bat dute, nonbait, *moderno* ustekoentzat; hauek ez baitute zahar kutsurik nahi. *Moderno* izateko irrikak itsututa ez dira ohartzen eguneroko bizimodu xumean eta folklolean (herri-literaturan, ipuin eta kanta zaharretan, herri-dantzetan, ohitura eta sinismenetan...) daukala herriak hizkuntza biziberritzeko giltza, estilo ezaugarria eta eraberritzeko indarra. Baina horiek folkloreakerik dira *progre* modernoentzat: baserritarkeria mespretxagarriak.

Badirudi, zoritxarrez, gure agintariak ere horrako *progre* horien sailekoak direla. Nola uler daiteke, bestela, Antonio Zavala eta Auspoa liburutegia aintzakotzat ez hartzea? Zer egin behar ote dute agintariak horrekiko: hor konpon hadi eta *Hilda gero, salda bero?*

Esan nahi nuke gizon horri lagundu egin behar zaiola; ez baita beretzat ari, baizik eta denontzat. Herri-dirurik ez al dago horretarako? Pobreak ez; miserableak ematen dugu.

Bidezkoak
1995eko otsailak 21

Sekulako bertsoak

“**S**ekulako bertsoak, Pello Esnalek San Inaziori jarritakoak”. Horixe entzun nion bapateko bertso gintzako txapeldun bati.

Neu ere horretan nago, neure iritzi laburrean. Egingo nuke, gainera, beste hamalautxo bertsozale ere iritzi berekoak direla; ehunka eta aleunka baitira berrogei bertso horiekin gozatu dutenak: batzuk, zuzenean, Azpeitian, egileak Loiola 91 saria jaso zuen egunean; beste batzuk, gehienak, telebista bidez, orduz geroztik bizpahiru aldiz emana baitu ETBk saio hura bera. Orain, berriz, Auspoa-Sendoa saileko *Itzuliko naiz* izeneko liburuan dauzkagu.

Ez dira ‘koplak’, gero! Ez baita txantxa, besteak beste, 37. bertsoak dakarren hau:

*... non legokeen zoriona ta
non dagoen zoritxarra.*

Ez da makala, gogoetarako, bertso bereko beste zati hau ere:

*Zure bidea erakustera
badator halabeharra.*

Nork esan zuen bertsolaritza herri xumearen ezjakinkeriaren umea zela? Nora gorde da hori esan zuen kaiku-segapotoa? Nork ukatu zion metafisikaren alorra euskarari?

Jakintsu usteko ezjakinen batek, noski; adibidez, “legokeen” aditzaren eta “halabeharra” hitzaren muina ezagutzen ez zituenen batek. Oker zebilen, ordea; oso ere oker! Izan ere, ezjakina ote da “halabeharra, ezbeharra, nahigabea, ondoeza” eta gisako hitzak ongi bereizten dituen herri xumea? Izan ere, jakintsua ote da *mertxikaren lorearen ederra / barnean dizu hezurra gogorra* entzutean “el melocotón es una monocotiledónea” pentsatzen duen babalore ilustratua?

Euskarak baditu fisika eta metafisika aditzera emateko adina baliabide. Eta aditzera eman, gainera, herri xumeak ere —nork bere mailan— ulertzeko moduan. Euskal kulturak baditu —ahozko kulturak, batipat— baliabide adierazgarri horiek erabiltzeko giltzak. Eta erabili, gainera, euskal estiloaren arabera: atseginez nahiz atsekabez kantari, bertsolariek egiten duten bezala.

Horretantxe agertu zaigu txapeldun Pello Esnal: giza bihotz baten —ororen?— ezkutukiak bertsotan ematen kantagai. Jende xumeak erraz ulertzeko moduan eman ere; eta, aldi berean, jenderik eskolatuenak erabat ulertu gabe geratzeko moduan. Izan ere, bertsoaren kantu-oihartzuna belarriaren mugetatik harantzago iristen den bezala, bertso hauen hitzaren mamia buruaren mugetatik harantzago baitoa. Hori da arte-lana!

Bejondeiala, Pello! Segi, urte askoan, bertso-laritzaren alorrean ere euskal kultura jorratuz eta aberastuz!

Bidezkoak
1995eko abenduak 5

Lazkao Txiki

Zeruan ikusi nuen, joan den larunbatean, Lazkao Txiki. Ez, ordea, ni neu zeruan nintzelako, ez; tamalez, infernu gorria iruditzen baitzait, oraintxe, Euskal Herria. Zer da, baina, hemengo gorroto, harrokeria, zakarkeria eta bortizkeria hau? Zer gabilta euskaldunok, etxekalte alaenok, basapiztiak baino okerrago? Non da gizalegea?

Lazkao Txikik berak ere gogotik nozitu omen zuen gure herriaren egoera negargarria: hamaika min eta samin, hamaika nahigabe eta atsekabe, hamaika eraso eta zauri gaizto jasan eta eramango zuen gorputz txiki hartan bizi izan zen gizon haundiak. *Bertsoak, barrez-barrez; bihotza, negarrez.*

Norbera jota egon arren, lagun hurkoari poz emanaz bizi izan direnen zeruan egongo da, noski, Lazkao Txiki. Baita Xalbador zena eta beste asko ere! Halako paradisurik balitz, huraxe bai zeru atsegina, bihotz zabal emankorra urratutako gizona; neke guztien ondorengo atsedean hartan, bertotan edota hizketan, elkar gozo-gozo zirikatzen dutenena!

Zeru apalago batean ikusi nuen, ordea, lehengoa; bere sorterrian ikusi ere: Lazkaon. Jakingo duzu, noski, irakurle, Lazkaoko herriak goratzarre egin ziola bertako bertsolari ospetsu izanari; baita harrizko estatua bat eginarazi ere zenduaren irudi

berekoa. Hantxe dago, plaza ederrean dotore asko jarrita, zutik, ekialdera begira, plaza, kalea, eliza, herria eta herrikoak denak aurrez aurre dituela; baita Aralar mendi maitea ere.

Lazkao Txikiren harrizko estatua hori, bai egoki landutako irudia! Bizirik dagoela ere esan liteke, beti isilik ez balego. Halere, hitz gabezia hori arintzeko edo, honako bertso hauxe ageri da bertan, harrian landutako letrez:

*Loa uxa det ohetik eta,
eguzkiak hor dio su;
infernuaren antz berbera zuk,
alde batera, daukazu.
Baina, eguna, gazte zera ta
zeure besotan naukazu:
milla zorion, egun guztian
arnas ematen banauzu!*

Herenegun bezperagoan Lazkaon egokitu nintzenez, bisita egin nion harrizko bertsolari horri... eta ni neu geratu nintzen harrituta! Zer uste duzu ikusi nuela, irakurle? Berrogeiren bat neska-mutil, hortxe 11 urtetik 16 urtera bitartekoak, Lazkao Txikiren oinetan bilduta, haren irudiaren babesean jarrita, aitaren itzalean bezala, lasai-lasai eta goxo-goxo, lagunarte ederrean, taldetxoka, denak elkarrekin berriketan, euskaraz eta erdaraz, inongo zalapartarik eta harrokeriarik gabe, alai, bizi-itxaropenez beterik.

Hortaz, goraintzi zuri, Lazkao Txiki! Ez etsi, Goierrri! Eguberri on, irakurle!

Bidezkoak
1995eko abenduak 20

Auspoaren hauspoa

Auspoa izeneko liburusaila ezagutzen ez duen euskaltzalerik ba da, zoritxarrez; eta ez gutxi ere. Ez da erraz ulertzen nola litekeen hori. Izan ere, oraindik orain hasi berrietakoa balitz, tira!; baina Auspoa sailak 40 urte beteko baititu laster.

—Liburusorta urria izango da, orduan. Horregatik izango da, noski, ezezagun samarra: konta ahala liburu argitaratuko zituen eta!

—Ez horixe; honez gero, laster baita 250. liburuan: bi ziento t'erdi, mila laurdena. Dagoeneko osatu ditu hogei dozena. Gutxi al deritzozu horrenbeste libururi? Sorta urria, agian? Sail laburra, beharbada? Bilduma hutsala, apika? Ekimen antzua, akaso?

—Horrenbeste fruitu eman, eta antzua? Ez, adiskidea, ez! Ez antzua, ez hutsala, ez laburra eta ez urria; baizik eta guztiz oparoa, joria, ugaria...

—Mamitsua, gainera, ale bakoitzaren nolakoari arretaz begiratuz gero.

—Eta zein da, ba, Auspoa sailaren mamia?

—Euskal herri-literatura. Badakizu: euskarazko bertso zahar eta berriak, bertsolarien bizitzak eta idazlanak, garai bateko bizimoduak eta pasadizoak, esaera zaharrak edo atsotitzak, ahozko kontakizunak eta ipuinak... Beste era batera esateko, letragabeko euskaldunen jakintza.

—Analfabetoen jakinduria? Tira, tira! Ezer ikasten al da, ba, eskolan izan ezik?

—Eskola txikia iruditzen al zaizu mundua? Eskola txarra, mendia? *Irakaslerik onena bizitza da, aizu!, eta Beharra, erakusle on.*

—Gaur egunerako, ordea, larre motza dugu hori.

—Bai; baina horrek ez du esan nahi baztertu, gutxietsi edota ukatu egin behar dugunik. Begirune eta estimazio gehiago merezi du herri-jakintzak. Antzinako arbasoetatik hasi eta milaka urtez, gizaldiz gizaldi, belaunez belaun, ahoz aho ekarritako altxor hori (urre gorria, urre araztua) errekarra botatzen duen herria bere burua botatzen ari da: bere buruaz 'beste' egiten.

—Ito ote daiteke Euskal Herria hondamendizko erreka horretan?

—Galdu, agian; ez baitu bere burua ezagutuko uretan isladatutako irudian. Hala, nahastu egingo da eta galdu; errekarako urak ez baitira bereizten ibai nagusiko zurrunbiloan. Nortasun psikikoaz ari naiz, jakina: euskal kulturaren etika eta estetika, gizalegea eta estiloa ditugu nahasbidean, galbidean.

—Izaera, ordea, aldakorra eta moldakorra da, bizilegez.

—Hala behar ere; aldian aldiko behar izanetara egokitzen ez dena galdu egiten baita. Hori dela eta, bere iragana ezagutzen ez duen herria galduta eta salduta geratzen da: esaterako, amnesiak jota dagoen gaixoa dirudiela.

—Eta horretan dago, noski, Auspoaren merito nagusia.

—Hain zuzen: horretan eta herri-literaturak euskalgintzarako duen balio bikainean.

—Eta nor dugu, ba, izenburuko *Auspoaren hauspoa* delakoa?

—Antonio Zavala, tolosar jatorra, langile porrokatua, euskaltzale adoretsua eta jesuita jakintsua. Gaur arratsaldean agertuko dira beraren hitzaldiak (1956-1996) dakartzaten bi liburuak. Aurkezpenean ikusiko dugu elkar.

Bidezkoak
1996ko ekainak 25

Hori da ezin eramana!

Gerra piztu nahirik omen gabiltza. Horixe irakurri dut aldizkari jakin baten iraileko alean. Alegia, Antonio Zavalaren *Auspoaren auspoa* liburuaren aurkezpenean parte hartu genuenok gerra piztu nahirik omen gabiltzala. Edo omen dabiltzala; auskalo, aldizkari jakin horretan ez baita izenik aipatzen.

Zein ote da, dira edo gara ustezko gerra-piztaile horiek? Antonioren lagun bakar batzuk? Asko, gehienok, denok...? Antonio Zavala bera eta Joakin Berasategi? Kontuz, agian zu zeu ere bai, irakurle!

Eta zein gerra ote da hori? Egiazkoa ote da? Ustezkoa? Aldizkariko horren amesgaiztoetakoa? Batek daki!

Antionioren liburu bikainen aurkezpen hura omenaldi pozgarri bihurtu zen. Bazen garaia! Neu ere tartean nintzenez, hauxe esan nahi dut:

*Ez naiz ni gerraren zale;
baizik pakearen alde.*

Baina, halere, bakean uzten ez bazaituzte; zer egin, gerra nahi duenarekin? Zer egin, okasio edo sesio bila dabilen sasi-piztailearekin?

*Zeinek nahi duen galde,
berari tira, dale!*

Usain txarreko gauza asko izan omen ziren, alajaina!, aurkezpen-omenaldi hartan. Horixe dio izenik aipatzen ez duen horrek. Bejondeiola! Ez dauka sudur makala, usain eta guztidun ametsak egiten baditu! Baina ez harritu bere amesgaiztoari usain txarra badario: nolakoari, halako.

Aurkezpen-omenaldi eder hartako giroa ezin hobea izan zen, irakurle. Neroni naiz diodanaren lekuko: ez zait berehalakoan ahaztuko arrats hartako jendearen gozotasuna. Nahi al duzu jakin, gainera, zer esan zidan, etxerakoan, goizeko ordu txikitán, Bernardo Atxaga adiskideak?

—Hamaikatxo bilera eta ospakizunetan ibili izan nauk mundu guztian, Joxe Ramon; baina ez diat ezagutu gaurkoa adinako poztasun ederrik. Ezta Euskal Herrian bertan ere, aspaldiko urteotan!

Poz hartzekoa zen, izan ere. Batetik, Antonio Zavalari gure esker ona erakutsi genion haren inguruan bildu ginenok, zahar eta gazte (ez hain gazte). Bestetik —eta hau da pozgarriena—, bilera hartan mamitu zen, zorionez, gero eta sendoago eraikitzen ari garen elkargune-zubia.

Antzinakotik etorkizunerako zubi zabal horretan jardun genuen, ahalegina, bikoteak egokiro uztartzen: euskalkiak eta euskara batua, ahozko kultura eta idatzizkoa, egokitasuna (pragmatika) eta zuzentasuna (gramatika), herri-literatura eta literatura klasikoa, zaharra eta berriagoa...

Hari jakin batekoak bildu ginela dio —‘salaketa’ egiten du!— izenik esan gabe aipatu dudán aldizkariak. Egia da. Argi eta garbi dago baldintza bi bete behar direla zorioneko hari horrekin txirikorda egin ahal izateko: batetik, gizalegeko euskaltzale saiatua izan; bestetik, euskara biziaren aldeko zubigintzan jardun.

Salatari horrek jakingo ahal du ezinbesteko bi baldintza horietatik zenbat betetzen dituen berak: biak, bakarra, ala batere ez. Hor konpon!

Bidezkoak
1996ko urriak 9

**Bertsotan,
Euzkitze txapeldunorde;
gizalegean,
Xabier Perez txapeldun**

Badirudi zeresan ugari sortu dutela Euzkitzek txapelketa ostean egindako adierazpenek. Bazterretako hautsak harrotu dituzte, dirudienez, txapeldunorde berriaren hitzek. Eztabaida ere plazaratu da, agi danean, komunikabideei esker. Nik ez dakit tirabira horien berri: entzun dudana besterik ez dakit. Izan ere, txapelak zein buru estali —ohorez eta erantzukizunez estali— behar zuen erabaki eta biharamunagoan, Euskadi Irratian egin zioten elkarrizketa entzuteko aukera izan bainuen.

Atsegin betean entzun nituen Nikolas Aldairen galderak, eta atseginez bete ninduten Euzkitzeren erantzunek. Horrez gainera, Euzkitze berberak idatzitako aitorpenak irakurri nituen gaur zortzi *D.V.-Zabalik* saileko orriotan bertan. Paperezko aitorpenetik hartuak dituzue ondorengo hiru lerrokadok. Hauxe zioen, besteak beste, Xabier Euzkitzek:

Ez dakizue zer-nolako poza ematen duen txapeldunordetzak... txapelduna Egaña denean.

Izena emateko adinako ilusiorik ez genuenok ere, bertsozaleei zor diegun begirune eta ahalegina-gatik, hor eman dugu ahal izan dugun guztia eta apur bat gehixeago. Eta niretzat ez ote da zilegi epaileen irizpideez, egungo bertsozaleen joera eta gustoez, daramagun norabideaz ditudan kezka eta zalantzak aireratzea? Ez ote dut eskubiderik kriterio desberdintasun garbia dudala eta gogoeta sakon bati atea ireki behar dizkiogula esateko?

Aspalditik darabiltzat buruan bueltaka bertso-munduak daraman norabideak sortzen dizkidan zalantzak, eta txapelketa bukatu ondoren neure iritzia plazaratzeko gogoz nengoen. Halaxe egin dut.

Gizalegez egin ere. Aurrena, gogotik saiatuz, ahalegina egin —eta ez nolana hiko; txapeldunorde baitugu— besteren esanari amore eman. Eta ondoren —agindua bete ondoren, alegia—, bere iritzia aldarrikatu.

Platoni behinola gertatutakoa gogorarazi dit. Antzinateko Greziako jakintsu hura gerratik itzuli zen batean, lagunek galdetu omen zioten ea zer egin zuen okertzat zeukan agindua ematen ziotenean.

—Aurrena, esana egin —erantzun omen zuen Platon bizkarzabalak—. Eta ondoren, okerra salatu; agindua zintzo bete izanak ematen baitit okerra salatzeke eskubidea.

Euskadi Irratian esanak

Ez dut ukatuko, ezta nahi ere, Euskadi Irratia oso gogoko dudala: gogoko, batez ere, euskararen aldeko eginahal profesionalean oso egoki ihardunaz bide-erakusle dugulako. Hizkuntzaz ahaztuta bezala, euskara bizian murgilduta bezala eradukitzen ditu, sarritan, entzuleak. Hori da asmatzea! Hori da benetako “hizkuntz normalizazio” bidea!

Irratia izaki, ordea, eta hitzak haizeak eramaten. Hamaikatxo elkarrizketa gogoangarri entzun izan dut Euskadi Irratian: paperean idatzita edota zintan grabatuta jasotzea merezi duten horietakoak, alegia. Damurik, hor joaten dira oihartzunen zakutik isiltasunaren zulora, gizona mundutik desagertzean bezala.

Ez hala Xabier Euzkitzek aurtengo Santo Tomas egun horretan esandakoak. Hona hemen, paperera aldatuta, haietako batzuk:

Egaña onena dela dioen titular baten azpian idazten baduzu [kazetari batek idatzi zuen bezala] ni haserre nagoela, egia erdia da; baina gezur oso bihurtzen da. Hori irakurtzen duenak berehala pentsatzen du: *Ene! Bigarren geratu zen eta, horren erreminez, oso haserre dago lehenbizi jarri ez zutelako.* Ezta pentsatu ere! Gainera, iruditzen zait ni baino txapeldun hobea dela Egaña, eta bertsoaritzaren-tzat hobea dela hura txapeldun izatea, ni baino.

Nere kritika ez da, inola ere, Egañarekiko; ezta Egaña lehenbizi jarri duen juradurekiko ere: beste gauza batzuk daude hor [kritika merezi dutenak].

Ni zazpigarren edo zortzigarren geratu izan banintz (edo seigarren, edo bosgarren), nere kritikek indar asko galduko zuten. Jendeak berehalaxe esango zuen: *Horrek bere frakasoaren erreminek ezin dik gaintitu eta, bere buruak errurik ez duela erakutsi nahian, beste guztiak astindu nahi dizkik, juradua kritikatu nahi dik...* Hori duk ezin eramana! Ez, ez; ni oso goian geratu naiz. Pentsa, bat bakarra geratu da nere gainetik: pentsa zenbat utzi ditudan azpian! Oso gustora nago neuk egin dudana; eman didatenaz baino gehiago, neuk egin dudana. Idatzita ateratzen direnean, nere bertsoek balorea asko irabaziko dutela iruditzen zait, gainera!

Bertsolariok elkarrekin hizketan hasten garenean, denok bat gatozela dirudi apreziazioetan. Aste honetan bertan ere, nik finaleko bertsolari bat baino gehiagorekin —eta bi eta hiru baino gehiagorekin— hitz egin dut, eta [horietako] batek baino gehiagok esan didate: [*Epaimahaiko*] *hauek ez dituk enteratzen!* Gero, beste gauza bat da, nitaz kanpo, inor ausartuko ote den hori esatera. Badakit isilik banengo, irabazi egingo nukeela; eta hitz eginez gero, galdu. Baina ondo geratzeak edo gaizki geratzeak ez dit inoiz izu handirik eman, eta esan beharra daukat.

Iruditzen zait gogoeta sakon bat egin beharra dagoela, eta gauza asko argitu: zer den legezko, zer ez den legezko, zerk daukan meritua, zer penalizatu behar den, bertso-mundua nora daramagun... Hotzean aztertu beharra dago: inongo erreminak eta horrelakoak baztertuta. Eta ez txapelketarako hilabete falta dela; orain. Hurrengorako lau urte falta dira eta, uste dut, orain, denboraz, gauzak aztertu, ondo pentsatu eta —esan bezala, erreminek gabe— gogoeta sakon bat egin behar dela. Eta Bertsolari Elkarteak hori bultzatu beharra dauka, derrigorrez.

Euskarari zor zaion zuzentasuna

Hainbat euskara-mota sailkatu genituen Pello Esnalek eta biok *Idazkera-liburua* erditu genuenean. Hiru bakarrik aipatuko ditut hemen: euskara zuzena, euskara egokia eta kazetari-euskara.

Euskara zuzenaren ezaugarria hauxe da: gramatikaren araberakoa izatea. Horrek esan nahi du euskara jatorraren barne-arauen moldekoa dela hizkuntzaren arlo guztietan: ahoskeran, joskeran, hiztegian, ortografian...

Euskara egokiak, berriz, bi ezaugarri hauek ditu: zuzena da eta lehenengoan ulertzen da.

Liburuan esan gabe utzitako hauxe esan nahi dut orain, argi eta garbi: zenbait bertsolariaren euskara ez da zuzena; beraz, ezta egokia ere.

Euskalkien eta euskara batuaren kontuak ez die balio aitzakiatarako; bertsoan, gainerako alorretan bezalaxe, euskara batua eta euskalkiak elkarren lagun dira, ez elkarren etsai. Zer aitzakia du, esate baterako, gaztelaniazko hitz mordoiloak barra-barra erabiltzen dituen bertsolariak?

Are garbiago esango dut: zenbait bertsolarik tranpa egiten du batzuetan; jakinaren gainean egiten baititu okerrak. Komeni zaionean bakarrik, alegia.

Hortxe dago iruzurra: okerra ohartuki egitean, ez oharkabean. Bistan da euskarari kalte egiten diola horrela. Egia da, bistakoa ez izan arren, bere buruari ere kalte egiten diola horrela dabilenak.

Euzkitzek euskara zuzenarekiko kezkak ere adierazi zituen Euskadi Irratian:

Hizkuntzaren gorabeherak ere hortxe daude [konpondu beharrekoen artean]. Ez akats gramatikala bakarrik, baita [hizkerako] tratamendu-moduarenak ere: bertso bat *zuka* hasi eta, halako batean, *hika* tratamendura pasatzea gaizki dagoen bezala —eta alderantzizkoa ere bai—; gaizki dago 3. pertsonan hasi, gero 2.era pasa, gero berriro 3.era salto egin, azken puntuan berriro 2.era itzuli...

Horiek denak hor daude. [Hizkuntzari zor zaion zuzentasuna] batzuek betetzen dute, eta besteek ez. Betetzen ez dutenak penalizatu ezean, ondo egiten dutenen meritua ezerezean geratzen da.

Euskara zuzena eta euskara egokia aipatu ditut arestian: kazetari-euskara falta.

Aipa dezadan, beraz, kazetari-euskara egokiaren eredu bizia: Xabier Euzkitze berbera. Azkar eta samur aritzen da ETBko gaueko albistegian, zuzen eta egoki erabiltzen du hizkuntza, lehenengoan ulertzen zaio, euskara bizi-bizian iharduten du, atsegina da, alai... Poz ematen du!

Gizalegeko gizona

Gizalegea. Baina zer da gizalegea? Jakin badaikit; ustez, behintzat. Besteri adieraztea ez da oso samurra, ordea. Hiztegietara jo zehaztasun bila, eta azalpen berbera aurkitu dut Ibon Sarasolarenean eta Lur Hiztegi Entziklopedikoan:

gizalege. *iz.* Gizartean bizitzeak ezartzen dituen jokabide-arauen begirunea. *ik.* gizabide. *Gizalegez jokatu.*

Azalpen egokia; laburra izatea halabeharrez, horixe. Gizalegea urrutira iristen da, ordea (bihotzetikoa baldin bada, jakina, ez axalekoa).

Xabier Perez benetako gizalegez mintzatu zen Euskadi Irratian; entzutekoa zen zer-nola esan zituen esan beharrekoak: argi, sendo, lasai, harrokeriarik gabe... Zirrara moduko bat eragin zidan bere jatortasunak, eta orduantxe erabaki nuen artikulu hau idaztea. Basarri bertsolariak ere pozik entzungo zituen, noski, haren hitzok:

Nahiz txapela, nahiz bigarren postua lortu, aurretik garbi neukan Basarri eskaini behar niola: esker gaizto gehiegi hartu du egin duen guztiaren ondoren, eta nik beti miretsi izan dut.

Horrelakoetan ezagun da gizalege jatorra. Horrelakoetan eta egunerokoetan.

Egiaren beldur ote, euskal kultura?

Ondoren, ipuin antzeko bat, Anthony de Mello-rena, labur-labur:

—*Mundu honek duen txarrena da —esan zuen Maisuak hasperen egin ondoren— gizonak muzin egiten diola hazi beharrari.*

—*Noiz esan daiteke gizon jakin bat hazi egin dela? —galdetu zion ikaşleak.*

—*Inolako gezurrik esan behar ez zaion egunean.*

Horixe opa diot nik euskal kulturari: gezurraren beharrik ez izatea. Alegia, aitzakia eta estalki beharrik ez izatea. Gehiegi eskatzea ote da? Egia gordinegi gertatuko zaigun beldurrez ote gabiltza? Hala balitz ere, egia gordina baino nahiago ote dugu zakur-ametsa? Joan berria zaigu Olentzero; bada-toz Erregeak... Opari horixe ekarriko ahal digute; gauza ederra baita egiaren beldur ez izan beharra!

Horretantxe agertu zaigu txapeldun Xabier Perez "Euzkitze". Bejondeiola!

Zabalik

1993ko abenduak 29

Bidezkoak

Euskararen abarrak

Urdina

Honako pasadizo hau adierazi didate, oraindik orain:

Kostaldeko jendeok maiz ikusten dugu itsasoa, eta nik, zarauztarra izanik, maizago. Mutil kozkorra nintzela, maisuak zera galdetu zidan: *¿De qué color es el mar?* Nik ez nuen duda izpirik ere izan *¡Verde!* erantzuteko. Maisuak, ezetz: *El mar es azul*. Nik berdea ikusten, ordea, eta *¡Verde!* erantzun nion, behin eta berriro. Azkenean, jakina, hormari begira bukatu nuen, zigortuta *¡Para que aprendas que el mar es azul!*

Urteen buruan ohartu naizenez, latinoen kultura etnozentrismoa inposatu nahi izan ziguten, kultur ikuspegi arrotz jakin batzuen arabera. Baina, egia esan, Kantauri itsasoa [Euskaldunen Itsasoa] berdea da; ez, ordea, Mediterraneoak.

Bestalde, aspaldiko adiskide dudak asteasuar batek zera esan zidan behinola:

Mendia berdea dela esaten zigutek, baina ni etsita negok Euskal Herriko mendiak urdinak direla: Erniomendi ikusi besterik ez zegok!

Nik baietz esan nion, eta hemengo mendi urdinak pintatzera etortzen zen margolari atzerritarraren kasua berriro genuen Santamaña gaineko ilunabar hartan. Pintore hark omen zioenez, mendiak urdinak

dira, Euskal Herrian ageri diren bezalakoxeak, baina hemendik kanpora berdeak dirudite Mediterraneo aldean argitasun gehiegi dagoelako. Mendiak urdinak dira; eta belarra, berdea.

Mutikotan nekez ulertzen nuen kolore-izen horien ñabardura; izan ere, banuen izeba bat *urdira* eta *azula* bereizten zituen, oharkabean bezala. Oraintsu konturatu naiz zeren arabera bereizten zituen: naturak berezkoak dituenak, *urdirak*; baina plastiko eta gisako kolore artifizialak, *azulak*. Adiskide hondarribitar bati ere sarritan entzun izan diot *axula* esaten.

Baina itsasoa urdina edota berdea duk;
inoiz ez *axula*.

Zein koloretakoak ote dira mendiak eta itsasoa: urdin ala berde? Urdin edota berde? Turkesa zer da: urdin ala berde? Urdin eta berde, biak bat ote ziren lehen?

Urdin hitzak *ura bezalako* esan nahi du euskaraz: itsasoa bezalakoa, alegia, kolorez. Baina zein koloretakoa da itsasoa? Urak ez baitu kolorerik; izanenean, zeruaren kolorea isladatuko du. Hortaz, islada da kontua: argiaren eta begiaren arteko etengabeko jokia, kolore arteko jolasa eta ñabarduren nahas-mahasa.

Pintoreak zioenez, lekuan lekuko argitasun-mota erakusten du argiak. Hitzik gabeko kulturak irakasten duenez, gainera, herri bakoitzak bere erara begietaratzen ditu gauzak, bere erara uztartzen argia eta margoa... Herri bakoitzak bere estiloa du, eta nork berea. Hala behar ere, nor izatekotan!

Bidezkoak
1994ko uztailak 26

Legea, lege?

Funtzionariak euskalduntzeko epea amaitu da: bost urte izan dituzte euskara ikasteko edo ikasiagotzeko, horrela herritarrak behar bezala zerbitzatzeko.

Legeak hala agindu zuen, zorrotz eta zuzen agindu ere: funtzionariak euskaraz jakin behar dutela, bakoitzak bere lanpostuari dagokion mailan.

Aginduarekin batera, ikasteko aukera bikaina ere izan dute. Izan dituzte irakasle, ikasgela eta tresna egokiak: dena dohainik, sosik ere ordaindu behar izan gabe. Izan dute ikasteko denbora nahikoa, lan-orduetatik libre hartu duten denbora: lana egin ordez euskara ikastera joan eta, halere, oso-osorik kobratu soldata. Indargarri, hor izan dute jendearen begirunea, eta, lagungarri, herritar-bezero euskaltzaleen pazientzia.

Hitz bitan esateko: behar zuten guztia eman zaie; baita nahikoa denbora ere. Eta zer eskatu zaie horren ordainetan? Herri-dirua eta denbora fundamentuz aprobetxatzea. Ganora pixka bat, besterik ez; euskara ikasteko ez baita munduko bizkorrena izan behar. Gogoia behar! Eta gogorik ezean, beharra da irakaslerik onena.

9.000 lagun inguru ziren, agi danean, euskaldundu beharreko funtzionariak. Horietatik 7.000 (%78) aurrerako moduan dira: behar adina ikasi omen dute euskaraz. Argi berdea: aurrera bidea!

1.000 funtzionari omen dira (%11) erdizka dabiltzanak, nork bere maila gainditu ezinik: denbora gehiago behar omen dute eta ahalegin handiagoa. Argi horia: kontuz!

Azkeneko 1.000 funtzionari horiena da, ordea, okerrena; ez baitute ikasi. Beharbada, batzuek diote astarrak umea egitean ikasiko dutela; beste batzuek, berriz, oiloek pixa egitean ikasiko dutela; eta beste guztiek, aldiz, ez dutela sekula ikasiko. Ez dutela nahi. Argi gorria: geldi!

Halere ez omen dituzte zigortuko: agintariek malgutasunez hartu behar omen dute funtzionarien lege-haustea. Bost axola euskara, herritarrak eta legea!

Zuk eta nik, irakurle, goitik behera bete behar izaten dugu legea. Kontuz, ez huts egin; bestela, zigorra! Eta ez berandutu; bestela, isuna, multa! *Legea, lege!* esaten digute funtzionari horiek beroiek.

Erdaraz ez dakienarentzat ez dago malgutasunik; itsasuntzirik gabe utzi dituzten arrantzaleentzat ere ez; lanik gabe daudenentzat ere ez; etxearen hipoteka ordaindu ezin dutenentzat ere ez; bururik jaso ezinik dabiltzan nekazariantzat ere ez...

Demokrazia ez; burokrazia dugu nagusi. *Legea, lege?* Bai, to! Ziri ederra sartu digute euskaltzailei... malguki. Eta herri-dirutik ordaindu baselina!

Bidezkoak
1995eko irailak 12

Euskara, Donostian

Kaskarinak omen dira donostiarrek; izengoiti hori daukate, behintzat. Izena eta izana elkarren eskutik joaten omen direnez, badirudi donostiarrek ongi merezia dutela kaskarin-fama: joan den astean azaldu ziren estatistikak ikusi besterik ez dago.

Donostiarrek euskaraz hitz egiten duten ala ez jakiteko, 'zientifikoki' jakiteko, azterketa bat eskatu zion bertako udalak SIADECO izeneko enpresari. Honek inkesta non eta nola egin erabaki, galdeketak egin, erantzunak bildu, sailkatu eta alderatu ondoren, joan den astean aldarrikatu ziren emaitzak: donostiarren erdiak baino gehiagok bai omen daki euskaraz; baina hitzegin, hamarretik batek ere ez omen du euskaraz hitz egiteko ohiturarik (%8,7).

Donostiarren euskararekiko jokaera hori ez da gaur goizeko kontua; baina jendea aztoratu, kezkatu eta larritu egin da azterketa estatistiko horren emaitzek erakutsi duten gainbehera nabarmenarekin. Bada hor, bai, kezkatzeko adina arrazoi; baina, nire ustez, okerreana ez da kantitatearena, baizik eta kalitatearena. Halere, inor gutxi kezkatzen da donostiar askoren sasi-euskara entzunda; itxurak egiteko adina balio baitu euskañolak.

Kantitatearen kezka larririk ez dut; alde horretatik lasai nago, SIADECOREn estatistikari esker. Hizkuntzari dagokionean, ba ote da munduan, izan ere, donostiarra bezain aldabera den herririk? Ez, noski! Hizkuntza ez baita gaur jantzi, bihar erantzi eta etzi berriro jantzi daitekeen modako arropa. Hizkuntz ohiturak poliki-poliki hartzen dira, eta hizkuntz aldaketak astiro-astiro gertatzen dira munduko herri guztietan.

Donostian ez, ordea! Inkesta horren emaitzek erakutsi digutenez, donostiarrek zirt-zart egiten dute, urte batetik bestera, hizkuntz ohitura kontuetan: ehuneko sei pasatxo (%6,3) omen dira aurten euskara baztertu duten hamalau urte bitarteko haur eta gaztetxo donostiarrak.

Zaharrak ez omen dira ohiturak aldatu zale; baina donostiar zaharrak salbuespen dira, nonbait: iaz euskaraz bizi zirenen ia erdiak erdaldun peto-peto omen dira aurten. Hori da bizkor aldatzea, hori! Agi danean, hirugarren adinekoak izan arren, bostgarren abiadura sakatuta dabilta, ziztu bizian! Estropadetan, Kontxako bandera beroiek ez irabazi izanak harritzen nau!

Ez harritu, irakurle, datorren urteko estatistikak 'frogatzen' badu donostiar gehienak euskaraz bizi direla!

—*Y en Donosti, ¿qué tal?*

—*¡Bastante petral!*

Bidezkoak

1995eko abenduak 12

Orioko euskara

Oriyoko karamelok,
merkek eta goxok.
Oriyoko pikuk,
errial bikok,
gustoa jateko moukok.

Hitz horiexek irakurri ditut esku artean dudan liburuaren hasiera-hasieran. Jaioterritik kanpo bizi den oriotar bati esaldi horiek errepikatzen omen dizkio bere emazteak, erdi txantxetan, oriotarren hizkera berezia adierazteko.

Orioko euskara izeneko liburuaz ari natzaizu, irakurle. Bai liburu txukuna, atsegina eta mamitsu! Zorionak beronen egile diren Iñaki Iturain eta Loren Loidi euskaltzaleei, eta bejondeiela Orioko Udaleko Euskara Batzordeari eta Jabier Zabaletari! Izan ere, hori da, hori, herri-ondasunak aintzako-tzat hartzea!

Liburuan bertan aditzera ematen zaigunez, bazuten eta badute zerbaiten premia. Begira, adibidez, hitzez hitzeko pasarte honi:

Garai batean, kanpotik Oriora itsasoan lan egitera etortzen zirenentzat [erdaldunentzat] lana bera zen euskaltegirik onena. Gaur egun, aldiz, kanpotik datozenek euskararen beharra ez sentitzeaz gain, nolabait beren hizkuntz jarduna gailendu egiten diote bertakoenari eta mutil gazte asko itsasoan ere erdaraz jarduten da.

Izurritea bezain azkar zabaldu den gaitz kutsakor horren kontra ari dira Orioko euskaltzaleak ere. Beharrik! Bestalde, oriotarrek mendez mende erabili duten hizkera bereziari ere eutsi egin nahi diote bertako seme-alabek. Bejondeiela; horixe baita euskararen batasuna egiteko era egoki bakarra! Hamaikatxo aldiz esana dut, alegia, nork bere herriko euskarari uko egiten dionak kalte egiten diela bere buruari eta euskara batuari. Ea, ba, euskaltzaleok; lotatik esnatzeko garaia da eta!

Esnatzen ez ezik, bizkortzen ere hasiak dira oriotarrak; hala dirudi, behintzat: liburu hori da lekuko. Hobe bai, lan horren gisako beste bana egingo balitz euskal herri guztietan! Nahikoa eta sobera lan izango genuke, halere, euskara biziari eusten. Baina esaerak dioen bezala, *Hasiak egina dirudi*.

Honez gero, irakurle, hor ari zara zeure buruari galdezka zer berri ote dakarren liburu horrek. Berehalaxe esango dizut: ez dakar ezer berririk. *Zaharra, berri*. Gutxi iruditzen al zaizu? Ez niri! Izan ere, ardo ona, denboraren buruan ondutako ardo ona, nahiago dudan bezala, euskara ere halakoxea nahiago dut: denboraren buruan aberastu eta ondutako euskara bizia, argia, jatorra... gaur eguneko behar izanetara egokitzeko modukoa.

Esate baterako, Orioko zaharrek hitz egiten dutena bezalakoa. Ikus, liburuan!

Bidezkoak
1995eko abenduak 28

Ai, eñe!

Dirudienez, 1987an sortu zen korapilo hau. Konputagailu eta abarrentzako osagarriak (teklatuak eta) egiten zituen enpresa publiko txiki batek, Telesincro izenekoak, babesa eskatu omen zion estatuari: dirudienez, abantaila nabarmena nahi zuen lehiakide atzerritarren aldean.

Estatuak ez zion entzungor egin. Industri Ministeritzak agindu bat eman zuen berehala: galerazi egin zuen berak ontzat hartu gabeko teklatu eta abar saltzea. Eta zein baldintza bete behar zituen teklatu batek ezinbesteko homologazio hori lortzeko? Ba, besteak beste, **eñe** letra eduki behar zuen, derrigor.

Hortaz, teklatudun tresneria informatiko eta elektronikoz guztiak (hamaika gailu-mota ezberdin) baldintza hori bete behar zuen; bestela, ezin saldu eta ezin eros zitekeen. Beraz, ez zen huskeria; baizik eta joan-etorri handiko erabakia: milaka milioi pezeta jokoan.

Baina Europako Elkarteak ez zuen onartu dekretu hori, eta esan zuen legezkontrakoa zela: Espainian ez dagoela galerazterik eñe letrarik gabeko teklaturen salmenta, Espainiatik kanpo eñe letra duten teklaturen salmenta galerazterik ez dagoen bezalaxe.

Uste duzu Espainiako Gobernuak konponbiderik bilatu zuela? Ez horixe! Legeari tinko eutsiko ziola esan eta hiritarren laguntza eskatu zuen, espainiar nortasuna erasopean omen zegoela eta.

Gozoa jarri zen jendea! Eta den-denak bat zetozen: politikari eta kazetari, filologo eta otorrinolaringologo, oinezko eta zaldizko, toriatzaile eta txuliatzaile, akademiko eta txorrozkilero, ezker eta eskuin, moderno eta posmoderno, matxista eta feminista... *¡Defendamos nuestra eñe! ¡Santiago y cierra España!*

Dekretu-lege hura, ordea, ez zen erabaki gaztelania babesteko —ezta hurrik eman ere!—; baizik eta estatuaren beraren enpresa txikitxo bati 'mesede' berezia egiteko. Horren froga nabarmenik ere bazen, ikusi nahi zuenarentzat: garai hartan gehien saltzen omen zen konputagailua (Amstrad) teklatuan eñe letrarik gabekoa izan arren, ez zegoen behartuta agindua betetzera. Eta zergatik ez? Ba, dekretu-lege hura, hain zuzen ere, teklatura pantailatik bereiz edo aparte zeukaten tramankuluei **bakarrik** zegokielako, ez besteei. Barregarria!

Ahaztuta neukan, zorionez, jokaera nabarmen hori. Uztail honetan hasita, ordea, Espainiako presidenteari egokitu zaio Europako Elkartearen buru izateko txanda. Hor aldarrikatu du eñe letraren baliu sinbolikoa, eta begirunerik zabalena eskatu du hizkuntza eta kultura ezberdinentzat.

Ai, eñe! Hau da marka, hau! Espainiarrak ere *Kanpoan uso, eta etxean otso!*

Bidezkoak
1995eko uztailak 25

Borrow, euskaldunak eta euskara

Telesail bat egiteko gidoia idazten ari ginelarik, Euskal Herriak XIX. mendean izan zituen gorabeheren xehetasun gehiago bildu asmoz, joan zen mende hartan idatzitako liburu bat eskatu zidan lankide batek: Agustin Xaho zuberotarraren *Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos*. Mailegatu nion liburu preziatu hori (atzera itzultzekotan, jakina!), eta hark garai beretsuko George Borrow bidaztiaren *The Bible in Spain* utzi zidan ordainetan. Langelako mahai gainean daukat oraindik, bahituran bezala, Borrowen liburua.

George Borrow

George Borrow (1803–1881) —*Don Jorgito el inglés*, madriltarrentzat— gizon bitxia zen, eta bitxiak dira haren bizitzari buruz dakizkigunak. Ikasketak atsegin zituen, baina eskolako lotura ez; berezkoak zituen oroimen harrigarria eta hizkuntzak ikasteko erraztasuna: ingelesaz gainera, irlandera edo gaelera, latina, grekera, frantsesa, italiara, gaztelera, ijitoen hizkuntza, daniera, hebraiera, arabiera, armeniera, alemaniera, mantxuera, errusiera... Euskaraz ere ikasi zuen, baina ez berak nahi bezain ongi; ez baitzen inoiz iritsi Euskal Herrira. Jakingarria da, gai-

nera, beste hau: Borrowek berak argitaratutakoa dugu (1838an) Oteizaren *Evangelioa San Lucasen gisan*. Oteiza medikuak egindako itzulpena ez zen, nonbait, Borrowen gogobetekoa: bilatu zuen besteren bat hobe, baina alferrik.

Borrowek hitz egiten zituen hizkuntzen zerrenda bezain luzea da, edo luzeagoa, haren lanbide eta iharduerena: abokatu, zaldizko, ehiztari, boxealari, ijito zuri, itzultzaile, kazetari, ijitoen abereen ferratzaile, bidaiari, misiolari... Eta gerora, *The Bible in Spain* argitaratuz geroztik, idazle ospetsu.

Sinisgabe ez ezik, apaizjale sutsu izandako Borrow bihozberritu egin zen noizbait, gazte zelarik artean. Protestanteen fedea eta orduko pentsakera gartsuki bereganaturik —Aita Santuari ezinikusia zion eta Ama Birjinari *Erromako Jainkosa* deitzen zion—, Britainiako eta Atzerriko Bibli Elkartearentzat itzulpen-lanak egiten hasi zen.

Bibliaren zabalkundea

Bibli Elkarteen helburua ez da, funtsean, protestantismoaren propoganda egitea; baizik eta Bibliaren zabalkundea egitea. Protestanteen ustez, izan ere, Biblia irakurtzea omen da beharrezkoena salbamen-bidean ibiltzeko: kristauak ez omen ditu ezertarako behar ez dogmak eta ez errito-ohikuneak; aski du Jainkoaren hitza aditu, hausnartu, nork bere erara ulertu eta, horren arabera, zintzo jokatzearekin.

Gogotik saiatu zen Borrow itzulpengintzan. Gero, misiolari-grinak eraginda edo, Bibliaren zabaldunkean atzerrian iharduteko eskaria luzatu zien bere nagusiei. Horretarako dohainak bazituen: fede beroa, eskola, eleaniztasuna, bidaiatzeko ohitura, menturazaletasuna, (ijito artean) zaildua

izana... Bere nagusien oniritziarekin —eta haien kontura, jakina!— Errusiara joan eta Itun Berria mantxuerara itzultzen lagundu eta argitaratu zuen. Mantxuriatik Txinarako asmoa zuen, baina errusiar agintariak pasaporteak ukatu ziotenez, Ingalaterrara itzuli zen. Handik Portugalera bidali zuten, (inoiz egingo ez zuen) Txinarako bidaia prestatu bitartean.

Portugaldik Espainiara pasa zen 1836ko urte hasieran. Helburu bakarra zuen: Itun Berria gaztelaniaz inprimaraztea; baina merke antzean, esku-liburu gisara. Horretarako, jakina, oharrik eta iruzkinik gabeko argitalpena egin beharko zuen, eta hortxe zegoen zailtasunaren gakoa; oso zaila baitzen Biblia soila argitaratzeko baimena lortzea.

Euskaldunentzat eta ijitoentzat ere bai

Hamaikatxo gorabehera ibili ondoren, baimenaz gainera, argitalpenak egitea ere lortu zuen: gaztelaniaz ez ezik, euskaraz (Oteizarena) eta *caló* deritzon hizkuntzan ere bai. [*Caló* delako hori ijitoen hizkuntza da, nonbait.]

Borrowen garaian baziren, bai, euskarazko Bibliak; eta ez oso gutxi ere: J. Leizarraga, 1564, *Testamentu Berria*; P. Urte, 1700, *Biblia Saindua* (zatitxo bat); J. Haraneder, 1740, *Iesu-Christo gure Jaunaren testament berria*; B. Larregy, 1755, *Testament çaharreco eta berrico historia*; J. A. Ubillos, 1785, *Cristau dotriñ berri ecarlea*; P. A. Añibarro, 1825, *Lau Evangelioac batera alcarturic*; Gaidor-Leizarraga, 1825, *Laur Ebanyelioak eta Apostoluen egintzen liburua eta Testament berria osorik*; J. Leizarraga, 1830, *Jesukristoren ebanjelio saindua San Juanek dakarren gisan*; eta beste. Baina bietako bat: edo itzulpen horiek ezezagunak ziren Borrowentzat, ala aitasantuzaletasun eta erromatarkeriaz kutsatuegiak protestanteen gustorako.

Euskaldunak ez omen karlista

Baina gatozen Borrowen liburuaren harira. Biblia argitaratzen eta saltzen ihardun zueneko ibilera —eta hortik aurrerako asmakari eta irudi-penak— azaldu zituen *The Bible in Spain* deritzon idazlanean. Liburu bikaina benetan: XIX. mendeko onenetakoa omen da, bere sailean. Ez dago euskaratuta, baina Espainiako Errepublikako presidente izango zen Manuel Azañak gaztelera itzuli zuen 1921ean.

Itzulpen horren 1983ko birrargitalpenaz baliatu nauzue (*La Biblia en España*, Alianza Editorial), eta bertatik hartu ditut hitzez hitzeko aipamenak. Begiratu zer dioten Borrow jaunak, gaztelera itzulpenean, aipatu liburuko 30. orrialdean:

Es, en verdad, sorprendente lo poco que a la gran masa de la nación española le interesó la última gerra [Lehen Karlistada (1833–1839)], la cual, empero, ha sido llamada por quien debía estar mejor enterado guerra de religión y de principios. Se admitía, generalmente, que Vizcaya [Euskal Herria] era el reducto del carlismo, y que los vizcaínos [euskaldunak] sentían fanático apego a su religión, a la que creían en peligro.

La verdad es que los vascos se cuidaban muy poco de Carlos y de Roma, y tomaron las armas tan sólo por defender ciertos derechos y privilegios que tenían. Por el encanijado hermano de Fernando mostraron siempre soberano desprecio, que su carácter [Carlosena], mezcla de imbecilidad, cobardía y crueldad, merecía de sobra. Usaron su nombre como un *cri de guerre* solamente. (...) Los vascos eran soldados valerosos y hombres honrados. (...) Respecto de la reina regente Cristina, cuanto menos se hable, mejor.

Europako hizkuntzarik goxoen

Euskaldunon hizkuntza, izaera, ohitura eta abarrei buruzko atal oso bat (37.a) dakar liburuak. Bertan (413-414. or.), “... *los bascos son gente muy ignorante y no saben nada de filosofía del lenguaje.*” aldarrikatu ondoren, euskararen jatorriari buruzko teoriak aztertzen ditu gaingiroki, eta desegoki aurkitzen. Borrowen ustez, sanskrito edota tartarora dira euskararen ahaideak. Besterik ere badio: euskarak sanskritoaren erro bereko hitz asko dituela, hizkuntza zaila dela ikasteko... Eta 416. orrialdean, beste hau dio: euskaraz kontsonante gutxi erabiltzen dela, eta bokal asko “... *a esto se debe que el basco sea una lengua extremadamente suave y melodiosa, muy superior en este respecto a cualquier otro idioma de Europa, sin excluir el italiano.*”. Borrowek bazeukan zerekin alderatua; hizkuntza asko hitz egiten baitzituen berak, lehen ere esan dugunez.

Atseginak, ausartak, leialak, onberak... baina ergel samarrak!

Liburu berekoak dira (418-419. or.) euskaldunon izaera eta portaerari buruzko hurrengo zatitxook:

En lo físico, los bascos son de estatura regular, ágiles y atléticos. En general, tienen bellas facciones y hermosa tez (...) Su bravura es indiscutible (...) Son los bascos gente fiel y honrada, capaz de adhesión desinteresada; bondadosos y hospitalarios con los forasteros (...) Pero son un tanto lerdos y su capacidad no es ni con mucho de primer orden.

No hay en la tierra pueblo más orgulloso que los bascos; pero el suyo es una especie de orgullo republicano. Carecen de clase aristocrática; ninguno reconoce a otro por superior. El carretero más pobre tiene tanto orgullo como el gobernador de Tolosa.

Aborrecen el servicio doméstico, a lo menos fuera de su país natal, y aunque las circunstancias

les obligan con frecuencia a buscar amo, es muy raro que ocupen un puesto de escaleras abajo: son mayordomos, secretarios, tenedores de libros, etc. Cierta que, por mi buena suerte, encontré un criado basco [hernaniarra], pero siempre me trató más como a un igual que como a un amo: se sentaba delante de mí, me daba su opinión sin pedírsela y entraba en conversación conmigo en todo momento y ocasión. Me guardé muy bien de refrenarle, porque entonces se hubiera despedido, y en mi vida he visto una criatura más fiel.

Emakumeak argiagoak omen

Gizaseme euskaldunek emakumeen begirune gutxi dutela dio aurreraxeago, nahiz eta emakume euskaldunek besterik merezi. Izan ere:

El carácter de las [mujeres] vascongadas difiere mucho del de los hombres. Son muy despiertas y agudas, y tienen, en general, más talento.


Kontu horiek eta beste asko ageri dira George Borrow jaunaren liburuan. Gehiegi, agian, Euskal Herrian sekula izan gabeko batek idatziak izateko: Madrilen entzun eta ikasiak izango zituen, noski. Esate baterako, 418. orrialdean dakarren kanta hau bezala:

*Itsasoak urak haundi,
ez du hondorik ageri.
Pasako nintzake ni handik,
maitea ikusteagatik.*

G. Borrow irudimen joriko gizona zen. Ikusitakoak, entzundakoak eta asmatutakoak nahasian idatzi zituen; liburuan ez baitago kronika eta nobelaren arteko mugarririk.

Zabalik

1994ko martxoak 23



*Euskal familia bat: liburu honen egilearena.
(1997ko otsaila)*

Bidezkoak

Antzinakoei antzematen

Zozomikoteak

Martxo bukaerako eta apiril hasierako egunak izaten dira zozomikoteak. Joan den astean izan dira, beraz, aurtengoak; inoiz baino zinezkoagoak izan ere. Martxoaren 30era arte bonbon ibili ginen eguraldi ederretan makutsik, baina zozomikoteetan sartu orduko eguraldi beltza nagusi: hemengo haizea, euria eta elurra!; hemengo ekaitza, erauntsia eta hotza! Ez zen giro! Gogotik ari zuen elurra Arantzazun Larunbat Santu gaueko hamarrak aldera; baita mendiak ederki zuritu ere! Eta jendea oporretan! Eskerrak gu geu aterpe goxoan egokitu ginen, bestela...!

Zozomikoteak heldu baino zortzi egun lehenago, airoso zebiltzan, ilea moztuta, Nafarroako Gaintzako Otsolizarraga baserriko ardiak. Ilea moztuta eta mailo aldera begira; eguraldi ederra baitzen. Ez zeukaten urruti Elkomuts izeneko mendilepoa, eta bertatik izaki Aralarko goilarreetarako sarbidea Araitz bailarako artaldeek. Orduan berritu genuen, aldarte ederrean, orain gogoraraziko dudan zozomikoteen kontua.

Negu luzea garesti amorratua izaten da artzaintzat; etxekotik mantendu behar izaten baitituzte ardiak. Hori dela eta, behinolako artzain batek bere artaldeko ardirik mardulena agindu omen zion martxoari, baldin eta negua erabat uxatzen bazuen.

Martxoak baietz, eta esan bezala eguraldi ona ekarri. Artzainak, ordea, bere hitza jan eta ardirik oparitu ez. Goiko larreetara abiatu omen zen bere artaldearekin, baina bidean erreka bat zeharkatu behar, eta zubirik ez. Halere, errekak ur axala zekarela ikustean, artzainak barre egin zuen, esanez:

*Ai, martxo, martxo,
ematen diat esker gaizto!
Nere ardirik kaxkarrenak
erreka bi oinetan salto.*

Artzain haren harrokeria zigortu nahirik, han elkartu ziren martxoa eta apirila, elkarri egun t'erdi hartuta: hodeiak eta lainoak bildu, ekaitza prestatu, euria eta elurra sortu eta erauntsi ikaragarritz eraso zioten artzainari.

Errekako ur-laster handiak eraman omen zituen artzain haren ardi guztiak. Aharia salbatu nahirik, bizkarrean hartu zuen artzainak; baina adardunak, izuturik, buruari eragin eta begia atera zion jabeari. Han geratu omen zen artzaina: artaldea eta begia galduta, eta harrokeriak ahaztuta.

Ondo gogoan daukate artzainek ipuin horren esanahia; ez ditu, ez, errekak eramango Otsolizarragako ardiak!

Kaletarrok ibiltzen gara neguari zor zaion begirunea ahaztuta; harik eta, egunotan bezala, zozomikoteek gogorarazten diguten arte.

Bidezkoak
1994ko apirilak 5

Oilasko-jokoa

Oilaskoa, dakizuenez, oilo ar gaztea da: **oilar** gaztea, alegia. Oilarra, dakikezuenez, eguzkiaren **sinbolo** da; hegazti horrek aldarrikatzen baitu egunsentia: ilunaren ondorengo **argia**. Oilaskoak, beraz, oilarraren esannahi berbera du, funtsean. Esannahi sinboliko horri begiratu beharko zaio, noski, baldin eta ulertu nahi bada oilasko-jokoak duen **esannahi ezkutua**.

Antzinatiko **ohikunea** dugu, inondik ere, oilasko-jokoa. Egingo nuke euskal herri guztietan ospatzen zela urtean behin, herriko jaietan edo. Baina orain, tamalez, **ia erabat galdua** da; galeraz ohartu gabe, gainera: ezjakinean. (Egia esan, ez dakit zer den okerragoa: gure axolagabekeria ala gure itsumena. Biak ere hor nonbait!)

Zubietan ez da galdu oraindik oilasko-jokoa: Santiotan egiten da, zabar antzean bada ere. Bertan ikusitakoaren zertzelada batzuk aipatuko ditut.

Oilasko-biltzaileak soinu, dantza eta etxefero irteten dira **egunsentian**. Etxez etxe eta baserriz baserri ibiltzen dira oilasko-eskean, etxero **dantza** eginez.

Oilasko-jokoa herriko plazan egiten da; **erdigunean**, beraz. Eguerdi betean jokatzen da, **eguzkia gorenean** dagoenean, eta oilasko-biltzaile guztiek hartu behar dute parte **jokoan** (Ez da jolasal!).

Oilaskoa **lurpean** sartzen dute, burua bakarrik ageri duela lur gainera.

Oilasko-biltzaileak **begiak estalita** ihardun behar du, ilunbetan bezala, eta **ezpata** harturik eskuan.

Aurrez aukeratutako **neska** batek gidatzen du **mutil gazte itsua** oilaskorantz zuzen. Biek **dantza berezi** bat dantzatzuz egiten dute bidea, horretarako bakarrik dagoen **doinu berezi** baten airetan. (Egingo nuke inork ez dituela idatziz jaso galtzear dagoen dantza berezi horren musika eta urraspideak.)

Oilaskoaren ingurumariara iritsitakoan, neskek **bakarrik** uzten du mutila, baina bi edo hiru jirabira emanarazi ondoren. Oilaskoarenganako **norabidea gal** dezan? Ziklo edo aldi batzuk bete ditzan, agian, **bidearen bila** dabilen artean?

Mutilak, **itsumustuka** bada ere, **aurkitu** egin behar du oilaskoa, eta **ezpataz** lepoa moztu (haginka eta atzaparka moztea basakeria da).

Oilaskoaren **odola isuri** behar horri, **lepo egite** horri sakrifizioaren (*sacratum facere*) tankera hartzen diot: ekintza sakratuarena.

Iluntzean, maneiatu ondoren, mutilak **jan** egiten du oilasko «sakratu» hori (*manducatio*). Hobeto esan, oilasko-biltzaile guztiek, neska eta mutil, denek **elkarrekin jaten** dituzte oilaskoak (*comunio*).

Horra aztarna eta iradokizun ugari! Aski ote ditugu? Bestela balitz, segi hausnarrean!

Bidezkoak
1994ko uztailak 19

Kukua

Kukua hegazti bat da —handiegia da txoria izateko—, usoaren neurrikoa edo; baina airean handiagoa dirudi bere isats eta hego luzee-kin. Grisak ditu lumak; sabeleko luma zuriak ez beste guztiak.

Kukua basoan bizi da, libre; eta ez sasikukua bezala, erloju kukukarietan preso. Kukuak badaki (senez) noiz jo eta noiz isildu. Sasikukuak badaki (zehazki) noiz jo, zenbat jo eta noiz isildu; baina ez daki zenbatzen hamabitik gora: *Ez dok hamahiru-koa ote da?*

Ordulari barruko sasikukua pentsarazlea da; *Tempus fugit* izeneko etxean baitauka habia. Sasi-kuku euskaldunaren etxean luzeago ageri da ikurritza: *Denek zauritzen; azkenekoak, hiltzen*. Nolanahi ere, bi izen horiek, latinezkoa eta euskarazkoa, arranditsuegiak dira *kuku* eta *kuku* beste lelorik ez dakien lumagabearentzat.

Sasikuku eskolatu eta handi usteko hori baino askoz ere bizkorragoa da basoko kuku lumaduna; ez daki eguerdiko eta gauerdiko dozenaren berri; baina trebea duzu adarra jotzen. Ni, behintzat, sosik gabe harrapatu nau aurtengo bere lehen joal-dian. Eta zu, irakurle: sakela 'bero' duzula harrapa-tu al zaitu kukuak? Hala bada, zorionak!

Muniziorik gabe harrapatu bazaitu ere, kukuak ez dizu erabat oker jo, beharbada; dirurik ezean, urte askotarako bizia iragarriko dizu, agian. Hurrena kukua jotzen sumatzen duzunean, egiozu galde:

—Aizak, *apirileko kuku, maiatzeko kuku: bizi izateko zenbat urte emango dizkidak?*

Galdera amaitu ondorengo kukukadak kontatzen hasi, eta hala jakingo duzu zenbat urteko bizia eman dizun. Ugari bitez, irakurle; eta ni kontatzaile, hala komeni bada!

Erromako zubitik etortzen omen da kukua, Ama Birjina Martxoko egunean. Inoizka, baldin eta berandutzen bada, zazpi idi parerekin pasarazten dute zubi horren azpitik.

Antzinako euskal egutegiak bi urtaro besterik ez zituen (uda eta negu), eta Andramari egun horixe (martxoak 25) omen zen udako lehen eguna. Bistan da, hortaz, kukuak udaberria aldarrikatzen duela. Jakina da, gainera, ekain bukaeran mututu edo isiltzen dela: hain zuzen, udaberria amaitzean. Kuku naturalak udaberria neurtzen duela iruditzen zait, erlojuko sasikukuak orduak neurtzen dituen bezalatsu.

Erromako zubia, berriz, ez da Italiakoa; baizik euria eta eguzkia elkartzean sortzen den ostadarra. Kukua eta ostadarra elkarlotzen ditu esaera zahar honek ere: *Kukuak kantatzean, euri eta eguzki.*

Euskal kulturaren, kukuak badaki udaberriaren eta ostadarraren berri. Bai txantxangorriak ere kukuaren berri!

Bidezkoak
1995eko apirilak 18

Kukua eta txantxangorria

Kukuaren berri eman asmoz idatzi nizun gaur zortzi. Artikulu hartatiko jakingarrienak bi hauek dira, noski:

1. Kukuaren kantari-aldiak udaberriak adina irauten du: kukua, udaberriaren neurri.
2. Kukua eta ostadarraren artean ere ikusten zuten lotura adierazgarriren bat gure aurreko euskaldunek.

Lotura nabarmena, ordea, kukua eta txantxangorriaren artekoa da; lotura gogorra, papogorriarentzat. Badakizu zergatik, irakurle: kukuak ez duelako inoiz habiarik egiten (denbora neurtzen du, baina espazioaz ahaztuta bezala).

Kukuak, etxerik ez duenez, txantxangorriarenean erruten du, ezkutuka, bere arrautza: bai handia, txantxangorriaren arrautzatxoan aldean!

Harrituta geratzen da txori papargorria halako kankarroa topatzen duenean goroldiozko bere habiatxo politean; baina, berotuz, txitarazi egiten du arrautza kankailu hori ere.

Pitzatzen dira arrautzak, jaiotzen dira txitoak... Bai handia kukukumea, txantxangorrikumetxoan aldean! Eta sakea!? Badirudi sasikumeak irensten duela txantxangorri gaixoak bere umetxoentzat ekartzen duen janari guztia!

Gogotik hazi eta indartzen da kukukumea, eta laster dira habian denak kabitu ezinik; baina zirt-zart konpontzen du arazoa kukukumeak: hegoak astinduz, habiatik lurrera botatzen ditu beste txorikume guztiak.

Txantxangorrikumeek hil egin behar dute, kukua biziko bada: neguak joan egin behar du, udaberria etorriko bada.

Kukua udaberria dela esan dizuet nik; eta txantxangorria negua dena, berriz, Bernardo Atxagak esan zigun. Eta esan zigun txantxangorriak galtzen duela txepetxa, urte berriak urte zaharra hiltzen duen bezalaxe; eta txantxangorriaren paparrekua txepetxaren odola dela; eta hori guztia Denboraren etengabeko jira-biraren ezaugarri dela; eta horren gisako mezu sakonak dakartzala ahozko euskal kulturak; eta ez uste izateko huskeria direnik, adibidez, haurtxoek ikasten dituzten lelo zaharrak...

Atxagak honela ikasi zuen, Asteasun, txorien leloa:

*Txantxangorria, txantxate;
birigarroa, alkate;
xoxoa dela mediante;
txepetxa preso sartu dute.*

Zubietan, honela diote:

*Txantxangorria, txantxate;
birigarroa, alkate;
xoxoa, nagusi;
xoxokumeak, platera hautsi!*

Orain, umore pixka bat. Udal-hauteskundeak ditugu hilabete barru. Zein jarriko zaigu alkate: birigarroa?

birigarro: (*fig.*) pillo, pícaro, bribón, granuja.

Bidezkoak

1995eko apirilak 25

Ernio

Antzinatik datozen herriek badituzte beren mendi sakratuak; baita Euskal Herriak ere. Mendi guztiek dute sakratu-kutsua; baina mendi batzuk, mendi jakin batzuk, bereziki sakratuak dira. Ernio horietakoa delakoan nago.

*Zerua urdin dagoenean,
gure Ernio mendira,
berak dei egin balit bezala,
egon izan naiz begira;
eguzkitara ikusten badut
gurutzearen dirdira,
itxaropen bat goxoa sortzen
zait bihotzaren erdira.*

[Manuel Lasarte]

Mendia sendoa da, iraunkorra, garbia, ederra... Mendira igo egin behar da: norberak igo behar du, eta nekez igo. Gailurrean amaitzen da igoera; gorago ezin igo, hegoak izan ezean.

Mendigailurrean bat egiten dute zeruak eta lurra; huraxe da zerutik gertueneko lurra. Mendi-tarrak, gailurrean zutik, oinak lurrean eta burua zeruan, goitik behera begiratzen dio munduari. Mundutarrak, berriz, burua jaso beharra du, mendia ikusiko badu.

Mendia eta mundua; mundua eta mendia. Horra, askoren atsekabearen korapiloa: menditik

mundura jaitsi behar izana; mundutik mendira igo nahi eta ezina. Lurreko paradisuaren mira.

Dakizunez, Ernioko erromeriak San Juan Txiki egunean hasi (abuztuak 29) eta San Migel egunean bukatzen dira (irailak 29). Bitarteko igandeak jai-giroan ospatzen dira; batez ere azkenekoa.

Egoki adierazi zuen Peña Basurtok erromesaldia:

Llegan centenares de gentes encintadas de rojo, verde y blanco. Son jóvenes y viejos, hombres y mujeres (...) y parecen renovar el misterioso voto ignorado, transmitido de generación en generación.

Hogeita hamaika urte joan dira hitz horiek idatzi zirenetik; baita hamaikatxo gauza aldatu ere orduz geroztik. Aldatu ez ezik, asko eta asko irauli edota itzulipurdikatu ere bai. Ez hala Erniomendi!

Ernioko gailurra harkaitza da: erromesek bertaraino eramandako gurutzez jositako haitza; zuhaitzik gabeko basoa. Hango gurutzearen emana!

Gailurretik gertu, harrizko gurutze bakar bat dago, besteak baino larriagoa: zuhaitz bakarti baten gerizpean daukazu, atsedenerako ordekatxoan, bideko bihurtune batean. Arbola eta gurutzea.

Gurutze hori berezia da: burdinazko lau uztai ikusiko dizkiozu besoetatik zintzilik. Erromesak, gailurrera igo aurretik, uztaiok hartu eta burutik behera pasa ohi ditu.

Erreuma edo hezueria sendatzeko omen dira uztaiok. Hala diote. Baliteke. Baina, nire iritzirako, uztai horien zertarako nagusia besterik da. Gaur zortzi adieraziko dizuedanez, uztaiok erakusten dute Ernioren izaera sakratua.

Bidezkoak
1994ko irailak 6

Ernioko uztaiak

Gaur zortzi aurreratu nizuenez, Ernioko uztaiek erakusten dute mendi horren izaera sakratua. Horra nire iritzia, eta hona nire irizpidea:

Erreuma edo hezueria sendatzeko omen dira uztaiak. Egia da Erniora igotzen den jende asko eta askok pasatzen duela bere burua uztaiotatik; baina, bestalde, erromes horietako gehienak gaitz hori nozitu gabeak dira, noski.

Ezagunak dira hezueria edo erreumaren ondorioak: hezurretako giltzak gogortu egiten dira ibilpidea eragotzi eta galerazteraino. Minaren minez, ibili ezinik geratzen da gaixoa. Eta, jakina, maldarik igo ezinik: gora jo ezinik. Zeregin egokia dute, hortaz, Ernioko uztaiek; eta leku egokian daude. Bai horixe!

Uztaiak badute, ordea, beste zeregin bat ere; zertarako nagusiago bat, hezueria sendatzea baino zeregin goitarrago bat. Hain zuzen ere, zinez uste dut mendi sakratuaren gailurrera igo aurretiko garbikuntza egiteko tresna direla.

Jendeak, oharkabean, horixe egiten du uztaiak buru gainetik sartu eta oin azpitatik ateratzen dituenean: garbikuntza sinbolikoa, elizako sarreran ur bedeinkatuaz egiten den bezalakoa.

Goitik beherantz, zerutik lurrerantz erakartzen diren hutsune metafisiko horiek garbitu egiten dute

beren itxitura magikoan sartzen dena. Beharko garbitu, mendi sakratuaren gailurrera behar bezala igo aurretik! Horrez gainera, hezueria sendatzen badute, hainbat hobe!

Lau dira uztaiok: hiru eta bat. Hiru dira karratu edo lauki itxurakoak. Bestea, bakarra, biribila. Zenbaki eta forma horien esannahi sinbolikoa denetan aberatsenetakoa da: Karratuak Lurra adierazten du, eta Hiru zenbakiak osotasuna. Forma biribilak Zerua adierazten du, eta Bat zenbakiak, berriz, hasiera betea edo sorburua.

Hiru Karratu horiek zeharkatuz lurtasunaz osoro garbitu (sinbolikoki, bederen) eta Biribil Bakarra zeharkatutakoan, Ernioko erromesa ez ote dago gailurrean Zerua iristeko moduan? Bai, noski!

Ustez osasungarri izanari esker iraun du Ernio-ko uztaien ohiturak. Sarritan gertatua horixe: ohi-turaren itxurapean gorderik irautea ohikune edo ritoak. Zenbat horrelako ez ote dugu geure folklo-rean? Bereziki, euskal dantzetan: zinta-dantzan, esaterako.

Euskaldunon antzinatiko estilo metafisikoa aski galdua da; agerikoa, behintzat. Aztarnak, ordea, hor dauzkagu, ezkutuan bada ere. Ikusten ikasi behar. Bistan dago gakoa: bere izatez traszendentea dena ikusiko badu begiak, ikuskera edo ikuspuntu egokia ere behar da; eta horretarako, traszenden-tziaren alorrean kokatu beharko du bere burua begiraleak. Horrez gainera, beste zera bat behar da: argia.

Erniomendik badu itzala!

Bidezkoak
1994ko irailak 13

Ilargia lagun

Ilargiaren aldarteak esanahi berezia du gizonarentzat; batez ere, lurrarekin harremanetan bizi denarentzat: nekazari, artzain, zurgin, perretxikuzale, arrantzale... Bai, arrantzaleek ere begiratzen diote ilargialdiari; lehorrekoak ez ezik, itsasokoak ere mugitzen baititu gaueko argizagi nagusi dugun Lurraren satellite bakar horrek.

Nork bere baratzako lanak batere arduraz egin nahi dituenak ere arretaz begiratu dio ilargiaren aldarteari: ilbeheran ereingo du hazia, eta ilbeheran landatuko ditu fruitua lurpean ematen duten barazkiak; baina ilberrin aldatuko ditu fruitua lur gainean ematen duten landareak. Aldez aurretik, ordea, ongi baino hobeto begiratu beharko die, jakina!, eguraldiaren egokierari eta lurraren gozoiari; baldin eta hazia ugari ernalduko bada edota landare ongi itsatsiko bada.

Baratzainen jakinduriak oso trikimailu polita asmatu zuen, beharrik!, ilargiaren aldarte eta eguraldiarena elkarrekin bat ez datozenerako: ilberriko ostirala ilbehera jotzen dute; eta ilbeherako ostirala, ilberri. Horrela, eguraldi egokiari lehentasuna emanaz, ostiralez baliatzen dira, ilargia aldatu zain egoitea luzeegi itxoitea iruditzen zaienean.

Ilberri idatzi dut, behin eta berriro; **ilberri** esaten baitzaio ilargi berria hasten denetik ilargia bete

arteko hamalau eguneko aldiari. Badakit, jakin, batzuek ilgora deitzen diotela aldi horri; baina gatz larriari gatz lodia deitzea bezain desegoki ikusten dut ilberriri ilgora deitzea. Desegoki den bezalaxe Beterri esan ordez Donostialdea esatea.

Lau dira, jakina, ilargiaren aldarreak: ilbehera, ilargi berria, ilberri eta ilargi betea. Ilargia argi-argi dagoenean, oilarraren begia baino ilargi ederragoa dagoela esan ohi da, eta ilargi zuri deitzen zaio. Horrelako ilargitan dabilenak, mendian edo, bidean den arte lagun izango du ilargiaren adarra.

Ilberri-ilbeherari begiratu ohi zion menditarrak hainbat lan noiz egin erabakitzeko orduan. Hona, aukera onenak:

- ◆ Belarra ebakitzeko, ilbehera; baita garotarako ere.
- ◆ Simaur ona egiteko, ilbeheran aitzurtu; gorotza urdindu egiten baita ilberrin irauliz gero.
- ◆ Txerria hil eta gatzatzeko, neguko ilbehera (azarokoa).
- ◆ Laharra zapuzteko, maiatzeko edo abuztuko ilbeheran jo. Zumalakarra, ilberrin.
- ◆ Perretxikua ilberrin ateratzen da, euria egin ostean.
- ◆ Ilea, ilbeheran moztu (bai lau hankakoei eta bai hankabidunoi).
- ◆ Zuhaitzak, neguko ilbeheran bota; salbu pagoa eta urritza (altza eta alertzea ere ilberrin; baina maiatzekoan). Gaztainondoa, bestalde, otsaileko ilbeheran inausi behar omen da.

Bidezkoak
1995eko urriak 17

Jaiotza jartzen

Bada oraintxe Eguberri-usaina gure etxean! Alboko gelan sumatzen ditut haurrak, pozez aztoratuta, etengabeko ahaleginean. Horien festa, jaiotza jartzen ari direla eta! A zer nolako ardaila, denen artean! Batak goroldioa ipini, besteak zilarrizko ibaia egin, hurrengoak estalpea antolatu, mutikoak ardiak sakabanatu, txikienak irrintzi egin... Ai, errugabetasunari darion pozaren ederra! Eta zenbat txinparta bizi heltzen zaizkidan, euren gogara jauzika, oroimenaren zorro ilunetik!

Ba ote da inor, haurtzaroan bederen, jaiotza jartzerakoan bihotza pil-pil, begiak ñir-ñir, aurpegia diz-diz edota eskuak dar-dar ihardun gabekorik, bere bizitzan behin bakarrik bada ere? Ez, noski; ez gure artean, behintzat. Errukarria, halakoa; baldin eta halakorik balego. Baina ez dut uste; izan ere, edozein gizakumek urre hutsezko bihotza izaten baitu, inoiz, haurtzaroan.

Jaiotza jartzen ari dira, beraz, gurean. Ez ezta-baidarik gabe, jakina!; ez baita samurra egokiro antolatzea irudi bakoitza non eta nola ipini. Jaiotza, izan ere, munduaren ispilu baita: mundu txiki bat. Baina zer adierazten digute jaiotzako irudi horiek? Zein da antzoki horretako irudi bakoitzaren esanahia?

Idia ontasuna, lasaitasuna eta bakezko indarraren irudi da, eta bere adarrak indar menperagaitzaren adierazgarri. Ongiaren sinbolo da, eta ikuslearen eskuin aldean kokatu ohi da.

Astoa, astarra, ezjakinaren eredu bada ere, iluntasuna eta joera gaiztoak adierazten ditu jaiotzan. Gaizkiaren sinbolo da. Ezker aldean jarri ohi da.

Izarra zeruetako iragarlea eta ilunbetako argi-iturria da. Sortaldetik agertu zenez, esana dago non ipini behar den.

Artzaina beti erne egoten da, lokartu gabe gau eta egun, eta ikusi egiten du. Munduari atxiki gabeko bihotzaren irudi da. Eta jakinduriarena.

Estalpea haitzulo edo koba sinbolikoa da: bihotza, alegia. Hortxe bakarrik jaio daiteke Jainkoa, inon jaiotzekotan: norberaren bihotzean.

Ama —Maria— «ama» da. Horrekin dena esana dago. Eta erditu ere amak erditzen duenez, erdi-erdian ipini.

Aita azkenerako utzi dugu. Izan ere, zein ote da aitaren lekua? Zeharbidez esango dizut:

Aloña mendira igo ginen iaz semea eta biok. Gailurrean gurutze handi bat dago, eta gurutzearen oinean, zulotxo batean, jaiotza bat. Han ageri da Haur Ederra, astoa eta idia dituela aldamenean; han, ama; baina han ez dager aitarik!

—Eta aita San Jose?

—Lanera joango zen —erantzun zidan semeak, lau urteko mutikoak.

Zaharrak zuzen daude: oraingo umeok ikasita jaiotzen dira!

Bidezkoak
1994ko abenduak 20

Jaiotzari begira

Jaiotza jartzen aritu ginen lehengoan, joan den astearteko artikuluan. Orduko hartan adierazi nizuen zein ote den jaiotzako irudirik nagusienen esannahia. Gaurkoan, berriz, jaiotzako beste irudi batzuk aipatu nahi ditut: apalak, batzuk; bitxiak, beste batzuk; esanguratsuak, denak.

Erregeak, errege maiteak, ez dira monarkia politikoaren saileko errege; baizik eta agintari edota ordezkari espiritualak: Melkisedek bezala, bestelako tradizio edo bide espiritualen ordezkari. Hain zuzen ere, «bestelakoak, heterodoxoak» omen direlako deituko diete, noski, «magoak». Hiru errege horien opariek Haur jaio berriaren maila eta eginkizunak adierazten dituzte; izan ere, opari horiek sinbolikoak baitira: urre araztuaren distirak erregetza adierazten du; gora igotzen den intsentsuaren usain gozoak, apaiz izaera; eta mirra ustelezinak, profetarena.

Izaia eta **pinua** (euskaraz, lerra) urte guztian hosto berdetan egoten dira; ez baitute hostorik galtzen (hobeto esanda, zaharrak galdu ahala hosto berriak sortzen dituzte). Etengabeko eraberritze horregatik, batetik; eta erretxin ustel ezina danielako, bestetik, zuhaitz horiek bizi-indarra eta hilezkortasuna adierazten dituzte. Gogoan izan, gainera, piramidearen itxura berekoak direla.

Ibaia bizitzaren beraren adierazgarri da, eta bizialdiarena: naturaren indarra eta uraren bizigarritasuna, batetik; inoiz ere gelditu gabe joan dihoan denbora, bestetik.

Garbitzailea ere hor ageri da jaiotzan, ibai er-tzean belauniko, bere zapi zikinak garbitzen. Eta, esan bezala, belauniko jarrita, errukia eta barka-mena eskatuz bezala. Nolanahi ere, badirudi zikin kutsurik gabe agertu nahi duela Haur jaio berriaren aurrera.

Arrantzalea da irudietako beste bat. Nolako arrainak aterako ote ditu bizitzaren ibaitik: zorione-koak ala zoritxarrekoak? Botako ote du amua bere barruko ur handietara?

Kakontzia ere hortxe ari da, ezkutu-makurka, ipurdia bistan duela, bere «lan» zikina egiten. Izen eta ezizen ugari ditu bazter guztiak kakanahasten dituen horrek: Etsaia, Txerren, Prakagorri, Beste mutila, Infernuko Patxi, Eulien ugazaba... Etxeko jaiotzan ez daukagu kakontziaren irudirik; baina, haren orde zedo, barrabas-belar bakan bat sortu zaigu goroldio artean. Ez da harritzekoa; esan nizuen jaiotza munduaren ispilu dela.

Urketaria ere oso garrantzitsua da. Baina irudi horretaz datorren astean hitz egingo dizuet; esan-nahi handikoa baita euskaldunontzat.

Eguzki berri on, irakurle!

Bidezkoak
1994ko abenduak 27

Urtea

Jaiotzari begira egon ginen gaur zortzi, bertako irudien esannahia aurkitu beharrez. Orduko hartan azaldutakoez gainera, beste irudi bat ere aipatu nizun: **urketaria**. Zer da, baina, urketaria? Ba, dakizunez, urketan aritzen dena: ur-garraio, alegia; ura eramaten, toki batetik bestera.

Gure jaiotzako urketariak bi ontzi ditu: bata, eskuinean zutik dakarrena; bestea, ezkerrean etzan-antzean daramana. Zutikako ontzia, bu-larraren kontra dakar, estu eutsita; bistan da, beraz, urez beteta dakarrela. Beste ontzia, berriz, lasai darama ezkerreko eskuaz; hutsik edo ia hutsik baitago (etzanda darama, eta oso arina dirudi: dagoeneko isuria da, nonbait, ontzi horretako ura).

Ur hori zeren ezaugarri da? Zer adierazten du? Euskaldunok erraz eman beharko genuke erantzun zuzena; baina... O, «baina» madarikatua! Beti erdal kultura 'modernoen' morroi gabiltza! Etxekalte!

Urketari horrek adierazten duena aldia edo denbora da (urketaria eta urtekaria elkarren kideko dira, adiera honetan). Hutsik daraman ontzia, izan ere, dagoeneko agortu den denboraldia da: urte «zaharra». Bestalde, beterik dakarren ontziak urte «berria» adierazten du: unez une, egunez egun isuriko den ura (denbora) dakar ontzi horretan, urte bukaeran bukatu edo agortuko zaiona.

Urte bukaeran agortzen da ura: urte bukaeran bukatzen da ura. Ura bukatzen denean bukatzen da urtea: ura bukatzen denean bukatzen da ura.

Azkeneko esalditxo horiek tautologia edota pellokeria dirudite; izan ere, zer esan nahi du **urte** hitzak? Zeharbidez azalduko dizut. Adibidez, «eurite» hitza entzun orduko «euria» datorkigu gogora; eta «elurte» hitzarekin, «elurra». Euritea, dakizunez, eurialdia da; eta elurtea, elurraldia. Zer da, hortaz, «urtea»? Ba, hitzari berari begiratuta, uraldia, uholdea. Guk, ordea, denboraldia aipatzeko bakarrik erabiltzen dugu «urte» hitza, urarekin zerikusirik ez balu bezala, eta «ur» hitzetik datorrela ahaztuta.

Ahaztuta daukaguna, ordea, bizirik dago (oraindik) euskal kulturaren. Baditugu herriak, zorionez, Urte Berrian sartu orduko ur berria edateko ohiturari eusten diotenak. Bejondeiela! Hori da euskal ohitura jatorra, eta ez mahats-aleak irentsi ezinik ibiltzea!

Bai oparoa gure hizkuntza zaharraren baitan gordetako altxorren aberatsa! Ai, gure kultura geureak daukan jakinduria ezkutua! Ikusten jakin behar! Baina nola ikusiko dugu, ez badugu begiratu ere egiten? Eta nolatan begiratu, baldin eta arrotzaren distirak begiak hartzen badizkigu, sugeak txoriari bezala?

Urte Berri on, irakurle! Eta on degizula ur berriak!

Bidezkoak
1995eko urtarrilak 4

Olentzero bada nor

Olentzero ez da, noski, txorimalo zarpail eta arlote bat, askok uste duen bezala. Bi mila urtetik gora iraun du bizirik, gutxienez, mito honek: ez hutsaren hurrengoia izan balitz! Badu zerbait!

Ez dakigu zer adierazi nahi duen Olentzerok; baina argibideren bat atera daiteke, beharbada, abestiaren letra errepatatuz. Nik ohartxo batzuk ere erantsi dizkiot, tarteka; desegokiak direla iruditzen bazaizu, irakurle, zuk ez gogoan hartu, eta kito!

Olentzero: Olentzaro, Onentzaro, Orentzaro... ARO, denbora, garaia, sasoia.

joan zaigu: Ez zen mendian, beraz. Eta gutarra da.

mendira: Mendira, gora. Basora? Igoera eta natura.

lanera: Ez denborapasa.

intentzioarekin: Asmoa erabakita, berariaz.

ikatz egitera: Ikatza/Sua. Landareak mineral bihurtu. Ikatza/Alkimia? Azti-magoa?

aditu duenean: Aditu edo ulertu. Nola? Entzun? Nori?

Jesus jαιο dela: Mitoa Kristo aurretikoa omen denez, zer iragartzen du, funtsean, Olentzerok? Zer igarri ote zuen? Zertan antzeman?

lasterka: Aztoratuta, berriaren garrantziaz jabeturik.

etorri da: Bere borondatez; ez gogozkontra. Pozik?

berri ematera: Mezulari ohartua da: jakitun dago.

osorik jan dizkigu hamar txerri gazte: Txerri horiek albiristea ote? [*albiriste:* berri onak ekarzteagatik ematen den saria]

Olentzero gurea: Gurea, alegia; ez arrotza.

ezin dugu ase: Den-denak irensten dituen arren, ezin ase inola. Kronos-Saturno bezala. Denborarekin (aro) zerikusi nabarmena du: Urte Zahar egunean ospatzen omen zen, lehen, Olentzeroren etorrera.

Jesus jaio da eta kontsola zaitzte: Bestela ezin kontsolatuzko egoera horrek (Kronos ase ezinik bizi beharra?) latza behar zuen izan, inondik ere, Logos berberak baizik orekatu ezin izateko.

Horra, gure Olentzero, pipa hortze(t)an duela eserita dago: Tronuan ageri zaigu. Errege eta jaunen gisa?

Gabonetan ateratzen dugun Olentzero zarpail, zikin, arlote, txorimalo, tripazain eta mozkor horren ordez, hobe beharrez, gaurko gizarteak eskatzen duen Olentzero apainago bat jartzeko garaia iritsi dela idatzi du, oraindik orain, Mikel Atxagak.

Konforme nago. Eta ez Atxagak aipatzen dituen arrazoi pedagogikoengatik bakarrik; baizik eta, batez ere, Olentzero arlote eta mozkorren irudi hori erabat gezurrezkoa delako, antza.

Baina nor da, nolakoa dugu benetako Olentzero? Nork daki zer adierazi nahi duen antzinatiko mito horrek? Hori ongi ikasi bitartean, gogoan izan Olentzero badela nor.

Basajaun haietakoren bat, agian?

D. V. Suplemento
1995eko abenduak 23

Mari eta Basajaun

Mari, euskal kulturaren, Lurra da, lurraren beraren eta lurretikoen 'ama' (iturburua, jatorria...). Areago esango nuke: gure mitologiako Mari gaia da.

Gai hitzaren esanahi betea aztertu beharra daukagu; baina ez hizkuntzalaritzaren ikuspegi murritzetik bakarrik, jakina.

Gai hitzaren ohizko adiera —nabarmenena— hau da:

gai: Gauzak osatzen dituzten materia-motetako bakoitza.

Ez da gaizki esana; baina oso axalekoa iruditzen zait azalpen hori. Nahiago dut filosofian erabiltzen den beste adiera hau:

gai: Izakiaren hondo eratugabea, formak egituratzen duena (sustantzia).

Konturatuko zinen, bidenabar, bai azalpen batean eta bai bestean hor adierazten zaigula *gai* horren 'barnekotasuna' (hondo, barru, mami, muin...). Ahoz aho iritsi zaizkigun euskal mitozaharrek adierazten diguten berbera, alegia:

Lurraren barrualdea da Mariren bizilekua (kobazulo, leizezulo eta abar sarbide izanik).

Euskarak berak —ohi duenez— beste argibide bat ere ematen digu, ordea. Izan ere, gaitasuna eta ahalmena ez ote dira biak bat? Jakina baietz! Gai izatea, hortaz, ahal izatea da, eta esango nuke hor dagoela bigarren adierako *sustantzia* hori behar bezala ulertzeko gakoa. *Gai* horren ahalmenak adierazten digu, hain zuzen ere, *sustantzia* unibertsal, absolutu edo mugagabea dela (eskolastikoen *materia prima* ahaltsua, diren guztien 'ama'); eta ez *sustantzia* erlatibo edo mugatua (eskolastikoen *materia secunda*).

Metafisikaren muin-muinekoa da, beraz, gure Mari. Bejondeiola ahozko euskal kulturari! Ezjakinak omen dira, aizu, analfabetoak direlako! Bai, to!

* * *

Jakingo duzu, noski, Marik bi seme dituela: Atarrabi eta Mikelats. Bata, Atarrabi, ona dela diote; bestea, Mikelats, gaiztoa. Ikuspegi morala alde batera uztera ausartuz, bata argia eta bestea iluna direla esango nuke. Gogoan hartzekoa da, gainera, etsai zaharraren kobazulotik ihes egitean itzala edo errainua galdu zuen hari ere Atarrabi zeritzotela.

Badaukagu, horretan ere, zer ikertua! Esaterako, Mariren bi seme horiek esentzia (Atarrabi) eta *sustantzia* (Mikelats) adierazten ote diguten. Edota Mikelats izeneko *hats* horren nondik norakoa. Pozik ikasiko nuke, gainera, *atarramentu* hitzak zerikusirik baduen ala ez arestiko Atarrabi horrekin.

Oraingoz asko dugu; baita gehitxo ere, agian. Beraz, ez dizut aipatu baizik egingo Mariren senartzako Sugoï edo Sugaar delakoaren herensuge izaera, beronen esanahi sinboliko eta guzti.

Bestalde, bai ikerbide oparoa Mariren bizibideari buruzkoa: ezari emandakotik bizi omen da behintzat eta! Gezurrezko EZetik eta gezurrezko BAIetik, alegia.

ezari eman: egiaren edo elkarrekiko betebeharraren aurka huts egin.

Esaerak dioena: *Ezari emana, ezak eraman.* Uzta oparoa bilduko du Marik, alajaina, gezurra nagusi daukagun honetan! Isil nadin, baina!

Jakingarri bitxien zalea bazara, hona hemen bizpahiru:

1. Honela hitz egin behar omen da Marirekin: hika, zutik eta aurrez aurre (inoiz ere bizkar eman gabe).
2. Jaun Zuria izan bide zen Bizkaiko Lehen Jauna, eta beronek Mari esposatu omen zuen. Ezkontza horretatik sortu ei zen Bizkaiko Bigarren Jauna, Iñigo Gerra izenekoa. Ez harritu, baina, ahaidetasun horregatik; Jaun Zuriaren beraren gurasoak Sugaar (Mariren senartzakoa) eta Mundakako printzesa omen ziren eta. Mito zahar horiek ez dira gaur egungo sentimentalkeria txoroen parekoak; oso aintzakotzat hartzekoa baita mitologia... behar bezala ulertuz gero.
3. Gipuzkoako armarrarian ageri diren bi gizaundiak ez bide dira mazokari (*macero*) hutsalak; baizik eta basajaunak. Gure arbasoek, dirudienez, Basajaun hautatu zuten babesletarako. Zer egokiagorik? Basajaun mitikoak bere baitan uztartzen baititu, oreka betean, naturazko izatea eta teknikazko jakitea (ekologia eta teknologia baino areago). Basajaun: artzaien laguna (otsoen kontra) eta, Martin Txiki bidez, nekazarien irakaslea (garia, errota-ardatza) eta arotzen maisua (zerra, soldadura).

Basajaun

Ez dut uste Basajaunen itzala desagertu zaigunik erabat. Nik, behintzat, sumatzen dut: basoan

sumatu ere, mendian baino gehiago. Eta ez naiz bakarra; ezta gutxiagorik ere, zorionez!

Badira, ba, lanetik jai dutenean, mendi aldera joaten direnak perretxiko-aitzakiatan, makila eskuan dutela? Edota ehizera, eskopeta bizkarrean? Edota auskalo zertara, aizkora txikia gerrian? Ez duzu asekada handirik egingo, noski, horiek ekarritako ziza, ehize eta abarrekin. Ez dio axola horregatik, eta ez dituzu triste ikusiko esku hutsik itzuli arren: ezer gutxi ekartzea aski dute, berrizko aitzakia izateko adina bada. Basajaunen itzal bila ibili ohi dira, ohar-kabeen bada ere; euskaldun askok nork bere barruan daukagun Basajaun antzinakoa baso-mendietan bakarrik aurki baitezakegu, naturaren baitan, lurraren amatasun sakona arrazoi guztien gainetik ageri den lekuan.

Basajaun hitzaren *basa* hori ere berraztertu beharra daukagu, Lévi-Strauss antropologoaren gogoetak lagun. Basatia ez baita *salvaje*; baizik eta *primitivo*. Antzinakoa, alegia, hizkuntza idatziak ezarritako pentsamoldea baino lehenagokoa eta libreagoa (?).

Horixe bide da Basajaun: lehen gizona, Ekaingo artista, Aralarko pilotaria, artzain bertsolaria, ezpatadantzaria, itsasozko ibiltaria, ehiztari metafisikoa... Horiek denak diraute bizirik nire baitan, ozta-ozta bada ere. Horregatik deitzen didate Basajaun, eta horregatik jaregiten dut, aldizka, haizearen ziztuak daraman irrintzi urratu bat.

Mendia, berriz, zera da: mundua ez beste guztia.

* Artikulu hau, gaztelaniara itzulita, *Montaña y aventura* liburuan aurkitzen da [Etor-Ostoa, 1996].

Ditxosozko Rh gurea!

Isaac Asimov (1920–1992) idazle eta biokimikari ospetsuak lan bikaina egin zuen jakintza zientifikoaren zabalkundean. Nik neuk gaztelaniaz irakurri dut berak idatzitako *New guide to science* izeneko liburua (1984); baita euskaldunoi dagozkigun aipamen interesgarriak aurkitu ere bertan.

Los antropólogos muestran sumo interés por la raza, pues este tema puede orientarles ante todo para estudiar las migraciones del hombre primitivo. No es nada fácil identificar específicamente cada raza. El color de la piel, por ejemplo, proporciona escasa orientación; el aborígen australiano y el negro africano tienen piel oscura, pero la relación entre ambos es tan estrecha como la que pudieran tener con los europeos. Tampoco es muy informativa la línea del cráneo (...)

Larruazalaren koloreak ezer gutxi esan nahi du, beraz, eta buru-hezur edo kaskezurra ere ez da adierazgarria: horiek itxurazko ezberdintasunak besterik ez omen dira zientziarentzat.

Zein ote da, ba, ezaugarri nagusia? Non aurkitzen ote da arrazaren benetako bereizgarria?

Asimoven liburuan dator erantzuna, lehengo aipamenaren orrialde berean (1.030. or.):

Los antropólogos han encontrado un excelente indicador de la raza en los grupos sanguíneos. El bioquímico William Clouser Boyd, de la Universidad de Boston, fue una eminencia en este terreno. El puntualizó que el grupo sanguíneo es una herencia simple y comprobable, no la altera el medio ambiente, y se manifiesta claramente en las diferentes distribuciones entre los distintos grupos raciales.

Odola da, beraz, arraza bakoitzaren ezaugarria. Larruazal zuria ala beltza, horia ala gorria... axaleko bereizgarriak dira. Zientziak dioenez, odol-motan ezagun da, zalantzarik gabe, arraza bakoitza.

El indio americano constituye un buen ejemplo. Algunas tribus son casi por completo de sangre O; otras tienen O, pero con una considerable adición de A; prácticamente ningún indio tiene sangre B o AB. Y si algún indio americano posee B o AB, es casi seguro que tiene algún ascendiente europeo.

Arbasoen jatorria odolean txertatuta geratzen da, beraz, belaunez belaun. Arbasoena ez ezik, gurasoena ere bai. *Amak jakiten du haurra norena den* esan ohi den arren, gaur egun, odola aztertuta, berehala jakiten da *haur horrek aita nor duen* ere. Horrelako aurrerapenik ez zen, ordea, abesti hartako Pello Joxepe setatiaren garaian.

* *

Isaac Asimov-en liburuan aurkituko dituzu ondorengo hitz hauek ere:

Los genes del tipo sanguíneo revelan las huellas no borradas totalmente todavía de migraciones preteritas. (...) Una repercusión particularmente interesante e insospechada de las primeras migraciones europeas (...) se descubrió en un estudio sobre la distribución de la sangre Rh.

Antzinako arbasoen jatorria odolean txertatuta geratzen da belaunez belaun, joan den astean esan bezala. Odolaren indarraren iraupen horretaz baliatzen da zientzia, besteak beste, arraza eta herri ezberdinen iragan urruna aztertzeko.

En Estados Unidos, el 85% de la población es Rh positivo, y el 15% Rh negativo. Esta misma proporción se mantiene en casi todos los pueblos europeos.

Begira zer emaitza izan duten munduko gainerako lurraldeetan egindako azterketa zientifikoek:

Los pueblos asiáticos, los negros africanos, los indios americanos y los aborígenes australianos son casi totalmente Rh positivos.

Munduko lurralde guztietan kopuru berdintsuan aurkitu dute, beraz, odol-ezaugarri hori. Denetan? Bai, Euskal Herrian ez beste guztietan.

Los vascos constituyen una excepción con un 60% aproximado de Rh negativo y un 40% de Rh positivo. Y los vascos son también singulares por su lengua, la cual no está relacionada lo más mínimo con ningún otro idioma conocido.

Ez da iritzi-kontua, beraz; baizik eta zientziak argi eta garbi erakusten duena. Nahi duenak nahi duena esango du, ahal duen bezala ulertuko du, komeni zaion bezala erabiliko du...; baina ditzosozko Rh horrena egia zientifikoa da (eta garrantzitsua, Asimov jaunaren ustez ere). Hortaz, zuzen zegoen, horretan behintzat, kanta asmatu zuena:

*Euskaldunok munduan
ez dugu parerik*

Ondoren datorrena, ordea, iritzia da: Asimovek idatzia bada ere, beste zientzilari askoren iritzi berbera dirudi.

Se puede inferir esta conclusión: los vascos son el remanente de algún pueblo Rh negativo que invadió Europa en tiempos prehistóricos. (...) el único grupo superviviente de los primitivos europeos.

* * *

Hona, Asimov jakintsuak esanak laburbildurik:

1. Euskal odolak duen Rh delakoaren proportzioa munduan beste inon ez bezalakoa da, nabarmen ezberdina.
2. Hori oso deigarria eta esanguratsua da zientzilarientzat.
3. Antzinako garaietako Europako herrietatik bizirik geratutako bakarrak omen gara euskaldunok.

Egia zientifikoaren maila alde batera utzita, nik esango nuke odol ezberdinekoak izate horrek gauza asko argi ditzakeela: horregatik izango gara honen egoskorrak, eta honen egoskorrak izanari esker iraun dugu bizirik euskaldunok. Tamalez, ordea, egoskorkeria horrek berak galerazten digu elkarrengana biltzea.

Baina zer ote da Rh delako hori? Medikuntza-alarrean, *Rhesus* hitzaren laburpena omen da, eta odolean dagoen —ala ez dagoen— antigeno bati dagokio: D antigenoari. Eta antigenoa, oker ez banago, baktería, mikrobio edo gisako gairen bat da. Gai hori arriskutsua izan daiteke gorputzean sartuz gero: gorputzak bere burua babestu beharra izateko bezain arriskutsua. Horregatik ziurtatu behar da, adibidez, odol-emailea eta odol-hartzailea Rh mota berekoak izatea.

Aipa dezadan tximinoaren kontua. Arestian esan dudanez, Rh delako hori *Rhesus* hitzaren laburpena da. Hitza, ordea, tximino-mota baten izenari omen dagokio: *Macacus Rhesus* deritzonari.

Kontua zera da: tximino horren globuluetan aurkitu zutela lehenengoz D antigenoa; baita tximinoaren izena ezarri ere. Eta hortik dator ziria; izan ere, tximinoaren D antigenoa duen odol-mota baita Rh positiboa, eta tximinoaren zera hori ez duena, Rh negatiboa.

Odolari dagokionean, beraz, eta joan den astean emandako kopuruen arabera, munduko herri eta lurralde guztietako jendearen %85a Rhesus tximinoaren kideko da. Salbuespen bakarra geu gara; euskaldunon gehiengoaren (%60) odola Rh negatiboa baita. Euskalduna, hortaz, beste edozein baino askoz ere urrutiago dago kasta horretatik: tximinoa ez da gure ahaideetako, nonbait.

Ez dut pena handirik hartu hori jakitean. Baina, ikusiak ikusi, ez dakit sinistu ala ez.

Bidezkoak
1994ko apirilak 26
eta maiatzak 3 eta 10

National Rh

Rh gurea dela-eta, hiru alditan idatzi nizun, orain dela urte bete, Asimov ospetsuaren hitzak aipatuz.

Zientzia garaikideak argitu duenez, odol-mota da (eta ez larruazalaren kolorea) arraza bakoitzaren ezaugarri nagusia. Arbasoen jatorria odolean txertatuta geratzen da, eta ingurugiroak ez du aldarazten; ezta milaka eta milaka urte pasata ere.

Eta zer aurkitu du zientziak Europa, Amerika, Afrika, Asia eta Ozeaniako odol-mota guztiak aztertu ondoren? Mundu guztian ez dagoela beste herri bat —ezta bat bakarrik ere!— euskal odolean daukagun Rh proportzioa duenik.

Euskal arraza berezia da, hortaz: munduan besterik ez bezalakoa. Hori egia zientifikoa da, eta egia garrantzitsua, Asimoven ustez ere.

Horiek idatzi eta handik hiru hilabetera, eskutitz bat bidali zidan F. Arizabalo irakurle irundarrak (Milesker!). Kartarekin batera, fotokopia bat: Ipar Amerikako *National Geographic* delako aldizkari ospetsuak, iazko iraileko alean, argitaratutako orrialde baten fotokopia.

Hara! *National Geographic* ospetsua ere euskaldunon Rh harrigarriaz mintzo da! Mapa eta guzti dakar, gainera! Hor dago, mapan, *Basque region*;

haruntzago, Arabia eta Mesopotamia aldean, *Fertile Crescent*. Ea zer dioen artikuluak!

Stanford-ko Unibertsitateko hainbat zientzilari-talde, Luca Cavalli-Sforza buru dutela, herrien joan-etorrien aztarna bila ibili da, ezaugarri genetikoez baliatuz. Euren ikerketen ondoriak *The History and Geography of Human Genes* delako atlasean argitara berri omen dituzte; baita bostehun mapatan mundu guztiko herrien antzinako lurralde-aldaketak azaldu ere.

Artikuluak dakar, gainera, Cavalli-Sforza-ren eta bere taldeko jakitunen aurkikuntza:

Duela bederatzi mila urte, *Fertile Crescent* delako lurraldean nekazaritza sortu eta geroxeago, Ekialde Ertaineko bertako jendea norabide guztietara sakabanatzen hasi zen. Europaraino ere iritsi ziren, eta bertako herri guztiekin nahastu. Denekin, euskaldunekin izan ezik; euskal lurralde menditsuko jendeak, etorri berriei gogor egin eta eutsiz, ez baitzuen onartu beraiekin nahastea. Horregatik iraun du euskaldunen Rh bereziak.

Antzeko zerbait idatzi zuen Asimovek, duela urte batzuk:

Euskaldunak dira antzinako europear haietatik geratu den herri bakarra.

Horra, zientzilarien esanak! Euskaraz aurrea hartu genion *National Geographic* berari ere gure Rh esanguratsuaren berri ematerakoan. Beste batzuk —gaztelaniazko prentsa— lo daude oraindik: itsu.

Eta zein da itsurik itsuena? Ikusi nahi ez duena!

Bidezkoak
1995eko maiatzak 2

Bidezkoak

Umore ona?

Umorea?

Luzaro samar egon naiz zalantzan, gai honi heldu aurretik. Zer egin: idatzi ala isilik pasa? Idatziz gero, haserretu egingo zait, agian, zenbait lagun. Bestetik, barruak ez dit agintzen isilik segitzea:

—Joan-etorri handiko gaia duk. Bestalde, lagun horiek jakinaren gainean jarri ez hituen, ba, aldeztu aurretik?

—Bai, baina... Dagoeneko ahaztu al zaik zer idatzi zuen Mikel Atxagak egiaren adiskide ala Platonen adiskide izan behar horretaz? Alegia, bere ustez itsumena dela denen gaintetik egia maitatzea, baldin eta horregatik adiskiderik handienarekin haserretu behar bada.

—Horra! 'Alegia' horrek arinduko dik zama. Lagunik ez zapuzteko, aski duk *balitz*, *balego* eta adibideka idaztea.

Egizu kontu, irakurle, ETB ikusten ari zarela: umorezko telesaio bat, adibidez. Egizu kontu lehia-keta bat dagoela: ea nork txiste gehiago kontatu denbora jakin batean. Ez ote litzaizuke larritxia irudituko umorea kalkulagailuz zenbatu eta erlojupean neurtze hori?

Umorea goi mailako tresna da, baliapide paregabea. Giza pentsamenduaren garapen da: gizonaren inguruko hamaika gertakari, nahigabe, ezbehar, ezintasun... garaitzeko giltza.

Irribarre daragien umoreak paradisuko laino mehe dirudi: pentsarazi egiten du, barruak goxatu, nekeak arindu, begiak argitu, bihotzak samurtu eta tristurak uxatu. Zoragarria da besteri (eta nork bere buruari) irribarre gozoa eragin ahal izateko ahalmena.

Barre-algara ere, benetakoa bada eta ez txoroa, ederra da: leherketa osasungarria dirudi. Irribarrea buruan sortzen da; barre-algara, aldiz, sabelean: gorputz osoa astintzen du eta ezin zaio eutsi, malakoak isuri arren. Barre-algara eragiteko bete-beteen asmatu behar da, ordea; eta Jaimito oso motza da euskaldunontzako. Telesaio horretan konta litzaketen txistek ere hor nonbait; izan ere, euskal umoreak begirune baitio entzulearen adimenari.

Eta zer pentsatuko zenuke, irakurle, baldin eta telesaio berean ikusiko bazenu, behin eta berriro, kalean laguntza beharrean (antza) dagoen elbarriari edota amonaxoari laguntzen diona barregarri uzten dela? Ez al lizuke inori laguntzeko gogoia zapuztuko bideokamara ezkutu batek?

Eta zer pentsatuko zenuke, irakurle, baldin eta milaka hurrek ikusten duten telesaio horretan, adibidez, *sex-shop* batean edo erositako panpina nabarmen bat puztuko balute? Eta zer esan hurrei, baldin andrakilo zatar horren gorputz atalik nabarmen-nabarmenena berorren hankatarteko erretena balitz?

Eta zuk zeuk ziur jakin hori guztia ez dela asmo gaiztoz egina, eta nola adierazi, nola sinistarazi ETB euskal kultura sustatu eta hedatzen ari dela?

Bidezkoak

1995eko otsailak 14

Komunean

“... euskaldun guztiok komunean duguna bultzatzea da.”

Esaldi horrekin topo egin nuen, ustekabean, iazko Udako Euskal Unibertsitateko kronika batean. Beno, horixe irakurri nuen nik orrialde hasieran, halabeharrez edo, bi orri pasa nituenean bakarraren orde. Hitzez hitz aipatuta zetorren esaldi horren sujetu ezezaguna aurreko orrialdean zegoen; hain zuzen ere, nik oharkabean pasatako hartan.

Horra, hausnarrerako adina aitzakia! Zertaz ari ote zen? Zer ote da euskaldun guztiok komunean dugun zera hori? Bultzatu beharreko zerbait da, esaldiak berak aditzera ematen duenez. Zer, baina? Komuneko zulotik behera bultzatu beharreko zerbait, agian? Horrela balitz, a zer kuxidadea, kontuz ibili ezean! Gizona ez izaki aingerukia eta, anatomiaz ari zela uste izan nuen: eskatologia arruntaz, alegia.

Ez, ordea! Ez nuen asmatu; ez baitzen gorotzaz ari, aurreko orrialdea zelatatzean ikusi nuenez. Harrituta geratu nintzen, egia esan, zertaz ari zen jakin nuenean: zer izango “euskaldun guztiok komunean duguna”, eta zera...

Geroxeago azalduko dut zer den zera hori; izan ere, “komunean” hitza —mordoilo alaena!— irakurri izanak nahastu egin ninduen, eta nahaste horrek gogorarazi zidana kontatu nahi dizuet aurrena.

Duela urte askotxo, ezezagunei gutunak idatziz adiskide berriak bilatzen ziren garai hartan, albiste bitxiak iritsi zitzaizkion karta-hartzaile horietako bati. Honako hauek irakurri omen zituen, besteak beste, atzerriko berri emanaz bidali zioten gutun batean:

Oso W. C. egokia daukagu. Berrogeiren bat lagun biltzen gara bertan, gizaseme eta emakume, eta, bakoitza bere lekuan eseri ondoren, elkarren ondoan jarrita betetzen ditugu gure eginbeharrak, lasai asko. Apaiza ez da eserita aritzen; nahiago izaten du zutik ihardutea: horrela hobeto ikusten baitugu zer egiten duen. Neguan, hotzaren beldurrez, atea itxita aritzen gara; baina udan, ez: atea zabal-zabalik uzten dugu, norbaitek sartu nahiko balu ere. Begira egoten zaizkigunak ere badira, ez pentsa! Horietako batzuk etorriko lirateke, agian; baina lotsatu edo egiten dira.

Ahoa bete hortz geratu zen karta-hartzailea, komuneko eginbeharrak elkarrekin egiten zituztela uste izanik. Oker zebilen, ordea; gutunean aipatutako W. C. hori ez baitzen komuna, baizik eta protestanteek biltokitzat zeukaten *Wakefulness Chapel* izeneko elizatxoa. Horra, nahasketa!

Hamaikatxo nahaste sortzen da euskaraz “komunean” hitza dela eta. Adibidez, goieneko esaldikoa. Izan ere, hauxe baitzen artikuluko hau idazteko aitzakia eman didan esaldia:

Euskara batua / euskaldun guztiok komunean duguna bultzatzea da.

Itsusiago esan nahi izatera, “amankomunean” esan, eta kitto!

Bidezkoak
1994ko maiatzak 17

Txotx!

A diskidetu egin naiz sagardoarekin; alegia, zotzean edukitzen den sagardoarekin. Neguko sagardo berria izaten da zotzetik edaten den hori, upelatik zuzenean hartzeko moduan dagoena.

Zotza, ez badakizu ere, ziri bat da: sagardoa (edo ardoa edota txakolina) ateratzeko upelak daukan zuloa estaltzen duen zirria. Giltza eta guzti dute oraingo zotzek, sagardotegiko nagusia izanik giltzari.

Zeruko atezain San Pedro berbera dirudi nagusi horrek, eskuan duen giltza erakutsiz, *Txotx!* oihukatzen duenean: nork bere basoa hartu eta upela baten aurrera joateko garaia da. Mauka-mauka jaten ari delako edo ohartu ez denari *Egon hadi lo, eta edango duk 'me'!* esanez, hor joango da jendea bizi-bizi, dia-dia, harra-harra eta barra-barra, atseginen iturrira erromes.

Atseginak, guztiz atseginak, iruditu zitzaizkidan joan den astean probatu eta edan nituen sagardoak. Bai mama goxoa! Hura sagardoa, hura! Haren txinpartak eta urre-kolorea, haren gazi-gozo gustagarria! Hura zen hura, urik gabea! Hango *Txotx!*, joan-etorri eta txurrustadak! Zoragarriak! Ai, denak halakoak balira!

Ez dizut esango sagardotegiaren izenik; upela gutxi baitituzte. Igargarri bi emango dizkizut, halere:

1.) etxeko eta auzoko sagarra besterik ez dute erabiltzen, eta 2.) bertako nagusi zaharra sega-jartzaile aparta izana da.

Sagardoaren berri gehiago jakin nahi baduzu, irakurri Urnietako Elutxeta sagardotegian ageri diren hitz hauek:

Sagardoa erraz edan eta konturatzerako burualdea berotzen digun edaria da; baina bere mozkorra ez da edozein modukoa. Euskal Herriko sagardotegietara joaten denak hiruzpalau litro edaten ditu konturatze-ko, bazkaldu, meriendatu edo afaldu egiten duen bitartean. Ohitura zutik jatekoa da, edaria errazago jaitsi dadin. Sagardoaren mozkorra ez da batere kaltegarria, kimika gutxi izateagatik edo.

Sagardoak pertsona kantuka, hizketan edo parrezka jartzen du, umore onean, eta kupelaren inguruan egiten den lagunartea ez da munduko diru guztiekin ordaintzen. Sagardotegi bateko nagusiak esaten zigun ez duela sekula burrukarik ikusi sagardoarekin mozkortutakoen artean. Hankak ahultzen ditu gehienik sagardoak. Atea ondo ikusiko duzu, baina sartzen hasi eta bekainarekin emango diozu ertzari. Geldirik jartzen bazara, gorputzak atze alde-
ra egingo dizu, eta mendian bizi bazara, bi pauso aurrera eta bat atzera eginez noizbait ailegatuko zara etxera. Holakoxea da sagardoaren mozkorra. Gainera, emakumeetarako gogoak kentzen ditu, eta hori milagro handia da.

Jakina! Zotza dela medio, ezin ziria sartu!

Bidezkoak
1995eko otsailak 28

Ezkondu: bai ala ez?

Sara Maddi neskatoari entzun nion, joan dene-ko batean, bere izeba Elenak eman berri zion aholku hauxe: *Ezkondu aurretik, ondo pentsatu!*

Aholku horren balioa taxutzeko ez dio axola zein den horrako «ondo pentsatu» horren esanahi zehatza: alegia, «sakonki eta luzaro» ala, bestela, «uste onez eta ederki» pentsatu behar dela, jaramonik egin gabe kanta zaharrari:

*Ezkongaietan zerbait banintzen;
ezkondu eta ezer ez.
Ederzalea banintzen ere,
aspertu nintzen ederrez:
neure gustua egin nuen ta
orain bizi naiz dolorez.*

Esango nuke «ondo» horren adiera biak direla zuzenak; haurtzaroan ikasi nuen lelo hauxe baita-torkit burura:

*Negarra eta parra:
ezkondu beharra.
Zeinekin ta zeinekin?
(neskazahar) mutilzahar batekin!*

Haurrek badakite negar eta par egiten aldi berean, eta horrelakoetan kantatzen zitzaien lelo hori. Bistan da, ordea, ez dela ez umekeria eta ez arinkeria negarra eta parra (biak batera) erabiltzea ezkontzaren ezaugarri; arazo sakona baita kontrarioak elkarrekin uztartu behar hori.

Sakona, bai, eta antzinatik datorrena. Sokrates jakintsuak ere zalantza gogorrak izan zituen, agi danean, gai honekin. Bere ikasle bat etorri omen zitzaion aholku eske, zer egin behar zuen galdezka: ezkondu ala ezkongai geratu?

—Nahi duzuna egin —esan zion Sokratesek, luzaroan pentsatu ondoren—. Ezkontzen bazara, damutu egingo zaizu; eta ezkontzen ez bazara ere bai.

Zaratustra, aldiz, ziur-ziur zegoen, nonbait, eta hala esan omen zuen: *Ezkontza zubi bat da, zerurako bidean.*

Halere, batzuek, martirioa ere zerua iristeko bide bat dela jakinik, ez dute eraman nahi horren gurutze astunik. Gainera, Zaratustraren jatorrizko izena Zoroastro izanik, ez dute aintzakotzat hartu nahi izaten Pertsiaiko 'zoro' hark ezkontzari buruz esanik.

Uztarpeko bizimodua gogorra izango da; baina, ait!, ze berekoi bihurtzen diren mutilzaharrak eta neskazaharrak! Antzu dira, egolatra antzu. Bi aldiz antzu, gainera: agor dira, batetik, ondorengorik ez dutelako; agor dira, bestetik, bihotza lehortu eta zekendu ohi zaielako, beste inoren ardura guztizkorik hartu ezean.

Ezkonduak ere egun gorri omen daukate, baldin eta senarra gorra ez bada, eta emaztea itsua. Esan nahi baita emazteak ezikusi egin behar diela senarraren nolabaiteko ibilerei, eta senarrak entzungor egin behar diela emaztearen zipo zorrotzei.

Zuk berriz, irakurle, nahi duzuna egin nire hitz hauekin: nahi baduzu, ezikusia egin; nahi baduzu, entzungor egin. Ez zaizu damutuko inola ere!

Bidezkoak
1995eko urriak 24

Usaina

Maitasuna, gizasemearen eta emakumearen arteko maitasun naturala, itsua dela diote. Ni neu ere, ikusiak ikusi, horretan nago. Nolatan ulertu, bestela, hainbat bikote elkarrenganatu izana?

Beti elkarri begira bizi diren maitaleak ere ba omen dira. Baliteke. Baliteke, ordea, beti elkarri begira egon arren, inoiz ez ikustea batabestearen benetako izaera. Zorioneko itsumena!

Kupido bera ere, bat-bateko maitasuna eragiten omen duen alegiazko gezi-tiratzaille hori ere, begiak estalita irudikatzen ez dute, ba? Eta Cupido ez da kupitzen; itsumustuan erasotzen baitu: begiak lotuta eraso ere, maitaleen begiak lotzeko edo lausotzeko.

Maitasun-ezaugarrien artean, euskaraz ere ohizko ditugu ondorengo esaerok: begi onez ikusi, begi ona erakutsi, begi argia erakutsi, begiko izan, begiko ninia bezain maite izan, bi begiak emateko bezain maite izan, begi samurrez begiratu, begiz jota eduki, begia bete, begi bietatik sartu, maitearen begitik ikusi argia, maitearekin itsututa egon, elkarrenganako itsuturik bizi, maitearengana itsutu...

Ez dira denak indar berekoak, jakina!; baina esaera horiek argi eta garbi erakusten digute elkarren eskutik dabilzala, ustez, maitasuna eta ikusmena.

Ba ote? Zuzena ote da uste hori? Ikusmena ote da maitasunaren giltzarri, begiak izanik sarbide? Hala dirudi; baina usteak erdia ustel.

Zientzi ikertzaile batzuk diotenez, maitasunaren gakoa ez dago ikusmenean; baizik eta usaimenean: alegia, maitasunaren pizgarria ez dela fisika; baizik kimika. Agi danean, sudurzuloetatik sartutako usain jakin bat neurona jakin batzuetara iristean sortzen omen da maitasuna deitzen diogun sentimendu hori.

Harrigarria iruditzen zaizu, irakurle? Ba, egia esan, niri ere bai; baina ez erabat, ni harrituta egoten bainintzen lurrinen kontuarekin. Izan ere, zenbat eta zenbat lurrin, perfume, kolonia eta usain-kenkari (desodorante) dagoen salgai! Eta zertarako dira usain gozo horiek guztiak, ez bada 'bestea' erakartzeko, liluratzeko eta enamoratzeko?

Giza gorputzaren garbitasunerako aski ditugu xaboia eta ura. Edertasunerako, ordea, estimazio kaxkarra du norberaren usain garbi naturalak; badirudi ezinbesteko bihurtzen ari zaigula kosmetika apaingarria: margoak, ikusmenaren engainagarri; lurrin gozoak, usaimenaren engainagarri. Horrelaxe dabil jendea, beti mozorrotuta; eta horrelaxe dabil mundua, beti gezurretan, elkar engainatzen: itxura nagusi.

Usain txarra hartzen nion nik, eta orain badakit zergatik.

Bidezkoak
1995eko urriak 11

Kiratsa

Oso sentibera ote zaitut, irakurle hori? Nazka-bera? Higuinbera? Goragale errazekoa? Horrelakoa baldin bazara, ohartxo bat: sudurzuloak ixtea komeniko zaizu, beharbada, artikulua hau irakurri bitartean; izan ere, hemen aipatzen diren usainak ez baitira lili usaintsuen lurrinak. Barkatuko ahal didazu!

Lurrak badu, zorionez, lili edo loreez gainerako emaitzik: besteak beste, arroza. Japonian, esate baterako, arroza izan omen dute janari nagusi eta ia bakarra mendez mende. Janari bizigarria ez ezik, bestelako etekin ugari ere ateratzen omen zioten arroz-landareari: oinetakoak, euritakoak eta berokiak, etxe barruko hormak, lotarako ohatzeak, papera... Arroza izan ez balitz, Japonia ez omen zen izan ere izango.

Japoniara joan ziren lehenengo europarrak harri eta zur geratu omen ziren bertan topatu zuten zera honekin: ezin ulertu halakoa omen zen ikusmenak eta usaimenak adierazten zietenaren kontraste gogorra. Zer ikusi zuten, ba, haien begiek? Garbitasuna, nonahi! Jende garbi-garbia, kale txukun-txukunak, etxe apain-apainak, herri dotore-dotoreak... Bai aratzak eta maratzak, japoniar guztiak!

Aldi berean, ordea, jasan ezin halako kiratsa omen zegoen lekurik gehienetan: sekulako kaka-usaina, izugarrizkoa! Mandoa bera ere atzeraka botatzeko moduko kiratsa, agi danean. Eta europar haiek ez ziren oso sentiberak usain-kontuetan; baik eta, orduan ohizkoa zenez, urtean bizpahiru aldiz bainatzen zirenetakoak. Japoniarrak, aldiz, astean behin edo sarriago bainatu arren, lasai asko ibiltzen omen ziren, hango kaka-usain itogarri eta nazkagarri hari jaramonik ere egin gabe. Nolatan, baina? Zer zela eta?

Arroza zela eta. Bizi ahal izateko, izan ere, ezinbestekoa zuten arroza; eta arroza ustiatu ahal izateko, nahitaez, ezinbestekoa zuten ongarrria. Horixe zuten bizilegea: simaurrik gabe, arrozik ez; arrozik gabe, bizitzerik ez.

Abere-simaurra, ordea, oso urria izaki Japonian, eta giza simaurra erabili behar, erruz. Bai gogotik erabili ere: orduko japoniarrek iraitzen zuten liseri-hondakin solido guztia ongarritarako izaten omen zuten. Giza gorotza omen zen, gehienbat, simaurgaia. Horregatik halako kiratsa: izugarrizko kaka-usaina!

Orain, jakina!, ez da halakorik; ezta gutxiagorik ere. Halere, japoniarrek asmatu berri dute pastila miragarri bat: kiratsik gabeko gorotza eragiten diona gizonari.

Akabo kaka-usaina! Orain beste pastila bat asmatzea falta: elkar kakaztu gabe eta mundua kakaztu gabe ibilaraztea eragingo diguna.

Bidezkoak
1995eko irailak 19

Jatuna, asea eta gosea

Orixek zena, euskal idazle bikain-aparta, 'sake' handiko gizona omen zen: jatun harrigarria. On Joxe Migel Barandiaran zenak esan zidan afaltzera gonbidatu zuela Orixek behin, biek Ipar Euskal Herrian bizi behar izan zuten garaian. Etxekoandre zeukan iloba Pilar ohartarazi omen zuen: alegia, hiruk adina jaten omen zuela Orixek berak bakarrik, eta hortik ateratzeko afaritarako jakien kontuak. Baita Pilarrek ederki asko hornitu ere mahaia. Beharrik! Kosta omen zitzaien, halere, Orixeren sakea berdintzen. Haren gosea! Ezin asea! On Joxe Migel ehun eta bat urte bizi izan zen, baina ez omen zuen sekula ezagutu Orixek bezain jatunik.

Orixek esana omen, bere buruaz:

Yo no soy hombre; ¡soy hambre!

* *

Urlia, tripazain ospetsua, mutilzaharra bera, haserre izaten omen zen bazkari edo oturuntz handietan. Lasai arraio dastatu nahi bertako jaki goxoak; baina inguruko mahaikideek bakerik ematen ez. Izan ere, emakume artean eseriarazten baitzuten Urlia, eta haiekin berriketan jardun behar, gogoz kontra baike.

Beti horrela ibili beharrez aspertuta, zirt edo zart egitea erabaki zuen. Baita egin ere! Begira zer triki-mailu asmatu zuen bake ederrean gozatzeko janaldia!

Ezkerrean zeukan andreari galdetu zion:

—Ezkondua al zara?

—Bai, jauna.

—Seme-alabarik baduzu?

—Bai, bi: neska-mutilak.

—Eta zeure senarrarenak al dituzu biak?

Emakume hark, haserre, ez zion hitzik ere egin gehiago.

Eskuinean zeukan andreari:

—Ezkondua al zara?

—Bai, jauna.

—Seme-alabarik baduzu?

—Ez.

—Zer tranpa egiten duzu, ba, haurrik ez izateko?

Mutu eta haserre utzi zuen bigarren emakume hura ere.

Hala, aurrez aurre zeukan hirugarren emakumeari:

—Ezkondua al zara?

—Ez, jauna.

—Seme-alabarik baduzu?

Akabo, haren berriketarako gogoak ere! Urliak, orduz geroztik, patxada ederrean dastatu omen zituen sukaldariak maneaturako jaki goxoak.

* * *

Urliaren mauka ederrik ez zitzaion egokitu Xelebreri; gosea bai, sarri! Berak aitortu zidanez, mutil kozkorra zela, gizajoa!, aita hil omen zitzaion,

eta ama bigarrenkoz ezkondu. Baina aitordearekin gaizki etortzen Xelebre, eta hanka egin zuen etxetik: Asteasutik Zarautzera. Han ere zakurrak hankutsik, ordea, eta erabat gaixotzeraino ahuldu omen zen mutikoa (1920. urteko kontuak dituzu, irakurle).

Miserikordia-etxera eraman zuten, eta bertako mojak, larri: tifus zeukala, noski, oso gaitz kutsakorra. Medikuak aztertu omen zuen mutikoa, eta bai azkar asko esan ere:

—Tifus!? Honek ez dauka tifus; baizik ‘triputs’! Emaiozue jaten; horixe besterik ez baitu behar sendatzeko.

Egundaino ez omen diote, geroztik, hain botika atseginik agindu Xelebre gizajoari.

Bidezkoak
1996ko apirila
(argitara gabea)]

Bidezkoak

Izenak eta izanak

Herria da Zubieta

Herria da; ez auzunea edo auzoa, *barrio*. Zubieta herria da; baina ez udalerrria, *municipio*. Zubieta herria da, bere izatez; baita elizerrria ere.

Usurbili dagokionez, beste horrenbeste gertatzen da Aginagarekin ere: herria eta elizerrria da Aginaga; baina ez udalerrria. Hortaz, hiru herri dira Usurbilen: Aginaga, Usurbil eta Zubieta. Hiru herri, baina udalerrri bakarra.

Donostiari dagokionez, berdin: Donostia bera bezain herri da, adibidez, Igeldo; baina ez udalerrri (oraingoz). Astigarraga ere herria izan da beti, eta orain udalerrria ere bada. Baita Lasarte ere.

Euskarak ez ditu nahasten herria eta udalerrria; gaztelaniaz, ordea, *barrio* deitzen zaio, auzoari ez ezik, udalerrri ez den herriari ere, eta hortik dator okerra. Erdarak nahastu dizkigu izenak; ez ahal dizkigu nahastuko izanak!

Auzo hitzak bi esanahi ditu, besteak beste, elkarrengandik bereizi beharrekoak. Batetik, auzoa da herriko kaletik aparte dagoen etxe-multzo bakoitza. Alde horretatik, Zubieta ez da auzoa; izan ere, Zubietak badu bere kalea (plaza, herriko etxea, eliza, estatua, eskola, prostu-etxea, kartzela...) eta baditu bere auzoak (Etxeberri, Iruin, Barrenetxe, Hipodromoa...).

Bigarren adieran, auzoa da herria edo hiria banatzen den zati bakoitza. Banaketa hori, sarritan, nahierako izaten da, zatien arteko berezko mugarik gabekoa. Horretan ere, herria da Zubieta;

berezkoak, jakinak, nabarmenak eta antzinatikoak baititu bere mugak: Oria ibaia, Atxulondoko erreka, Enutoko erreka eta Amiri-erreka.

Urak erakusten du Zubietaren mugapea. Horrek esan nahi du artzantza nagusi zen garaiko mugak dituela Zubietak; alegia, nekazaritza nagusitu aurrekoak, noski. Dakizunez, ibaia zen artzain-herrien arteko muga; eta mendi gailurra, nekazariena.

Zubietak, garai hartan, Zizurkil omen zuen buru; Donostia eta Usurbil, berriz, Hernaniren menpean zeuden. Baina utz ditzagun kontu horiek, aspaldi-aspaldikoak dira eta: Zubieta bera bezain antzinakoak.

Geroztik, auskalo noiztik, Donostiaren eta Usurbilen menpe dago Zubieta. Jakingo duzu, noski, Zubietako elizak bi ate berdin-berdin dituela, biak elkarren ondoan: bata, Donostiaren eskumeneko zubietarrena; bestea, Usurbil parteko zubietarrena.

Zubietarrak dira denak, alde batekoak eta beste-koak, eta horixe da herritasunaren ezaugarri bizia: herriko jende guztiak zubietar aitortzea bere burua. Izan eta izango, administrazioak besterik badio ere. Hor konpon! Paperezko agiri guztien gaintetik dago herri-izaera.

Datorren igandean, abenduak 15, herriko kontzejua osatuko duten sei kontzejalak (hiru eta hiru) aukeratzeko hauteskundeak ditugu Zubietan. Berandu dator demokrazia Zubietara: berandu eta askatasunez urri, xuhur, zeken. Ongi etorria bedi, halere, autonomia apur hori; politikoek ez baitigute emango eurek eskatu adina: besteri eskatu, bai, independentzia edo; baina eurek emateko garaian, eskuzimur.

Ez dakigula gerta bi nagusiren txakurrarena.

Bidezkoak

1996ko abenduak 13

Añorga

Herri-izaera du Añorgak, auzo deitzen badiote ere. Bai, badakigu Donostiako udalak gobernatzen duela; Añorga bera ez baita udalerrria. Baina Añorga, izatez, herria da: badu bere lurralde jakina, baditu bere ohitura eta erakunde bereziak, eta baditu nortasuna ematen dioten seme-alaba herri-maiteak.

Añorgatar bakar bat aipatuko dut, beste guztien ordez: Bidarte baserriko etxeakoandre Anparo. Nortasuna, sendotasuna eta euskal jatortasuna: hortxe dago koxka!

Añorga herria da, beraz, eta herri euskalduna: euskaraz bizi dena, gehienbat. Baditu baserriak, eta badu kalea; badu eliza, eta badu plaza. Baita mendibide ederrak, trenbidea eta joan-etorri handiko errepidea ere.

«Joan-etorri» esapideak bi adiera ditu euskaraz: batetik, jakina, «joan eta etorri» esan nahi du; bestetik, zerbaiten «garrantzia» adierazten du.

Añorgako errepidea bi adiera horietan da joan-etorri handikoa: garrantzitsua da, Norvegiako goiko muturretik hasi eta Gibraltarreraino, Europa osoa zeharkatzen duen errepide nagusiaren bertako zatia delako; eta joan-etorri handikoa da, bestetik, milaka auto, kamioi eta abar ibiltzen delako bertatik, joan eta etorri, etengabe, gau ta egun.

Egunezkoa, behintzat, zorabiatzekoa da: lau errenkadak betean igarotzen dira ibilgailuak, pasa eta pasa, ziztu bizian. Okerrena da errepide horrek erdi-erditik zeharkatzen duela Añorgako kalea: hango arriskua, eta hango zarata sorgortzailea!

Añorgatarrek, ordea, izkintxo egiten diote asfaltozko sugetzar horri! Sugetzarrak altzairuzko odola du; sugetzarrak txistu eta orro egiten du... Baina añorgatarrak ez dira kikiltzen: herritasunari eutsi eta herrigintzan saiatzen dira. Gogotik saiatu ere!

Txalogarria eta eredugarria da Añorgan ikusten dena: zahar eta gazte, neska eta mutil, andre eta gizon... denak elkaturik, eta bakoitza bere nortasun bereziaren jabe. Bai, jakina, Añorgan ere zakurrak hanka hutsik ibiltzen dira; baina kontua honako hau da: Euskal Herriari beste oilar batek joko lioke kukurruku, baldin eta añorgatarrak adina saiatuko bagina herrigintzan.

Agintarien laguntzaren zain egon gabe, añorgatarrek ahalegina egiten dute: futbolariak, pilotariak, dantzariak... Zer ez dute antolatzen? Herriko neska-mutil gehienak zailtzen dituzte, batean ez bada, bestean. Bai gazteak pozik saiatu eta txapelketa ugari irabazi ere!

Hori da herrigintza jatorra! Hori da aberastasuna! Zorionak añorgatar guztioi! Zorionak, bereziki, bertako dantzarien zuzendaria eta maisua den Joxema Mendiolari! Bejondeizula, Añorga!

Bidezkoak
1994ko ekainak 7

Ijitoak

Aspaldi samar ikasi nuenez, 'ijito' hitza Egipto hitzaren aldaera da. Dirudienez, kasta ibiltari edo alderrai horretako jendea Egipto aldetik zetorrela uste zen. Euskal Herritik kanpora ere antzeko ustea izango zen; 'Faraona' deitzen baitiote Espainiako Lola nagusiari. Antropologoek diotenez, ordea, Indiatik etorriak dira Europa aldera, XV. mende hasieran etorri ere.

'Hungriano' ere deitzen zien euskal jendeak, eta horregatik kantatuko da, beharbada, *Caldereros somos de la Hungria, que venimos a San Sebastian* delakoa. Egia esan, bestela ere bada Donostian nahikoa ijito, Hungariatik etortzen ibili beharrik gabe.

Ijitoek sekulako estimazioa omen diote inoren oiloari. Beharrak irakatsita, nonbait, Txirritak kantatutako elurte ikaragarri hartan amona jan zuteenez geroztik. (Gogor samarra omen zegoen, gajoa!) Esaera ere bada: *Ijito arteko oiloak baino gutxiago iraun*. Zerbait izango da, baserri inguruan ijito-hotsa entzun orduko presaka ezkututzen omen zituzten oiloak eta.

Gogoan dut Aranoko tabernan behinola ikusi nuena. Egutegi bi zeuden horman zintzilik: batean ijitoa ageri zen, eta bestean, aberea. Tabernari bizkorrak ederki antolatuta zeuzkan irudiok: ijitoa zaldiari begira jarrita zeukan; zaldia, berriz, ijitoari

begira izututa ageri zen, atzeko hanka gainean zutik. Horra garbi asko adierazia hitzik gabeko mezua: ijitoa, lapurra!

Lapur-sona badute bai, ijitoek! Eta ongi merezia, jende askoren ustez. Hori dela eta, 'ijitokeria' ere esaten da euskaraz maltzurkeria adierazteko. Baina ez dakit non sortzen den lapur gehiago: 'ijito zuri' artean ala ijito beltzen artean. Egia esan, ijitoek ez dute guk adina aukera izaten lapurretarako; ijito beltzen artean ez baita banketxeko zuzendaririk, ez konderik* eta ez dukerik**.

Horregatik edo, kultur aldaketa nabarmena gertatu da gure artean: ijitoei baino beldur handiagoa diegu, besteak beste, Haziendako begiraleei.

Duela urte gutxi, zer harrapatuko sartu zitzaizkigun (ijitoak, ez Haziendakoak) etxe barruraino. Soinean zazpi mantalurreko zeramatzan atso ipurtaundi bat buru zutela sartu ziren, baina etxeko amona erne ibilki, eta esku hutsik aldegin behar izan zuten. Bestela ere ez zuten askorik eramango, noski!

Atzo ere hemen genituen; eskean, ordea. Haie-tako batek, bederatzi urteko neskatxa garbiak, zer eskatuko eta... gure alabatxoa, bost hilabeteko haurtxoa emateko, ongi zainduko zutela eta gure Arantzazu Argi.

Gaur egungo euskaldunok ez ditugu horrenbeste estimatzen haurrak!

Bidezkoak
1994ko apirilak 12

* Mario Conde, BANESTO banketxeko nagusi iruzurtia.

** Duque de Feria, Grande de España, haur-galtzaile kriminala.

Mamuak

Berastegin, gauez, oihu izugarriak entzuten omen dira hainbat baserri eta borda inguruetan, eta inortxok ere ez omen daki nork edo zerk egiten dituen.

Albiste hori iritsi zitzaidanean, zera pentsatu nuen: autobidea egiten ari diren honetan, bazterrak harrotuko zitiaten eta, agian, mamuren baten egoitza hondatu ere bai. Mamua aztoratuta ibiliko duk, noski, orduz geroztik, eta, orain, berastegiarrek nozitu behar haren haserrea.

Inortxok ere ez omen du ikusi delako mamu hori. Ez dakigu, beraz, maindire batean bildurik edota kateak arrastaka ote dabilen ere. Itxura bel-durgarrizko izakia ote da? Beste mundutik itzultakoren bat? Naturaz gairdiko agerraldiak eginaz dabilen hildakoren bat?

Baliteke, bai, arima erratu horietako bat izatea. Lehen ere agertzen omen ziren Garbitokitik irten eta Zeruan sartzeko laguntza eske: euren aldeko otoitz eske, alegia. Zerura joan artean, teilatu ertzeko itukin edo itaxurean egoten omen ziren batzuk; beste batzuk, bideetan; eta beste batzuk, berriz, hil ziren gela berean.

Garai txarrak dira hauek, ordea, arima erra-tuentzat! Itukinik ez dute aurkituko, ia; kanaloiak

jartzen baitira teilatuko urak biltzeko. Bideetan ere ez dute giro: batetik, dabilen adina auto dabilelako; eta, bestetik, ertzainen batek 'dultzaina jotzen' jarriko lituzkeelako, agian, zurruteroak bailiran. Hildakoen gelak, berriz, aire demonio! pintatu eta eraberritzen dira, ahalegina, heriotzaren aztarnak ezkutatu nahirik.

Okerrena besterik da, ordea, arima erratuen kaltean: alegia, badaudela puska baterako, baldin eta euren guraso, seme-alaba, ahaide edota lagunak otoitzen zain badaude. Izan ere, otoitz egitea baino erosoagoa da, nonbait, azaroan mila duroren loreak eroستا, kanposantuko hilobia apaintzeko. Badaude puska baterako, beraz, arima erratuok; horregatik ibiliko dira, apika, oihi izugarriak eginaz.

Nolanahi ere, baliteke bestelako mamu-motaren batekoa izatea Berastegin omen dabilen hori: txoropitoren bat, alegia. Edo, okerragoa litzatekeena, txorogaiztoren bat.

Hala balitz, konponbide samurra dute berastegiarrek, baldin eta lehen bezain lasai lo egin nahi badute: ostiral gau batez, hirira bidal dezatela dena delako mamu hori. Ez zaie osterata itzuliko, ez! Donostian, adibidez, erraz aurkituko du, zahar eta gazte, nork bere itzala galduta bezala, mamuen gisa beretsuan bizi den jendea: egunez, itxura huts; gauez, oihi larri. Horietxek izango dira, noski, garaiotako arima erratuak. Mamu horiek, ordea, ez dute beldurrik ematen; pena baizik.

Bidezkoak
1994ko maiatzak 24

Biblia

Berri pozgarria oraingoa: *Elizen Arteko Biblia* argitara berri dute. Lan mamitsu horixe dugu euskara batuan egindako lehen Biblia osoa. Zorioneko gaude, beraz, eta itzultzaileekiko esker onez. Zorionak beraiei ere!

Dagoeneko 430 urte iragan dira (1564–1994) lehenengo euskal itzulpena egin zenez geroztik. Laurehun eta hogeita hamar urte: azkar esaten da. Joanes Leizarragaren lan hura, ordea, ez zen Biblia osoa; *Testamentu Berria* besterik ez baitzuen itzuli. Franko egin zuen, halere.

Bost dira osorik euskaratutako Bibliak: Duvoisin kapitainarena, 1865ean argitaratua; Uriartek garai beretsuan itzuli eta egundaino argitaratu gabea; Olabiderena, 1958an argitaratua; Kerexetarena, 1976an argitaratua; eta aurtengo 1994ko hau, *Elizen Arteko Biblia*.

Bereziki pozgarria da lan berri honen argitalpena. Biblia osoa, alajaina!, eskaintzen zaigu euskaldun guztioi, kristau nahiz jentil. Biblia osorik egun-egungo euskarara moldatua daukagu, jadanik, euskaltzale guztiok.

Biblia da, zalantzarik gabe, gehien itzulitako liburua: ia mila eta zazpiehun hizkuntza ezberdinetara itzulia da. Milaka itzultzaile ari izan da Biblia

itzultzen; ehundaka dira gaur egun ere, oraintxe ere, zeregin horretan ari direnak buru-belarri: hainbat mendetako lanak ematen duen eskarmentuaz ari ere.

Biblia da, zalantzarik gabe, itzulpenaren leialtasunaz ardura gehien eskatzen duen liburua. Badakizue zergatik: Jainkoaren Hitzza delako fededunentzat. Leialtasunaren garrantzia, beraz, etikaren eta estetikaren arazoa baino areagokoa da Biblia itzultzeko orduan. Horrexegatik, hain zuzen, Bibliaren itzulpena izaten da azterketa sakonenak eta kritika zorrotzenak gainditu behar izaten dituena.

Arrazoi jakingarriak ditugu horiek denak: ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula. Pentsa zer lan erraldoia egin behar izan duten Biblia euskaraz eman digutenek: lanaren mardula ere halakoxea izaki. Mila esker, beraz, Dionisio Amundaraini eta lan-talde osoari.

Lazkaoko beneditarrak ere pozik izango dira, noski; euren monastegia izan baita, gehienbat, itzulpen-taldearen lantoki eta biltoki. Horrez gainera, Lazkaoko bertako lekaidetik ere aritu da, hasi eta buka, lan horren eginkizunik nagusienez arduratu den taldean: Enrike Zabala, esate baterako.

Biblia euskaratzea dela eta, beste bi beneditar ere aipatu behar ditut hemen: Agustin Apaolaza eta Martzel Etchehandy. Hauek bakarka ari dira lanean, bata Estibalitzen eta bestea Beloken. Agur eta adore biei; eta goraintziak denei.

Bidezkoak
1994ko ekainak 14

Autobidea

Beterritik Goierrira ibilia nauzue oraindik orain, eguneroko lanerako joan-etorrian. Garai batean baino herri politagoa aurkitu dut Beasain: hamaikatxo lan egin dute herria txukundu eta dotoretzen. Ezagun du apainean. Lastima, ibaiaren zikina!

CAF delako fabrika handi horrek ere ederki ematen du koloretako soineko berriaz. Badirudi krisiaren negu gorria atzean utzi eta udaberri oparoan dabilela.

Beasaindarrak, berriz, beti bezain atseginak. Esker onez aipatu nahi ditut, adibidez, eguneroko bazkaria goxo eta moduz ematen ziguten *Rubiorena* jatetxeoak; eta bereziki, Mari Karmen Imaz, bertako etxeoandre prestua.

Autobideaz hitz egin behar dut, ordea: aipatu, bederen.

Haurtxo nintzenean, mundua Ataunen bukatzen zela uste nuen; bertaraino eramaten baigintuen, urrutienik ere, amak: Ataun San Martingo Aiztondo baserrira. Ez ginen berehalakoan iristen *La Estelle*-sa delako autobus haietan! Urruti egiten zitzaidan Ataun; gaur bezain gertu zegoen arren. Errepideak ere halakoxeak ziren: patxadaz ibili beharrekoak, nahitanahiez. Baina orduan haurra nintzen eta denboraren hariak amaigabea zirudien.

Hamabost urte beranduago, ordurako aspaldi ohartuegia nintzen heriok eteten duela denboraren haria. Artean sasoiko gaztea izaki eta, amorragarri hutsa iruditzen zitzaidan hainbeste denbora galdu behar izana Donostiatik Tolosarako errepidean; ibilian baino denbora gehiago ematen baigenuen egonean! Noiznahi, barea baino makalagoko kotxe-ilarak; edozein huskeriagatik, Garizuma baino luzeagoko berebil-errenkadak... Hango haserreak! Hango tutu-hotsak eta gorri-soinuak! Hango istripuak eta matxurak!

Zabaldu eta eraberritu zuten, noizpaitean, errepide hori. Premia ederra zeukan! Lasaitu ederra hartu genuen... Tolosaraino bakarrik joan behar izanez gero! Handik aurrerakoa, izan ere, ez baitzen aitaren batean egiteko bidea. Noizko aurreratu kamioitzarrak, esate baterako, Ikaztegieta, Legorreta eta Itsasondo alde horietan? Errepidea zela medio, zenbat neke eta nahigabe ez ote zuen jasan herri horietako jendeak!

Alde ederreko autobidea dago orain, alde ederrekoa dagoenez: txukuna, zabala, eroso, airosoa, segurua... eta ezer ordaindu beharrik gabekoa! Dohainik ibili ahal izate hori ez da txantxa, gero; Bilborako autopistako bidesariak lapurreta bizia baitirudi!

Nabarmenak dira Goierrirako autobide horren mesedeak: goizean, loaren orratzak kendu orduko jotzen genuen Beasain; ilunabarrean, berehalaxe iristen ginen etxera langile nekatuok. Eskertzekoa da, benetan, herri-lanetan ikusten den aurrerapena!

Bidezkoak
1994ko ekainak 21

Ekain

Ekain honetan bete dira 25 urte. 1969an, hain zuzen ere, Albizuri eta Rezabal azpeitiarrek antzinatik ezkutuan egondako altxorra aurkitu zuten: Ekain deritzon haitzuloa.

Ekain, berez, kobazulo horren gainean dagoen muino edo menditxoaren izena da. Debako udalerriari dagokio, baina Zestoatik dago gertuen: herri-tik kilometro pasatxora, Sastarrain baserriaren alboan.

Haitzulo horretantxe azaldu ziren egundalako pintura ederrak eta harrian landutako irudi bikai-nak. Ez gutxi ere: 33 zaldi, 10 bisonte, 4 ahuntz, 2 orein, 2 hartz eta 2 arrain. Denak ere, zein baino zein dotoreago; denak ere, duela hamar mila urte baino lehenagoko euskaldunen artelan. Eta haitzu-loaren ederra!

Duela bost urte ezagutu nuen nik; 1989an bos-pat ordu eman baintuen, lankide batzuekin batera, historiaurreko katedrale horren barruan. Lehorte handia zen urte hartan, eta barrualdeko errekatxo-a erabat agortua zen, zorionez. Lurzorua oso irristakorra zegoen, halere. Nik, behintzat, labaindu eta kaskarreko bat hartu nuen: buruko izarrari dagokion leku berean, hain zuzen ere. Buruko iza-rra edo koroa delako gunetxo hori omen da gizon-a-ren barruko ardatzak zerurantz duen irtenbidea,

eta, beraz, ezin egokiagoa iruditu zitzaidan bertako odol-ttanta batzuk isuri beharra sarrerako ordain-sari gisa.

Ekain eta bertako pintura eta grabatuak, izan ere, antzinateko euskaldunen mundu izpiritualaren ezaugarri baitira. Artelanen maisutasunaz gainera, badugu beste adierazgarri bat ere: *Ekain* deritzon hartzulo hori *ekain* deritzon hilabetean bakarrik erabiltzen omen zuten! Harrigarria!

Arantzadi Elkarteko jakitunek frogatu zutenek, Ekaingo haitzuloko ataria edo sarrera aldea bakarrik erabiltzen zuten bizitzeko; barrualde eder guztia, berriz, *rito* edo ohikuneak ospatzeko. Ekaindik, oinez, ordubeteko bidean dagoen Itziarko Urtiaga deritzon haitzuloan bizi ziren, agi danean, Ekainera ekainean bakarrik etortzen omen ziren euskaldun haiek. Ez da mirari txikia *Ekain* izenari eutsi izana hainbeste milaka urteren buruan! Horra euskararen gordailuko bitxi bat azaldu!

Garai hartako pago eta gaztainondoen lore-hautsa ere agertu zen bertan. Ez zen huskeria; antzinako lore-hauts hari esker frogatu baitzuten zuhaitz-mota horiek Euskal Herrikoak bertakoak direla, eta ez erromatarrek ekarriak.

Ordu erdiren bat pasa nuen bakar-bakarrik Ekaingo haitzuloaren barren-barrenean: hango isiltasuna eta hango iluntasuna! Hantxe ezagutu nuen zer den erabateko isiltasuna eta erabateko ilunbea. Ez zait berehalakoan ahaztuko bizikizun zoragarri hura!

Bidezkoak
1994ko ekainak 28

Agur t' erdi, Ixabel!

Santa Ixabel egunean bildu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Egun berorren ardatzean ospatzen dira Usurbilgo herri-jaiak ere: Santixabelak. Usurbilen ikusiak, batetik, eta Oñatin gertatuak, bestetik, zera eman didate aditzera: emakumeak indarrean daudela, alegia, lehengoaz gain.

Istilurik eta arazo larririk gabe erabaki omen ziren, aspaldiko partez, Batzar Nagusi horietan erabaki beharrekoak: elkartasunean, beraz, aurrez hiztarmendutako adostasunari esker. Bazen garaia!

Beti izaten dugu zerbaiten okerra, ordea; baita Oñatiko bilera horretan ere: batzarkideen arteko lau emakumek gaitzetsi egin zuten, agi danean, bilera amaitzean *Agur, jaunak!* delako doinua jotzea, eta eskatu zuten, gainera, galtzera uzteko ohi-tura hori. Zergatik? Ba, *Agur, jaunak!* esanaz ez omen direlako aintzakotzat hartzen emakumeak.

Korapilo txikia da hori, baina askatu egin behar-ko da, ahalegina, alde batekoak eta bestekoak egoskortzen hasi baino lehen; harri-koxkorrik txikiena ere behaztoparri izaten baitugu, sarri, euskaldunok. Korapilo horrek, zorionez, oso txibista edo begizta samurra duela dirudi. Batetik, izenburua aldatu behar-ko litzaioke doinuari; bestetik, nahikoa litzateke apur bat egokitzea kantuari letra.

Agur t'erdii!

*Agur t'erdii,
jaun-andreak!
Agur t'erdii!*

Ez dago zaila hortik aurrerakoaren moldaketa ere. Horra maratila samurra, merkea eta egokia (ustez) katramila horrentzat! Tamalgarria litzateke, izan ere, hainbat ospakizun ofizialetarako daukagun agur eder hori galtzea; tamalgarria, herriak beretzat daukan doinu polita ahaztea; tamalgarria, kostata lortutakoa bertan behera uztea.

Tamalgarria da Usurbilgo aitonarena ere. Haur nintzen aspaldi hartatik ezagutzen dut; baita beti alboan duen amona ere. Orduan aitona-amonak ziren, eta orain ere bai; orduan mirestu egiten nituen, orain ez bezala. Santixabeletan ikusten nituen beti, herriko jaietan, eta beti elkarrekin dantzari: apain-dotore jantzita biak, zein baino zein airosogo, zein baino zein alaiago, zein baino zein tantaiaigo...

Baina zahartu egin dira, eta aitonak ezagun du: koloreak maskaldu, hankak ahuldu, arropak zarpaildu... Papiak jota dabil, txapela bete zulo.

Amona, ordea, txoralda antzean dabil: gona laburragoz, eskotea zabalik... Bai amona bulartsua! Nabarmen alaena! Hego-haizea ote dabil beraren kartoizko buruan?

Hots! Horrako aitona-amonok jaietako erraldoiak edo gizandiak dira: aitona oso zabar janzten dute; amona, berriz, pertxenta.

Ai, Ixabel, Ixabel; Ixabel nirea!

Garaian garaikoak, irakurle: emakumeen txanda dugu, dirudienez, oraingoa.

Bidezkoak
1994ko uztailak 12

Andatzarrate

Asteasutik Aiarako errepidean dagoen mendateari deritzo Andazarrate, eta gain hartan dagoen Asteasuko auzoari.

Joxe Mari Lertxundi beste iritzi batekoa da, ordea, izen horri dagokionez; eta ni neu ere ez nago erabat konforme Andazarrate izenarekin. Azal ditzadan, ba, gu bion iritziak, inork aditu nahi balitu ere.

Aiar jatorra duzu, jatorrik bada, Joxe Mari Lertxundi: bertsolari trebea, Laurgaingo parke naturaleko basozaina, solaskide atsegina, euskaldun jatorra eta gizalegeko gizona. Eta hori gutxi balitz, idazteari ere ekin zion; baita euskara bizi asko dantzatu eta hamaika kontu jakingarri argitaratu ere Ernio, Iturriotz, Pagoeta, Aia eta ingurumari horietako berri emanaz. Bejondeizula, Joxe Mari!

Auspoa sailean argitaratu zuen *Igaroari begira* liburuan (54-56. orrialdeetan) irakurri berri dut zein den eta nola sortu zen, Lertxundiren ustez, aztergai dugun izena. Hauxe dio:

... gaur bizi izatera urte askoren jabe bear zuten bi gizoni entzun nienez, Andatz-zarate du bere izena.

Andatza (mendiaren izena) eta Zarate (benta baten izena) elkartze hori, bi gizon haiek Lertxundiri esan ziotenez, kontrabandisten kontua da:

... Andatz-zaraten biltzen omen ziran; eta an, borda baten ondoan, arri lauki bat omen zuten, alde batean Andatz eta bestean Zarate jartzen zuana (...) zein tokitan biltzea komeni zitzairen, izen ura bistan zuala jartzen omen zuan [nagusiak] zalako arri ura: batzuetan Andatz eta besteetan Zarate (...) Andatz-zarate izen ori orrelaxe sortu zan.

Barkatu, Joxe Mari; baina, oso oker ez banago, bi gizon haiek —zuzen zeudelakoan, noski— kontrabandoan sartu zizuten izen hori.

Andatzarrate da, nire ustez, Andazarrateren benetako izen osoa, eta izen horren jatorria aspaldi-aspaldikoa da: kontrabandistak sortu baino askoz lehenagokoa. Izen jatorrak bi zati ditu: *Andatza* eta *arrate*, eta biak elkartzetik dator *Andatzarrate*.

Andatza Usurbilgo mendia da. Baina ahaztu ote zaigu zer esan nahi duen *arrate* hitzak? Ba, besteak beste, erdarazko *puerto de montaña*; alegia, gaur egun *harrate* idatzi edota *mendate* deitzen diogun hori: *mendi arteko igarobidea*. Eta horixe da, ba, *Andatzarrate*: *Andatza*(ra)ko *harrate*a.

Hona, Joxe Mari, zure izen bereko nire semeak errezitatu ohi duen oinezko bide zaharra (Usurbildik Tolosarako bidea, noski):

Zear-zear, Ermotei;
arriba-arriba, Puela;
mando-arrasto, perra-arrasto, Ziortza;
andik aurreraxio, Zarate;
belaxe, Billabonan zerate.

Ala, bestela, berehalaxe *Andatzarraten* zarete, *Erniorako* bidean.

Bidezkoak
1995eko martxoak 7

Leku-izenak

Andatzarrate izena gai hartuta idatzi nuen duela hiru aste. Artikulu hura ontzat hartu zuen irakurle baten karta argitara zen, joan den ostegunean, **DV** honetan; eta karta horrexek eman dit hizpide gaurkorako.

Fernando de Bourthoumieu donostiarra da kartagile hori, nire euskara *sencillo y claro* dela dioena. Milesker. Baina dio —eta beste kontu hau ez da ez samurra eta ez argia— Usurbil izena *hezur* eta *bil* elkartzetik sortutako *hezurbil* (lugar de recogida de cadáveres) ote den; ala, bestela, *uso* eta *hurbil* elkartzetik ote datorren *usurbil* (junto a la palomera) izena. Nire iritzi laburrerako, ez bata ez bestea.

Usurbil izena *urbil* edo *ur bildu* jatorrikoa ote delakoan nago; baina, neu usurbiltarra naizen arren, ez dakit ziur.

Zubieta izenak bi zati ditu: *zubi* izena eta *-eta* ugaritasuna adierazten duen atzizkia. Hauxe da, bistan denez, Zubieta izenaren esanahia: zubi-multzoa. Halaxe da, izan ere; lau zubi baititu gaur egun, Erdi Aroan egindako Aliriko zubia eta Zorroztako zubia barne. Bi zubion egileei zor die izena eta, batez ere, izana edo sorrera Zubieta herriak.

Aginaga izenak ere bi zati ditu: *hagin* izena eta *-aga* ugaritasuna adierazten duen atzizkia. Hagina

zuhaitz-mota bat da: hosto iraunkorra du (pozoitsua), fruitu gorria, eta zura, berriz, gogorra eta ona. Bertan hagin ugari zegoelako dauka, noski, Aginaga izena. Gipuzkoako armarriko hiru zuhaitzak haginak dira (gaztelaniaz, *tejo*).

Lasarte izena *lats* hitzetik dator: *lats* horrek *erreak* esan nahi du. Jakina da *lats* arteko herria zela Lasarte, eta *uharte* ugari zuena, *erreak* artean. Ez dauka urruti **Errekalde**.

Igara izenak *errot*a esan nahi du. Oso izen zaharra da: latinetik *rota* (gurpila) hartu aurretikoa. Baina Donostiako auzoaren izen hori errotatik ote dator ala igarogune izatetik?

Aintzi Aginagako baserria da, eta izena *aintzira* hitzaren laburpena du. *Aintzira*, dakizunez, ur geldizko putzu handi samarra da. Horrelako baten gertuan egotetik datorkio izena *Aintzira* baserriari.

Nik uste nuen *aintzira* hitza ez zela gipuzkera; baina oker nengoen. Oker dago *baranoan* hitza Zuberoakoa bakarrik dela dioena ere; gipuzkeraz ere erabiltzen baita *baranoan*, hain zuzen, *inguruan* hitzaren esanahi berbera duela. Beste horrenbeste gertatzen da *hiro(tu)* aditzarekin ere.

Beraz, kontuz ibili behar da leku-izenen aztarrenak ateratzerakoan. Ez dakizula gerta **Andoain** aditu, bertara joan eta ordaindu nahi ez izatea; berehala ikusiko baituzu herri hura ez dela *han dohain*.

Txantxak alde batera utzita, hona misterio bat: Usurbilen badira aspalditiko hiru etxe **Paris**, **Troia** eta **Babilonia** izenekoak. Pozik ikasiko nuke hiru izen hain ospetsu horiek hemen aurkitzearen zergatia!

Bidezkoak

1995eko martxoak 28

Jaunaren deia

J*aunaren deia* hau izenburu bat duzu, irakurle; aldizkari baten izena da eta. Zehatzago esanda, hainbat monastegi (beneditar eta zister) elkartu ziren aldizkari hau atera eta euren berri argitara emateko: Gipuzkoan, Lazkaoko biak eta Oñatikoa; Araban, Oion-goa eta Estibalizkoa; eta Bizkaian, Ziortza edo Zenarruzakoa.

Monastegien aldizkaria da, beraz, *Jaunaren deia* izeneko hau. Baina ez da, zoritxarrez, euskal monastegi guztiena: beneditarretan, adibidez, Nafarroako Leire eta Alzuza falta dira eta Lapurdiko Belokeko biak. Izan ere, normala denez, monastegietan ere bai baitira hizkuntz politika arazoak.

Duela hamar-hamaika urte, gizasemeen monastegi bateko buru egiten zuen abadeak zera esan zidan euskara garbian:

—Euskaltzalea nauzu oso; horregatik, ni abade naukaten artean, monastegiko lekaide erdaldunen alde jokatu eta erdara nagusitzen uzteko eskatzen dit karitateak.

—Baina —esan nion nik— zure ondoren abade erdaldun bat badator, uste al duzu hark euskararen eta lekaide euskaldunen alde jokatuko duela karitatearen izenean?

Handik bigarren urtera jaso nuen erantzuna: abadea aldatu egin zuten eta berria izendatu, erdal-

duna berau. Abade berri horrek, karitatearen izenean, lehengoak bezala jokatu zuen: alegia, euskararen aurka.

Mingarria da zuzentasunari iruzur egite hori, aldez edo moldez, karitatearen izenean.

Pozgarria da, ordea, gauzak behar bezala ulerzen dituzten monastegietako batasun gozoa ikustea: beneditarretan, adibidez, Lazkaoko gizasemeak eta Oñatiko emakumeak aipatu eta goraipatu nahi ditut. Urte asko daramate, alai eta sendo, euskalgintzako ahalegin etengabeen: irakaskuntzan, liburugintzan, kantuan...

Kantu gregorianoa euskaraz egiten dutela jakingo duzu, ba, irakurle? Urteak dira! Oñatiko lekai beneditarren kantua, behintzat, zoragarria da; ezta moja horiek aingerukiak balira ere, aizu! Zoaz, zoaz entzutera Aste Santu honetan; ez zaizu damutuko, ez! Gainera, bai bertan eta bai beste edozein monastegitan pozik zabalduko dizute atea: etxeko bezala hartuko zaituzte.

Baina natorren izenburuko gaiera: *Jaunaren deia* aldizkarira. Ohi duenez, elebiduna da: euskaraz eta gazteleraz dator, erdi eta erdi edo; eta itzulpenik gabe. Oraingo hau ekitaldi berriko 10. alea da, eta bertako irakurgaietatik bat azpimarratuko dut: Aralarko San Migeli buruzkoa. Lan mardula da (15 orrialde) eta euskara garbian dator. Berorren egile Errupin Muxikak ezagun du, bai, Aralar maite duena. Bejondeiola!

Bidezkoak
1995eko apirilak 11

Aralarko hiru piztiak

Zalaparta ugari sortu du aurrenekoak; nahiz eta bera isilka ibili, ezkutuan gorde eta ihesi joan. Otsoaz ari naiz, jakina: joan den udaberrian, aspaldi-aspaldiko partez eta batere ustekabean Aralar mendian agertu omen den otsoaz.

Agertu esatea gehitxo esatea izango da, noski; otsoa bera ez baitzen inon ageri. Artzainek eta basozainek hamaika aztarrika egin omen dute piztia horren bila; baina alferrik: bila eta bila ibili arren, ez omen dute aurkitu. Topatu, berriz, ez topatzea hobe; batere ustekabean otsoarekin topo egitea ez baita atsegina izango, atsekabea baizik.

Edonor atsekabetzeko moduko kalteak eta pikardiak egin omen ditu otsoak: arkazteak hil, moxalak akabatu, ardiak antzutzeraino izutu... Halere, ikaragarrizko okerrik egin baino lehen alde egin omen du, eta hala hobe: lasaitu ederra hartuko zuten artzainek eta abeltzainek.

Otsoa sumatu orduko, zakurrak ere umil asko ibili omen dira, uzkur eta koldar, zaunkak eta desafioak ahaztuta, baztertutako zakur potxolo bezala. Artzakurrak izaki, noski; ez artzanorak.

Aralarko sarraski-arrastoak, odol-zantzuak, bortxa-aztarnak... Otsoa izan dugu modako hizpide.

Ikusi, inork ez du ikusi; baina denok ere aztoratuta ibili gara piztia hori dela eta. Zergatik ote? Dagoeneko aldegin omen du, bai, Aralar menditik, eta bake ederra eman du (oraingoz).

Sugea dugu Aralarko bigarren piztia, ataundarren batek ikusi omen duen sugetzarra: hiru metro luze eta ia kana-laurdena lodi. Ezta herensuge berria balitz ere! San Migelek ezpata dantzatu beharko ote du berriro?

Sugetzarra ikusi zuenak eskopeta aldean eraman izan balu, tiroz jo eta akabatuko omen zukeen piztia hori; baina esku hutsik egokitu gizona, makila beste lagunik ez zuela, eta atzera egin omen zuen. Ez da harrizkoa atzera egin beharra; halako topaketak atzerakoa ez ezik beherakoa ere eragingo zion zenbaiti!

Ataundar hori, ordea, menditar zaildua izaki eta sugeen berri jakitun dagoena: asko ikusitakoa, nonbait. Ez, horratik, sugetzar hori bezalakorik! Egundo horrelakorik! Neurritz kanpokoa izateaz gainera, ba omen du beste ezaugarri bitxi bat: hiruzpalau zentimetroko orin bat lepagainean.

Asmatuko nuke sugetzar horren nondik norakoa. Diruzaleren batek ekarriko zuen (sugea, artean, txikia zela) Amerikatik edo. Sasi-ekologistaren batek erosi egingo zion animalia bitxi hori. Gero, denbora joan ahalean, piztia hazi eta hazi egingo zen jabea izutzeraino; eta honek, azkenean, Aralar aldean libratuko zuen «Hor konpon!» esanda. Txoroa alaena!

Aralarko hirugarren piztia txorogaiztoa da: piztia (anima apartatuta) ugaria eta kaltegarria. Lehen, Igaratzako lizar gazteak hautsi zituzten; orain, aldiz, bertako ermitan egin dituzte txikizioak; hurrena, berriz...

Otsoek eta sugeek senez, halabeharrez eta ezinbestean egiten dute kalte; txorogaizto laineztu horiek, gogoak ematen dielako eta gogoak ematen dienean.

Hiru piztia-mota horietatik, zein da okerrena? Zer deritzozu?

Bidezkoak
1996ko uztaileko bigarren astea

Bidezkoak

Gizabanakoak

Oteiza ez da jainko txikia

Ez naiz tamal-aieneka hasiko hainbat disziplina artistikok, hitza traszenditzen dutela aitzakia harturik, euskarari bizkarra erakutsi diotelako; hori gure historiaren gaitz endemikoa baita (ez Neguriko burgesiarena bakarrik, alafede!). Gure arteak ere, pintzelak eta partiturak utzi eta hitz egin behar izan duenean, ez ditu euskaraz adierazi (hausnartu) bere desosegu eta desegokitasun estetiko-existentzialak. Horra Oteizaren kasua: euskal arima estetikoa ikertu nahi, eta gaztelaniaz aztertu du; cromlech garaiko indokumentazio berbalak ez baitio gatazka linguistikorik sortzen. Aitzitik: posible da euskararen mistifikazio estetikoa gaztelaniatik abiaturik egitea. Orduko euskara hura (?) zen eredu. Gaurkoa orduko haren aztarnak kontserbatzen dituen neurri soilean interesatzen zaio, eredia beste nonbait (gaztelaniaz) baitago. (...) Ez da arazoak saihesteko (burua inor baino euskaldunagotzat aurkezteko) modu kaskarra.

Andu Lertxundi ageri zaigu hor, iritziemaile. Bete-betean asmatu duelakoan nago; neuk ere ondoren azalduko dudan eten larria ikusten baitut, sarri askotan, amildegi gisa. O, 'baina' madarikatua!

Egia da, bai, artista-jendeak bihotzez maite duela euskara; baina erdaraz nekatzen burua.

Egia da, bai, aurpegia atera dutela euskararen alde; baina bizkar eman euskarari berari.

Egia da euskarari buruzko adierazpenak egiten dituztela; baina ez artegintzatik euskalgintzarako

ekarpen teoriko adierazgarririk (salbuespenak salbu: batez ere, Oteizaren zorioneko *Quousque tandem*).

Egia da, gainera, Oteizaren ekarpen teoriko horiek oso aberasgarri ditugula euskaingintzarako (besteak beste); baina ahaztuxea daukagu On Manuel Lekuona izan zuela maisu alor horretan. Izan ere, Lekuonak irakatsi zion oinarrizkoena: hizkuntza idatziaren lege klasikoak erabat okerrak direla herri-literatura epaitzeko orduan.

Egia da, bai, erdaraz ere erabil daitekeela euskal estiloa (Pio Baroja) edota euskararen estetika metafisikoa aztertu eta azaldu (Oteiza); baina oso motza deritzot jokabide horri: *Gaurko asea, biharko gosea*. Izan ere, bere erroetan sustraitu gabeko zuhaitzak ez baitu fruitu ugari ematen, ez luzaroan bizirik irauten.

Egia da, bestalde, antzinako euskara dela Oteizaren gogo beteko, eta gaurkoa, aspaldiko haren hondakin hutsala; baina gezurra ere badirudi museoko zaharriak gaitzesten dituen horrek euskara batu biziaren alde egin ez izanak. Aitzakia izango du, noski; Oteizak ez baitaki euskaraz hitz egiten. Horretan, artista hori baino bizkorragotzat daukat edozein euskaldunberri.

Egia da, nire iritzian, hori guztia; baina, halere, bihotzez maite dut Oteiza. Ez, ordea, Jorje erretxin eta pipertua; gogaikarria bihurtzen baita bere burua jainko txikitat daukanaren gizalegerik eza.

Egia da, hortaz (zenbaitek besterik uste badu ere), nik ez dudala jainko txikitat hartzen Oteiza; baina argi eta garbi adierazi nahi dut urre gorria baino baliosagotzat daukadala euskal kulturari egin dion ekarpena. Agur eta ohore, beraz, Zarautzko oriotarrari.

Bidezkoak
1996ko maiatzak 3

Aresti, igarle

Aurten hogei urte hil zen Gabriel Aresti, idazle eta poeta bizkaitarra, harrizko herri hau euskaraz landu eta aitaren etxea defenditu zuen gizon bikaina.

Otsoen kontra, sikatearen kontra, lukurreriaren kontra defenditu zuen aitaren etxea. Galdu zituen aziendak, soloak, pinudiak, korrituak, errentak eta interesak; baina defenditu egin zuen aitaren etxea. Armarik gabe, eskurik gabe, besorik gabe eta bularririk gabe utzi zuten; eta arimarekin defenditu zuen aitaren etxea. Hil zen, Aresti hil zen; baina aitaren etxeak zutik dirau, harri eta herri.

Harrizko herri honek ere harrizko dirau: harri bizi eta harri bitxi. Baina Arestik bere heriotzeko orduan zuen adin berbera dudan honetan, ez zait iruditzen irautea eta bizitzea biak bat direnik.

Aresti hil zenean, adiskide Joseba eta biok joan ginen zenduaren aldeko elizkizunetara. Bilbora gindoazela, autopistan berritu genuen hilabete pare bat lehenago gertatutakoa. Donostian biltzekoak ginen Arestirekin eta Editor deituko dudan batekin. Gogoan dut udaberri hasierako eguraldi zoragarri eder hura, eta gogoan dut Joseba eta biok beste bien zain eta zain egon ginela.

Berandu batean azaldu zen Editor, bakarrik: Aresti gaixorik zegoela eta ez zetorrela. Ezer larririk ez, noski, Arestik berak telefonoz esan omen zionez.

Asmo genuenez, elkarrekin bazkaltzera joan ginen; baina Editorrek ez zigun ia jaramonik ere egin guri: alboko mahaiko minigonadun baten izterretara joaten zitzaizkion begiak, eta begien atzetik, gogoia (eta, gero, alderantziz).

Aresti oker zegoen, ordea: gaitz larriak zeukan gaixorik, zoritxarrez.

Arestiren hiletetan, Bilboko elizaren ilun-tristea! Gogoan dut, gainera, zerau pentsatu nuela bertan: bere hirugarren alabari Andere Bihotz izena ezartzen dion gizonik ez dela erabat hiltzen.

Osterakoan, isilik itzuli ginen, puska batean, Joseba eta biok. Gero, adiskideak bapatean jakinarazi zidan sekretua; gaur arte, hogeituz urtez, neurtzat gorde dudana sekretua:

—Berarekin hitzegin nuen azken aldian, zera esan zidaan Arestik: bera zela bere belau-naldiko euskal idazleetan garaiena, eta ni izango naizela gure belau-naldikoen artean gailena.

Adiskide legez, ontzat hartu nion aitorpen pozgarri hori. Gaur, hogeituz urteren buruan, bistan da igarle izan genuela Aresti; artean gertatzeko zegoena asmatu egin baitzuen, ezkutuan zegoena igarri, ezezagun zena ezagutu. Izan ere, irakurle, adiskide Josebak izenordea erabiltzen baitu literatur lanetan; oso izenorde ospetsua: Bernardo Atxaga.

Bidezkoak
1995eko irailak 5

Toribio Alzaga eta Antzoki Iluna

Euskal kulturaren alorrean lan egindako beste asko bezala, zoritxarrez, Toribio Alzaga ere ezezaguna da gure artean. Litekeena da izenak berak eragoztekoa ospea eta sona; Toribio izena ez baita batere 'moderno'. Bernardo deitu izan baliote, sikiera, gaur egungo kazetari erdaldunen batek egingo zukeen, ustekabean, haren propaganda. Baina, halabeharrez edo, Toribio ezarri zioten pontean: Toribio Alzaga.

Ez da harritzekoa haren berri ez jakitea kaleko jendeak; Euskal Telebistan ez baitute eman Alzagaren antzerkirik. Ez da harritzekoa haren berri ez jakitea euskal eskola edota ikastoletako ikasleek; testu-liburuetan ez baitator Alzagaren izenik. Ez da harritzekoa haren berri ez jakitea euskaltzale askok; Euskaltzaindian ez baitute Alzagaren gramatikarik. Ez da harritzekoa haren berri ez jakitea antzerkizale askok; euskal aktore gehienek ez baitute ia ezagutu ere egiten.

Ezaguera egiteko, egokia da gure antzerkigile eta aktoreek —euskaldun nahiz erdaldun— teatroaren bide berriak eta 'bestelako' joerak ezagutzea: Artaud, Beckett, Brecht, Mishima, Julian Beck, Dario Fo... Baina, aldi berean, ezinbestekoa behar lukete Toribio Alzaga, Antonio Maria Labaien eta abarren euskal antzerki 'klasikoak' ezagutzea: Shakespeare ezagutzea bezain ezinbesteko. Eta ezagutu, eskolatik bertatik hasita ezagutu behar lituzkete; zer ikasi ugaria baitaukagu horien eus-

kara bizitik. Badakigu gaiak eta giroak ez direla oraingoxeak, garaian garaikoak baizik; baina gogotan hartu oraindik ez dela isildu *Ama, begira zazu!* antzeslanak jasotako txalo-zaparraden oihartzuna. Ederki uztartu zuten horiek zaharra berriarekin; baita arrakasta bikaina lortu ere!

Bide beretik daramatzagu, asmoz eta arrakastaz, *Antzoki Iluna* saileko irrati-nobelak ere. Duela bost urte hasi zen, 1990ean, Euskadi Irratiaren eta HABEren arteko lankidetzaz oparo hau: 70 ordu inguru dira orain arteko grabazioek; 1.500 orrialdetik gora luzatzen dira egundaino argitaratutako egokipenak; milaka eta milaka entzule euskaldunek jarraitzen dituzte kontakizunok; ehundaka erdaldunek entzun eta irakurtzen dituzte euskara ikasteko... Eta oraindik ez dut ulertzen zergatik ez dituzten erabiltzen D ereduko eskoletan; Euskal Literaturako hainbat genero (antzerkia, nobela, kontakizuna) samurki lantzeko material egokia baita oso: lehengo eta oraingo sortzaileen idazlanak (Atxaga, Loidi, Iturbe, Labaien, Alzaga eta gero gerokoak) aktore trebeen ahotsetan. Grabazio eta argitalpen profesionalak; eta merke antzean esku-ratzeko moduan, gainera.

Toribio Alzaga ekarri dugu aurten *Antzoki Iluna* sailera. Erabaki sinboliko hutsa ote da? Ez horixe! Sentimentala, agian? Ezta ere! Museorako zera bat? Ez; baizik eta kultur dinamika biziak behar dituen sustraien osagarrietako bat. Orainak ez du fruiturik emango geroan, baldin eta ez bada errotzen lehengotan. Horixe da kulturgintzako lehen ikasgaia. Herri txikia gara, eta zentzuz jokatu behar dugu; 'koplak' eta alferrikako txorakeriak alde batera utzita.

Zabalik

1994ko abenduak 21

Cela zela eta Cela dela eta

Literaturako Nobel saria eman ziotenean, 1989an, harritu egin nintzen —xaloa ni!—; merezi ez zuelakoan. Oker ote nengoen Camilo Jose Cela idazleaz? Gogoan bainuen Koldo Mitxelenak 1955ean EGAN aldizkarian idatzitakoa:

Cela nobelagile ezaguna da Espainian. Sail horretan, zuzen edo oker, buruzagitza emana —ala hartua— dauka, bere *Pascual Duarte* dela bide, batez ere.

Mende azkenetako idazleak, “poeta madarika-tuak”, zorrez, gosez eta, batez ere, krakaz beterik bizi ziren. Idazlanetan, ordea, lohi tartean zebiltzan har edo txitxare zirelako haiek gora begira egoten ziren beti, izar dardartiekin ametsetan. Gaurko gazte azkarrak, berriz, dotore jantzirik, lasai bizi dira etxe txukunetan, eta nahiago dute diru ugaria dirurik eza baino. Nazka-izugarrikeriak literaturan maite dituzte.

Cela ez da bestelakoa. Ondo jaioa, leunkiro hazia, goiz hasi zen —gazte zuhurrari dagokionez— bizibide eroso baten bila.

Hitz horiek duela berrogei urtekoak dira: alegia, Francoren diktadura eta zentsura gogorrak bete-betean zeuden garaikoak. Orduan Mitxelenak isilik pasa behar izan zituen batzuk aldarrikatu ditu orain, ozenki aldarrikatu ere, Granadako Udalak.

Hona zer zioen bertako Kultur zinegotziak, periodiko honetan bertan, joan den irailaren 26an:

Precisamente Cela, que se ofreció al general Franco como delator de sus compañeros, de la gente del mundo de la cultura —y eso está acreditado documentalmente con una carta firmada de su puño y letra— tiene la impudicia de acusar a una ciudad que no fue responsable de la muerte de García Lorca en su totalidad. De no haber muerto Lorca en Granada, posiblemente hubiera sido delatado por el mismo Cela.

Celaren aldekoetz, berriz, beste hau zioen:

O desconocen la historia y la catadura moral del personaje o si no, son cómplices.

Dirugose amorratuaz gain, salatari zital eta lotsagaldua omen. Lotsagabearena bagenekien: hamaikatxo nabarmenkeria plazaratu du umorearen eta sexu-askatasunaren aitzakiatan. Baita lehen ere, Mitxelenak zioenez:

Ausardia behar gizonak, dirudienez, gordinkeria biribilak esateko. Dirudienez... Ongi ikasi ez bage-nu gehienetan, beti ez baldin bada, ausardia gehi-go behar dela edozein arrazoizko huskeriaz mintzatzeko burugabeko nabarmenkeriarik gogorrenak esateko baino!

Egoki datorkio Celari, beraz, honako esaera zahar hau:

*Nahi duena esaten duenak
nahi ez duena entzuten du.*

Bidezkoak
1994ko azaroak 1

Birila eta txoria

Nafarroan euskara nagusi zen garaian, itzal handia zuen Leireko monastegi beneditarrak. Bertako abat izan omen zen Birila.

Birilak ere ba omen zeukan bere ezina: betikotasunaren betirako atsegina ulertu nahi eta ezina. Izan ere, Jainkoa guztiz ederra izango da, guztiz atsegina, ezin hobea eta maitasunaren beraren iturria, baina... zeruan beti, beti eta beti Jainkoari begira daudenak ez ote dira azkenean, noizbaitean, aspertuko?

Mundu honetako gauzarik ederrena bera ere aspergarri egiten zaigu azkenerako eta! Zeruan, berriz, ehunka eta alehunka, milaka eta milaka urtez beti bat, beti berbera, eta sekula ere aspertu ez? Ba ote? Ezinezkoa dirudi!

Behinola, monastegitik urrutira gabe dagoen iturriraino joan zen Birila, ohi bezala, bere betiko kezka hori hausnartuz. Hartan, txori baten kantuak erakarri zuen. Polita, txoria! Eta haren kantua! Haren errepika! Haren firurika, xaramela eta txorrotxioen eder alaia!

Abatak ez zuen egundaino belarriratu hain doinu ezti, gozorik. Harrituta zegoen Birila, adi-adi entzuten, begiak itxita, txoriaren kantu zoragarriaren xehetasun guztiez jabetu nahi balu bezala, txundituta, liluratuta.

Baina atsegina baino lehenagokoa izaki zeregina, eta Birila monastegira itzuli zen, txori miresgarri hura iturri gaineko zuhaitzean kantari utzita. Damurik, unetxo batez besterik entzun ez izana!

Monastegiko atarian, egundoko ustekabea. Nor ote zen atarizain zegoen lekaide hura? Zer aldaketa zen hura? Handia, gero! Lekaide guztiak ezezagunak, denak ohi ez bezala jantzita... Birila harri eta zur zegoen.

Liburutegian aurkitu zuten argibidea; liburu zaharretan aipatzen baitzen behinola izan zela han, Leiren, Birila izeneko abata, aztarnarik ere utzi gabe desagertua... 300 urte lehenago!

Hirurehun urte? Hirurehun urte iturriko joan-etorria egiten? Baina, baina... unetxo bateko kontua izan zen eta! Ez! Ezinezkoa zen! Non eta txoriaren kantuak liluratuta...

Orduan ulertu zuen Birilak. Txori eder baten kantu zoragarria entzuten emandako unetxoa, hain zuzen, munduko hirurehun urte adina bada, betikotasun osoa beharko da, gutxienez, zeruan omen diren miragarriak gozatzeko.

Gero, Birilak jaunartu zuen orduko, hauts eta errauts bihurtu omen zen bapatean haren gorputza. Haren arima, agi danean, zerurantz abiatu zen, uso zuri baten irudipean.

Horra, irakurle, euskaldun ospetsu haren berri. Jakizu, gainera, oraindik ere Leiren dituzula San Birilaren iturria eta txoria: iturria, agerian; txoria, ezkutuan.

Bidezkoak

1995eko urtarrilak 17

Agur, Karlos!

Hondarribiko arrantzale gazte baten heriotza duk albistea: hire heriotza, Karlos. Nahigabe sorra eragin zidak berriak, eta saminezko gandu mehe batek bildu naik. Laino artean, berriz, bidegabekeriaren atzapar gaiztoa ikusi diat iheska, lapur antzera ezkututzen. Hurrengo atzaparkada gogorra prestatzen ariko duk, noski; maltzur alaen hori asekaitza baita.

Baina hi libre haiz, Karlos: ez hau berriro harapatuko. Gainera, hire heriotzeko ordu beretsuan sekula ikusi gabekoa ikusi nian: mendiaren errainua zeruan. Bai, gezurra zirudik; baina egia duk. Ezin esango diat nola gertatu zen, neuk ere ez zekiat eta; baina ikuskaria bera adierazi nahi diat.

Joan den larunbatean Nafarroako Araitz bailaran ninduan lagun batekin. Betelun bazkaldu eta han abiatu gintuan Aralarko mailo aldera. Gaintza pasa eta berehala, aurrez aurre genitian mailoak: Balerdi, Aldaon, Hirimugarrieta... Elurrik ez huen ageri eta zerua nahiko garbi zegoan: hodeiak eta ostarteak, baina neguko eguzkia nagusi. Hirimugarrieta edota, (Gaintzakoa izan arren), Intzako Dorrea deitzen dioten horren gainean, Igaratza aldera, hodei bat zebilean nagi-nagi. Bapatean, bigarren eguzki batek Gaintzatik argi egin balu bezala, Hirimugarrietaren eta alboko mendi ertzen errainu

edo itzala agertu huen, garbi-garbi, euren gainean zebilen hodeian. Minutu pare bat besterik ez zian iraun ikuskariak, eta ahoa bete hortz egon gintuan begira. Izan ere, ohizkoa duk mendiaren itzala lurrean ikustea. Harrigarria, ordea, zeruan ikustea; batez ere eguzkiak saihetsetik jotzen duenean.

Seinale ona iruditu zitzaidaan, Karlos; eta gero, hire heriotzaren berri jakin nuenean, hire seinaleztat hartu nian. Kontu egizak biak bateratsu gertatu zirela: mendiaren errainua zeruan eta hire heriotza.

Balbe gaiztoak eramán hau, Karlos; baina kosta zaiok hi menperatzea. Itsasoan jo zian lehen erasoá, arrantzuntzia hondoratu zizuen hartan. Lehorrean jo zian bigarren erasoá, auto istripu gogorrez. Hi gogorragoa izaki, ordea! Hirugarren honetan maltzurrago jokatu dik: barrutik eraso dik, minbiziaz baliatuz. Ez hau kikildu, halere, eta aurka egin diok luzaro, indar guztiak ebatsi dizkian arte.

Tamalgarría duk, oraintxe, arrantzaleon egoera, Karlos: itsasotik ezin bizi, eta itsasora gabe ere ez. Hori duk ezina! Eta emazte Lurdes eta ama Joxeparen dolumina!

Agur, Karlos! Goraintziak Anttolin zenari: xoxo beltzaren kantuak berrituko zidak zuen oroimena. Hoa lasai, Ferminek zainduko ditik eta, Guadalupe gaintetik, zuen bion sortetxe Ttak-enea eta itsasoá.

Bidezkoak
1994ko azaroak 29

San Benito

Benito Santuaren eguna ospatzen da gaur. Haren berri labur eman asmoz natorkizu, irakurle, hainbat liburu lagun ditudala horretarako.

LUR Hiztegiak dakarrena aipatuko dizut, hasteko:

Beneditar ordenaren sortzailea (...) goi mailako familia batean jaioa bide zen. Erromara erretorika, filosofia eta zuzenbidea ikastera joan zen; baina laster baztertu zen mundutik Subiaco mendian eremutar bizimodua egiteko. Hiru urteren buruan ingurura bildu zitzaizkion ikasleak 12 monastegitan banatu zituen.

Gero, 529. urtean, Montecassinon abatetxe handi bat eraiki zuen eta bertan hil zen 547an. Bere izena daraman erregela idatzi zuen abatetxe horretan, monastegi bizitza gobernatzen duten oinarriak bertan bilduz. Tradizioz, San Benito "Sartaldeko lekaideen aitalehena" izan da. Paulo VI.ak Europako zaindari izendatu zuen 1964an.

A. Manzisidor jesuita euskaltzaleak 1958an argitaratutako *Santu Bizitzak* delakotik hautatu dizut hurrengo hau:

Oinarri bi ditu Benitorentzat lekaide bizitzak. Mendetasuna, au da obedientzia, eta lana. Ardatz bi oien inguruan dabil aren erregla.

Lenengoak mendekoari gauza bi eskatzen dizkio: sinismen sakona eta apaltasun egiazkoa. Nagusiari orde, maitasuna eta zuurtasuna.

Bigarrenak, lanak alegia, era bitakoa izan bear du: Gogo-lana, otoitzean eta gogaketa-meditazioan, eta Jainkoaren laudorioetan eta ikasten. Gainera, esku-lana. Lan biak aren semeak gogotik egin zituzten. Ordutik asi ziran eta gaur ortan diraute.

Gaur eguneko beneditarrek —Lazkaokoek, hain zuzen— 1993an argitaratutako *Ene anima, goretasu Jauna!* liburuan azaltzen da nola bizi behar diren bi oinarri horiek:

... maitasunik audienaz bizi bezate anaiak grina on au [okerretatik aldendu eta Jainkoagana eta betiko bizitzara daramana], au da, *aurrea artu bezaio batak besteari atseginak erakusten*. Gorputzeko gaitzak, naiz oiturarenak, eraman ditzatela iraupenik audienarekin; alkarren leian ari bitez alkarren esanera biltzeko. Berari baino besteri komeniago zaion gauza billatu beza bakoitzak.

Ederra jokabidea, ederrik bada! Badakit ez dela erraza betetzen. Badakit beti ez dela samur jakiten zer komeniago zaion, egiaz, besteari. Baina badakit beneditarren jokabide horrek jo eta hankaz gora botatzen duela munduak nozitzen duen gaitzik larriena: norberekoikeria.

Jende sendoa, beneditarrak; txepelkeriarik gabea. Behar duenari atea zabaldu zalea. Bejondeiela Lazkao, Oñati, Estibalitz eta gainerakoei!

Bidezkoak
1995eko uztailak 11

Artetxe, Joxe

Ez nuen ezagutu. Ez dut ezagutzen, dakidala, ez haren seme-alabarik edo ahaiderik eta ez haren adiskiderik. Ustez, ez diot ezer zor; ez bada hark euskalgintzan egin zuen lanari eta haren itzalarari darion argi iraunkorra. Eta argi horrexek nakar, ez bestek, gizalegezko nire eginbearra betetzera.

Euskal hiztegi batean, hari buruzko azalpen honekin egin baitut topo, ustekabean:

Artetxe Aranburu, Jose. Idazle gipuzkoarra (Azpeitia, 1906 - Donostia, 1971). Biografia, saiakera eta kazetaritza-lanak argitaratzeaz gain, *Egan* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan euskaraz idatzitako artikulu batzuk ere kaleratu zituen.

Bibliotekari probintziala zelarik Patxi Goenagaren *Agurea ta atsoa* liburuaren hitzaurrea prestatu zuen. Bere lanik gehienak gaztelaniaz idatzi zituen. Francoren garaian ospea lortu zuen; ez zen frankista erabat, baina kontrako adierazpenik ere ez zuen egin. Gerra garaiko gertaerak azalduz *El abrazo de los muertos* liburua idatzi zuen (1970).

Artetxe zenak euskalgintzan egin zuenerako, oso motza da —ez luze-laburrean soilik— azalpen hori.

Horrez gainera, pellokeria dirudi «Francoren garaian ospea lortu zuen» esateak. Noiz lortu behar zuen, bestela, garai hartakoa izanik? Koldo Mitxelena, Gabriel Arestik, Xalbador bertsolariak, Uztapedek eta abarrek ere Francoren garaian lortu zuten ospea. Eta zer?

Ai, pellokeria itxurako hori zitalkeriaren atarikoa izaki, ordea! Zitala iruditu baitzait ondoren dakarren hau:

... ez zen frankista erabat, baina kontrako adierazpenik ere ez zuen egin.

Gezur beltza dirudi horrek; Artetxe zenaren egunerokoa irakurri besterik ez dago:

Zarautz, 1940.— Ate joka nabil, deika. Ate guztiak itxi egiten dira. Galtzaile gisa hots egiten baitut. Horixe baitnaiz, izan eta izango: galtzailea.

Herriko jendeari —presoei, ezergabetuei, gose zirenei— lagundu asmoz zebilen, gainera, ate joka. Horixe bai zela frankista izateko era bitxia! Euskal Herriak pozik hartuko zituzkeen Artetxe bezalakoak, dozenan hamaika! Baita neuk ere! Gizona gizon izatea baita kontua; antifrankista izateak ez zuen bermatzen hori, eta abertzale izate hutsak ere ez.

Eta zertara dator, bestalde, idazle oparo horren biografia egiterakoan, liburu bakarra aipatu, beste hogeita lauak isildu eta ideologi kontuak nahastakatea? Martxa kaxkarra, euskal kulturarentzat!

* *

Ohar bat, irakurle. Hiztegi horretan, alferrik begiratuko duzu zer ote den *gezur beltza*. Euskal hiztegia izan arren, *kalumnia* idatzi dute, eta lasai asko geratu dira. Ez hala ni!

Joxe Artetxe zena aipatu nizun gaur zortzikoan, irakurle. Oraingoan, gainera, haren berri zehatzago eman asmoz natorkizu. Lagun egokia aurkitu dut, ustez, eginkizun horretarako: *Auñamendi* delako entziklopedia mardula; bertatik hartu eta egokitu baititut euskarara ondorengo jakingarri guztiok.

Azpeitiarra zen Artetxe, eta asko ikasia. Ez zen, ordea, unibertsitatean ibilitakoa, eta batxilergorik ere ez zuen egin; hamalau urteko mutikoa zelarik, halabeharrez, eskola utzi eta lanean hasi baitzen. Horrek esan nahi du bere aldetik ikasi zuela zekien guztia, inongo irakaslerengana jo gabe. Ez gutxi ikasi ere; Artetxe autodidakta hark bi dozenatik gora liburu idatzi baitzituen, eta milaka artikulua, erdaraz nahiz euskaraz.

Euskaraz, *Zeruko Argia*-ren ia sortze beretik idatzi zuen bertan, astero-astero. Bai euskara egoki askoa erabili ere: garbizalekeriarik eta berrizalekeriarik gabekoa. Hain zuzen ere, ahozko euskararen kideko idazkera horri esker irabazi zuen Artetxek euskal irakurleen oniritzia eta jarraipen ugaria.

Gaztelaniaz idatzi zituen artikulua, berriz, norabidea erakusten duen iparrorratz gisa ziren bere erdal irakurle ugarirentzat: gizalege edo jokabide zuzena erakusteko modukoak. Halakoxeak ziren, izan ere, Artetxeren idazkiak: prestu, zintzo eta goiargiak.

Ugari dira Artetxeren liburuak; ugaritasun horrek badu, ordea, bere batasun-ardatza: egileak Euskal Herriari zion maitasun betea. Izenburuen zerrenda duzu lekuko: *Una inquietud y cuatro preguntas, San Ignacio de Loyola, Elcano, Urdaneta, Mi Guipúzcoa, Legazpi, Caminando, Mi viaje diario, San Francisco Javier, Lope de Aguirre: traidor, La paz de mi lámpara, Vida de Jesús, ¡Portar bien!*

Saint Cyran, Cuatro relatos, Camino y horizonte, Lavigerie, Siluetas y recuerdos, Rectificaciones y añadidos, Discusión en Bidartea, Canto a Marichu, El abrazo de los muertos, El gran asombro, Gizonak (euskarazko bakarra) eta Un vasco en la postguerra.

El abrazo de los muertos delakoa (1970) jotzen zuen Artetxek bere idazlan nagusitzat. Egilea gerran ibili zen bitarteko (1936–1939) haren egunkaria da liburu hori. Zerrenda luze horretako azkenekoa, *Un vasco en la postguerra (1939–1971)* delakoa ere egilearen egunkaria da: zentsura zela eta, periodikoan idatzi ezin zituen hainbat albiste eta iritzi ere aurkitzen da bertan. Hortxe ezagun da Joxe Artetxe: gizon zintzoa, intelektual jaso, kristau oso arduratsua, guraso zabala eta gizalegeko euskaldun jatorra.

Agur eta ohore, beraren izenari!

Bidezkoak

1995eko maiatzak 9 eta 16

Apurrak

Apur batzuk baino ez ditut azalduko, labur beharrez, Joxe Artetxe zenaren gerra osteko egunkaritik: alegia, haren *Un vasco en la postguerra* (1939-1971) liburutik hartutako apurrak.

Politikaren alorrekoak

(1947-IX-13) Eraso gogorra egin digute Radio Euzkadi klandestinitik: Patxi Unzurrunzaga (Itxaropena argitaletxekoa) eta biok traidoreak omen gara. Zergatik? Ba, hemen, Zarautzen, oporretan zegoen *Director General de Prensa y Propaganda* bisitatzera joan ginelako. Bisita emankorra; euskarazko hiru liburu argitaratzeko baimena lortu bait-guenen: Orixeren *Euskaldunak*, Salvatore Mitxelenaren *Arantzazuko poema*, eta euskal hiztegi bat [Plazido Muxikarena]. Sekulako garaipena da baimenok lortu izana; halere, ezjakinean edo, traidoretzat salatzen gaituzte: ni, batez ere.

(1952-IV-27) Emazteak esan dit oker zegoela: gerra hasi zenean jakin izan balu frankistak nolakoak ziren, ez zidala galeraziko ihes egitea.

(1953-XII-20) *Euzkadi* egunkariko kazetari, lan-kide eta langileen artetik hemeretzi fusilatu zituzten; ni neu izan nintekeen hogeigarrena.

(1956-III-26) Nafarroan, ehiztari bat epaitu berri dute bi untxi hiltzeagatik baimenik gabe. Auzipera-tuak, harrituta, zera esan omen du: hogeï urte lehe-

nago, ehun eta hirurogeita hamabi pertsona hil zituela, bina duro kobratuz, eta orduan inork ez ziola kargu hartu.

(1958-IX-19) Erregimen hau da *azkar aberastu, bizkor aberastu* beharrekoena.

(1960-IV-12) Hiru anonimo hartu ditut «separatista vasco» omen naizelako. Egun berean hartu dudan *Eusko Deya* aldizkariak, berriz, zera dio: ea zenbat ordaindu didan Francok *Saint Cyran* liburua idazteagatik.

(1962-VI-1) Usteltzearen ondorioak. Arratoiak untzitik ihes. Egokiera bila dabilen jendea. Diktadorea, etsita, hil ondoren ere agindu nahirik.

(1964-III-21) Egia adierazi ezinaren itolarria eta tristura!

(1965-III-22) Beldurra alde guztietan. Beldurra da nagusi. Beldurrari esker dirau frankismoak; beldurra du armarik gogorrena eta eraginkorrena.

(1966-VI-23) Kaleko berriak oso bestelakoak dira periodikoetakoan aldean. Kanean ez da torturarena beste konturik entzuten: aztarnarik uzten ez duen tortura da hizpide nagusia.

(1966-X-8) Ezkutuko argitalpen bat hartu dut. Greba dela eta, Eibarren eta Zumarragan atxilotutakoei egindako tortura izugarrien berri dakar. Baita poliziak Eibarren omen dituen hogeita hamalau salatariren zerrenda ere. Zer gertatu behar du hemen?

(1970-XII-28) Errepresio basatia dator. Ezin dut idatzi. Eskua dar-dar daukat.

Erljioaren alorrekoak

(1952-V-5) Lope delako eskulturagile tolosarrak urtean behin bakarrik betetzen omen ditu Elizarekikoak. Baina ahaleginak egiten ditu bere adiski-

deek ere beste horrenbeste, bederen, egin dezaten. Oraindik orain, bederatzi lagun eramán ditu aitor-
tzera; baita hauek aitortza egin ere, aspaldiko par-
tez. Zoritxarrez, apaizak era txarrean hartu omen
zituen denak.

(1955-XI-6) Baserritar batek laburtu du hemen-
go berri: *Egia, belauniko; gezurra, zutik; lapur guz-
tiak, libre.*

(1956-I-24) Espainiako erlijioa eta politika
nahaste honek jainkogabeko belaunaldiak dakar-
tza. Horixe ari dira egiten erlijio-irakasleak: ateoak
ugaritzen.

(1956-VII-31) San Inazio hil zeneko laugarren
mendeurrena dela eta, Franco ere etorri da Loiolara.
Bazter guztiak militarki hartuta. Aita Santuak irratiz
hitz egin du. Bekatu ote da euskaldun jaiotzea? Ez
Aita Santuak ez beste inork ez du aipatu ere egin
San Inazioaren euskal izaera; ezta gipuzkoarra zenik
ere! Jendeak nahiago izan du Arantzazura joan.

(1959-II-21) Bizkaiko baserritar bat Gorbea
mendira igotzen omen da urtero, Bazko egunean,
goizean goiz, gailurreko gurutzeari bere bekatuak
aitortzera. Ondoren, herrira jaitsi eta elizan bete-
tzen du Bazkotan jaunartzeko agindua. Garai bate-
ko apaizekin, bai, aitortzen omen zen; oraingoekin,
ez du nahi.

(1959-IX-12) Espainiako oraingo eliz agintari
nagusiak fedegaldu edo apostatak iruditzen zaizkit.
Asko omen gara, horretan, iritzi berekoak.

(1965-IV-16) Hondarribiko sakristian, utzikeria;
apaiz batzuk —kanpotarrak?—, balkoitik begira
Ostiral Santuko prozesioari... Herria bera apaiz-
-jendea baino sinistunago eta erlijiosoago ote?

(1969-II-28) Simon Arrieta hil berria da. Berga-
rako margolari horrek ba omen zuen ohitura maita-
garria: Santu Guztieneko bezperan kanposantuko

hilobi pobre eta utzienetako gurutzeak pinturaz ederki apaintzekoa.

(1970-XII-21) Aita Santuak ez ditu hartu nahi izan Burgosen epaituak diren abertzaleen ahaideak. Herria haserre dago Aita Santuaren aurka. Gera-tuko ote zaigu ezer Francok hondatu gabekorik?

(1970-XII-31) Erakundeen ezkutuko terroris-moa. Nori zor ote hilabete sataniko hau?

Joxe Artetxek berak barkatuz ospatzen omen zuen Ostegun San-tua: orri osoak kenduz, urtero, bere egunkaritik. Berri hori ez da berari irakurritakoa.

Literatur girokoak

(1943) *Norbaitek* hala nahita, hil egin zuten Lauaxeta. *Norbait* horrek, agi danean, bere buruaz beste egin du.

(1951-VIII-26) Oteiza, nire gisa, haserrekorra da. Ukabilka bezala hitz egiten du. Ez zaio zeresan mamitsurik falta.

(1955-III-29) A. Onaindiak argitaratutako *Mila euskal olerki eder* liburua bahituz dabil polizia; eta, bidenabar, liburu horren erosleen berri galdetzen diete saltzaileei.

(1957-XII-27) *La Gaceta del Norte* periodikoak itzuli egin dit, argitara gabe, Orixe Euskaltzaindian sartu berriari buruz idatzi nuen artikulua. Bilbo da, nire ustez, denetan hiririk antiliberalena. Erre-publika garaian, *Euzkadi* periodikoan ere ez ziguten onartzen R. M. Azkue apaiz euskaltzale bikainaren izena aipatu ere egiterik.

(1960-IV-7) Txorogaizto gazte mota batek oso gogoko ditu Pio Barojaren idazlanak: buruz ikasten dituzte; batez ere, pasarterik okerrenak.

(1960-VIII-21) Hemingway prest dago sosik kobratu gabe geratzeko *Agurea eta itsasoa* euskaraz

argitaratzeagatik. Ez omen du ezer euskaldunon kontra. Horixe esan dit baimen eske joan natzaionean.

(1964-VI-28) Pio Baroja benetako gizona zen: bostekoa eman zidan moduan antz eman nion.

(1965-VII-3) Aita Donostia zenaren jaiotetxean oroigarri jartzea. Agintariak ere bertan ziren; baita 'zaindariak' ere. Totalitarismoa beti zelatari; baita susmagarria hil ondoren ere! Omenaldira bildutako jendeak, halere, gure ereserki apal eta unibertsala kantatu zuen: *Gernikako Arbola*.

(1965-VII-13) Unamuno? Txotxolo galanta, Unamuno, 1936ko uztailak 18a ezkerro!

(1970-II-19) "Le serví infinidad de veces en la Biblioteca. Al final, terminamos mal. Iba descaradamente a lo suyo, atropellándolo todo. Su actitud, su porte, su aire decadente, sus maneras tenían la virtud de irritarme, de ponerme fuera de mí. Ya sé quién es (...)"

Baina ez du esaten nor den. Oraindik bizi denez, nik ere ez dut izenik emango; bertso txar batez adieraziko dizut:

*Oso deitura egokia du:
hartzen du-ta ez ematen.
Tabernan dauka bere kontsulta;
ez du dirutan kobratzen.
Mutlitzahar omen dago oraindik;
lehen ezkondua izan arren.
Ospetsua da euskal munduan;
ez dute ongi ezagutzen!
Kontuz ibili zital horrekin,
baldin badakizu nor den!*

Bidezkoak

1995eko maiatzak 23 eta 30 eta ekainak 6

Zer deritzozu?

Haserre samar edo idatzi omen nuen. Horixe esan zidan kalean topatu nuen lagun batek: ez zela batere gozoa maiatzaren 9ko nire artikulua, Joxe Artetxeri buruzkoa.

Esan bazidan, esan zidan! Bai gogoeta ugari eragin ere! Gizalegez jokatu nuen, ustez; baina zalantzak uxatu ezinik nabilenez, zugana jotzea erabaki dut, irakurle: zu zaitut epaile. Ea zer deritzozun!

Euskal hiztegi entziklopediko batean topatu nuen azalpen hauxe nuen idazgai:

Artetxe Aranburu, Jose. Idazle gipuzkoarra (Azpeitia, 1906 - Donostia, 1971). Biografia, saiakera eta kazetaritza-lanak argitaratzeaz gain, *Egan* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan euskaraz idatzitako artikulua batzuk ere kaleratu zituen. Bibliotekari probintziala zelarik Patxi Goenagaren *Agurea ta atsoa* liburuaren hitzaurrea prestatu zuen. Bere lanik gehienak gaztelaniaz idatzi zituen. Francoren garaian ospea lortu zuen; ez zen frankista erabat, baina kontrako adierazpenik ere ez zuen egin. Gerra garaiko gertaerak azalduz *El abrazo de los muertos* liburua idatzi zuen (1970).

Hori zela eta, nik esan nuen Artetxe zenak egin zuen lan ugarrirako (hogeita lau liburu idatzi zituen, alajaina!) erabat eskasa dela azalpen hori.

Esan nuen pellokeria dela Artetxek Francoren garaian lortu zuela ospea aipatzea. Eta noiz lortu behar zuen, bestela, garai hartakoa izanik.

Eta esan nuen gezur beltza iruditzen zaidala frankista ote zeneko kontu hori, eta zitala dela aditzera emateko modua, eta zertara datorren ideologi kontu horiek nahastakatzea.

Ondorio gisa edo esan nuen martxa kaxkarra dela hori euskal kulturarentzat. Oker ote nengoen? Ez, noski. Izan ere —esanak esan, inori min ematerik nahi ez eta—, isilik pasa bainituen azalpen horretako beste hainbat oker; oker larri samarrak, gainera. Begira, irakurle:

- ♦ *Agurea ta atsoa* delakoa oker dago: liburua-ren titulua, egiazko titulua, *Agurea eta itxaso* da.
- ♦ Liburu horren egilea ez da Patxi Goenaga; baizik eta Ernest Hemingway, 1954ko Literatura-ko Nobel sariduna.
- ♦ Goenaga izan genuen, bai, liburu hori euskaratu ziguna; baina ez Patxi Goenaga (mutil kozkorra, noski, garai hartan), baizik Anjel Goenaga delako apaiz zegamarra, hiztegi horretan bertan (707. or.) ere irakur dezakezunez.

Asko dugu. Zure txanda da orain, irakurle. Zer deritzozu? Zuzen al nengoen? Gizalegez jokatu al nuen? Nire lagunak zioen haserre samar agertu nintzela. Baliteke; baina ez dut uste. Gainera, bareak baino sentimendu gehiago behar du gizonak, zer arraiol!

Bidezkoak
1995eko uztailak 18


Antonio Maria Labaien

(1898–1994)

hitz bitan



**EUSKO
IKASKUNTZA**





**EUSKO
IKASKUNTZA**

Antonio Maria Labaien

(1898-1994)

hitz bitan

Dokumentalaren zuzendaria:

JUANJO FRANKO ZABALEGI

Gidoigilea:

JOXE RAMON ZUBIMENDI

Zenduaren bi semeak, Ramon eta Mattin, mintzo dira dokumental honetan. Bideoak 32 minutu dirau, eta Tolosako Kultur Etxean eman zen estreinako aldiz, 1996ko azaroaren 13an.

Tolosarra

RAMON: Tolosak badu bere berezitasuna, tolosar batentzat benetan maitagarria dena. Gure aita zenak maite zuen Tolosako giroa, bera tolosar sentitzen zen eta. Han zeuzkan lagunak, han zeuzkan... beno, gauza asko: oroimenak eta itxaropenak. Nik uste dut dena zeukala Tolosan. Oso tolosarra zen gure aita. Dudarik gabe.

MATTIN: Hemengo ikastola gure aita zenak sortu zuen, gerra ondoren. Gure aita zena, Federiko Zabala eta Manuel Ugarte: horiek izan ziren Tolosako ikastola sortu zutenak.

RAMON: Tolosan beti izan dira horrelako pertsonak. Nik uste dut hori dela Tolosaldeko berezitasuna: beti horrelako pertsonaiak sortzen dituela eskualde honek. Ez dakit zergatik eta nola; baina beti izaten dira Tolosan horrelako jende bereziak.

Gizona

RAMON: Artistaren izaerakoa zen gure aita: ez zen industrialia, ez zen tolosar arrunt bat. Tolosan, aitaren garaian, denak ziren fabrikak, papelerak eta abar; giroa oso pragmatikoa eta oso industrialia zen, nolabait esateko. Gure aitak, ordea, gehiago zeukan idazle aldetik, poesia aldetik, musika aldetik, artearen aldetik.

MATTIN: Ez bakarrik idazlea eta abertzalea; baina gizona ere bazen. Inportantea da gizon izatea ere, lehenbizi pertsona delako. Gero dator beste guztia: euskalduntasuna, abertzaletasuna, kultura... Baina lehenbizi gizona da: beti pertsona bezala jokatu, beti bihotzarekin eta tolerantziarekin jokatu. Hori erakutsi zigun, e!

RAMON: Ez zen oso gizon praktikoa; etxearen zama gure amak eraman du beti: errealitatearen zama. Aita, ordea, zera bizi zen... lainotan bezala ikusten genuen pixka bat. Bere munduan bizi zen, bere lagunekin; eta denak ziren intelektual tankerakoak.

MATTIN: Gero, bidaiatu, gure aitak asko bidaiatu zuen. Horrek ere asko egiten du. Asko atera zen, asko bidaiatu zuen: ez bakarrik Alemaniara; joan zen Austriara, Txekoslovakia, Suediara, Israelera...

RAMON: Nik uste dut... Nik esango nuke gure aita ez zela behinere izan enpresagizon. Lan egiten zuen familia bat zeukalako; baina oso interes eskasa azaldu zuen beti, bai enpresario izatearekin eta bai bere lan profesionalarekin. Bere mundua kulturaren mundua zen eta, beno, hortik ateratzen zen beste erremediorik ez zuelako.

MATTIN: Gure aitak era guztietako jendearekin egin zuen lana. Nahiz eta bera euskaltzalea eta sinistuna izan, bestelako jendearekin oso tolerantzia zen. Orain gu ez bezala; orain intolerante samarrak gara hemen.

RAMON: Ez zuen batere autoritarismorik izan. Oso eskuzabala izan zen, oso liberala. Eta gu, etxean, bi anaiok, denok pozik bizi izan ginen. Askatasun giro bat zegoen horretan. Nolabait, pixka bat anarkikoa izango zen; baina ondo bizi ginen.

Etxeko giroa

MATTIN: Hemen dago, hemengo gela honetan, gure bizitza hemen dago: musika, literatura, pintura, euskara... Hemen dago gure bizitza, hemen sartuta dago. Gure giroa, gure kultura... hemen dago dena. Horrela bizi gara eta horrela hilko gara.

RAMON: Gure gurasoek beti jo izan zuten musika, egunero, aitak biolina eta amak pianoa. Beti liburu asko izan dira gure etxean, eta beti, ba, euskal kulturaren mundu horretako jendeak beti etxean izan ditugu; bai hemen eta bai beste aldean, Ipar Euskal Herrian.

MATTIN: Gure aitak sartu zigun kultura-grina: euskararen grina, kulturaren grina eta baita artearena ere (niri, pintura eta). Musikarena ere berak sartu zigun. Baina berak ez zuen derrigortzen; ideologia politikoa ere derrigortzen ez zuen bezalaxe. Horretan ere lehengo estilokoa zen: berak bazuen bere ideologia, baina inor derrihortu gabe. Hemen, gela honetan ikusten duzu zer den kultura-giroa: musika, liburuak... dena. Hemen bizi izan gara. Giro honetan sortu gara eta, alde horretatik, pribilejiatuak izan gara.

MATTIN: Hori esan beharra dago. Askok, gehienek ez dute izan pribilejio hori. Garai hartan, gutxiago. Jendea, lanera, fabrikara; eta kultura, ba... Ez dute izan estudiantzeko aukerarik. Guk izan dugu suerte hori: estudiatu, ikasi, liburuak eta... Giro honetan bizitzea suertea izan da, eta pribilejioa. Egia da, e!

Euskaltzalea

MATTIN: Orain ere etxeko giro hori barruan daukat: zer gauza! Eta horrela bizi naiz eta horrela hilko naiz. Beti aitarekin hitz egiten, elkarrizketan, mila gairi buruz hitz egiten, beti zerbait ikasten eta...

Asko zekien, bere jakinduria izugarrikoa zen. Ez zuen ematen; oso umila baitzen, berez, isila, eta ez zuen ematen hainbeste zekienik. Baina, joba!, zenbat zekien! Denetatik zekien hark: bai politikaz, erlijioaz, arteaz, kirolaz, musikaz... denetatik zekien! Gazte-denboran Alemaniara joan zen, eta alemana hitz egiten zizun euskara bezala: igoal-igoal. Alemana, ingelesa, frantsesa, espainola eta euskara: bost hizkuntza zekien. Eta idazten zizun bost hizkuntzotan.

RAMON: Gure aita euskalduna zen, eta euskaltzalea. Euskalduna izatea da, ba... euskalduna izatea. Euskaltzale izatea, ordea, maitasun bat da.

MATTIN: Euskaltzalea; baina, gero, unibertsalista. Beste kulturak ere bai, aizu; ezin ditugu ukatu. Ondo dago gurea eta euskara

defenditzea; baina ezin ditugu begiak itxi. Gurea bakarrik ez; besteak ere bai. Gure aita horrelakoa zen: abertzalea, bai; baina abertzale unibertsalista, unibertsala edo.

RAMON: Euskaltzaleen mugimendua, Aitzol apai-zak sortua, Tolosaraino ailegatu zenean, hor ibili ziren denak sartuta. Eta hortik atera zen hainbat euskal idazle. Eta hori bai zela berritasun bat, behintzat, gure egoeran eta gure ingurumarian. Tolosaldean, hor zebiltzan Lizardi (Zarautzen sortua), Orixe (Orexan sortua) eta beste; baina denak Tolosaldean zebiltzanak.

MATTIN: Gerra, lehenbiziko gerra, Lehen Mundu Gerra bukatu ondoren, orduan hasi zen hemengo euskal mugimendua: 1918an edo 1920an. Batzokiak sortzen hasi ziren, eta orduan hasi zen mugimendua: bai politika aldetik abertzaletasuna, bai kultura aldetik, euskara aldetik, artista aldetik... Orduan sortu zen *Renacimiento Cultural Vasco* izan zena: Euskal Berpizkundea.

Hor nagusi izan zen Lizardi, bera hasi zen —egia esan behar da—. Hemen, Tolosan (ez dakit beste lekuetako berri; baina Tolosakoa bai, badakit; ondo gainera!), hemen izan ziren... hiru izan zirela uste dut euskal mugimenduaren buru eta sortzaile: Xabier Agirre "Lizardi", Nikolas Ormaetxea "Orixe" eta Jose Ariztimuño "Aitzol". Eta aita ere bai: gure aita. Lau horiek izan ziren euskal mugimendua sortu zutenak hemen, Tolosan, euskara aldetik, abertzaletasun aldetik... Aitak berak esan zidan hori.

MATTIN: Euskal mugimenduaren sustraia edo arkaitza lau horiek izan ziren. Etortzen ziren gure etxera —goiko pisuan bizi ginen orduan—, eta horiek hasi ziren lanean: Lizardi, Orixe, Aitzol eta gure aita. Horiek, Tolosan. Eta, gero, beste batzuk ere etortzen ziren: Fausto Leunda eta.

Lehenbiziko batzarra Iparragirre antzokian egin zen, eta orduko fotografian han agertzen dira... Isaak Lopez Mendizabal ere bai, barkatu! (Bere semeak hilko nau!). Isaak Lopez ere bai. Horiek izan ziren hemengo sortzaileak.

RAMON: Negoziante txarrak eta, nik uste, intelektual garbiak.

MATTIN: Eta, orduan, euskal mugimendua Elizaren itzalean sortu zen. Dudarik gabe. Aitzol bera eta... Gehienak apaizak ziren. Hala da, aizu; baina gaurko gazte-jendeak ez du hori aitortu nahi. Eta hor daude Resurrección M^a de Azkue, Lekuona, Barandiaran eta... Beste bat ere bazen: Markiegi. Markiegi ere fusilatu egin zuten, makina bat jende bezala. Markiegi Mondragoeko abadea zen, eta fusilatu egin zuten. Hamasei apaiz fusilatu zituzten. Horiek egin zuten lana euskararen alde, apaizek. Dudarik gabe, Elizak egin du lana! Hori...

Antzerkigilea

RAMON: Gure aita idazlea zen, eta antzerkizalea: horregatik egin zituen antzerkiak. Baina historialari neurri bat ere izan du: hor

utzi ditu Elisanbururen bizitza, Muñagorri bakegilearen bizitza... Historialaria ere bai, beraz, bere neurrian. Gustatzen zitzaion antzerkia, gustatzen zitzaion historia... gustatzen zitzaion euskaraz idaztea.

MATTIN: Lan asko dauzka hor, argitaratzeko.

RAMON: Antzerkiak beti izan du kostunbrismoaren tentaldia edo kostunbrismoaren erraztasuna edo kostunbrismoaren maitasuna. Esan dezakezu Moliere ere kostunbrista zela. Dudarik gabe, aizu! Molierek ematen dizu Luis XIV.aren garaiko gizarteko berri, argi eta garbi: burgesia baten izaera ematen dizu. Baita Moratinek ere, eta baita Plautok eta Terenziok eta gure aitak euskaratutako horrelako beste hainbat idazlek ere! Jakina, gure aitaren antzerkia kostunbrista zela!

MATTIN: Jendeari barre eragiteko asmatzen zituen antzerkiak. Jendeak nahikoa negar egitzen zuen bestela ere, nahikoa negar bazegoen bazterretan. Negar eragiteko ez zuen teatrorik egingo; baizik eta jendea dibertitzeko, jolasteko.

Baina badauka beste obra bat: *Muñagorri*. *Muñagorri* pixka bat ateratzen da aitaren antzerkien bidetik; teatro historikoa baita, bukaera tragikoa duena. Ustedut aitak idatzi zuen tragedia bakarra izan zela. Muñagorri, pertsonaia historikoa, han ibili zen fueroak eta bakea defendituz gerra-denboran, lehenbiziko karlistadan; eta hil egin zuten. Teatro hori bai, tragedia da; baina gure aitak besterik ez dauka horrelakorik.

MATTIN: Badauka *Mugak*, Saran gertatzen dena... Baina beti barre eragiteko, irri eragiteko. Horrela ikusten zuen teatroa: jendea alaitzeko bide bat bezala. Baina ez helburu sozial edo politikoarekin; ez, intentzio hori ez zeukan.

RAMON: Alde batetik, antzerki oso sinplea zen, baliabiderik ez zegoelako; baina jende asko erakartzen zuen, gerra aurrean ez zegoelako ez irratirik eta ez telebistarik. Gero, telebistaren garaia heldu zenean, euskaltzaleek ez zeukaten modurik, ez zeukaten telebistan aterako zen zerbait idazteko aukerarik. Gure aitarentzat, Euskal Telebista berandu etorri da.

MATTIN: Hori salatzen diote aitari, esanaz teatro pixka bat zera dela: *un poco jebo*. Baina giroa, orduan, halakoa zen, aizu. Orain hori ez dago; orain pertsonaje horiek joan dira. Orduan halakoa zen giroa: herriko pertsonaje umilak. Baserrikoak ere bai; baina, batez ere, Tolosako kaletarrak, sagardotegietan ibiltzen zirenak eta hango... Hango giroa, nik uste, margotu zuela. Hango giroa halakoa zen, eta askok ez dute aitortu nahi; baina hala da: historia den bezalakoa da; ez da guk nahi dugun bezalakoa. Ezin da historia okertu, ezin da historia politagoa egin, oso gauza polita. Ez, ez, ez. Herriko giroa halakoa zen, e!

RAMON: Aitaren antzerkia, nolabait, konbentzios beteta zegoen, dudarik gabe; baina euskal gizartea bera ere halaxe zegoen. Kostunbrista zen; baina eusko gizartea ere

oso mugatuta zegoen: eusko gizartea oso erlijiosoa zen, garai hartan —ez dakit erlijiosoa edo ritualista; baina horrelako zerbait—. Eta horrek, nola ez!, mugak jartzen ditu. Gaur ere, 'progre' izateak mugak jartzen ditu: 'progre' batek ezin ditu egin hainbat gauza. Horrek ere, progresismoak ere, mugatu egiten zaitu; denak mugatzen zaitu. Dena aukera da, bizitzan.

Gure aitaren aukera garbi zegoen: bera zen *católico*, *apostólico*, *romano* horietakoa. Eta alderdikide, alderdi konfesional batean. Garai hartan PNV konfesionala zen, eta beti apaizez inguratua. Gure etxetik pasa ziren Euskal Herriko apaiz abertzale guztiak, nik uste.

Abertzalea

MATTIN: Jainkoa eta Lege Zaharra: hori zen gure aita. Bere bizitza horretan laburbil daiteke: Jainkoa eta Lege Zaharra.

RAMON: Garai hartakoa izan zen, egoera politikoa baino gehiago, egoera kulturala (erlijioa ere kulturen sartuta).

MATTIN: Tradizioak, erlijioak, fedeak eta denek bat egiten zuten, e!

RAMON: Nik uste dut horiek izan zirela azken karlistadaren semeak edo bilobak, azken desilusioaren semeak eta bilobak: Euskal Herriak bere burua benetan zapaldua ikusi zuenean sortu zirenak.

RAMON: Bigarren Karlistadarekin sartzen da hemen Guardia Civila, sartzen da soldadutza derrigorrezkoa, sartzen dira gauza asko. Gelditzen dira kontzertu ekonomikoak, besterik ez; eta frustrazio bat bezala dago jende artean. Eta ikusten da euskara desagertzen ari dela, eta erreakzio bat sortzen da.

Nik uste dut azken karlistadan kokatu behar dela erreakzio horren hasiera. Gure aita, esate baterako, azken karlistada pasa eta handik berrogei urtera hasten da idazten: bigarren belaunaldikoa da, nolabait. Aitzolen euskaltzaleak 1920an, 1925ean... orduan hasi ziren.

MATTIN: Aitak esaten zuenez, gauza bat hizkuntza da: euskara, euskaldun guztion hizkuntza, zabaldu behar den hizkuntza... euskal kultura bat da; eta politika, beste bat. Horiek biak ez dira nahastu behar.

RAMON: Sabino Arana Goiriren aurkikuntza, nire ustez, zera izan zen: kulturak, loratzeko, politikaren beharra zeukala; eta politikak ez zeukala zentzurik oinarri kulturalik gabe. Bata bestearekin osatzen zirela.

Baina hori gerrarekin jarri zen praktikan lehen aldiz. Gerra, izan ere, eten bat izan zen. Han ez zegoen bromarik. Batzuek irabazi zuten gerra; baina, azkenean, ez zuten irabazi. Azkenean, besteek irabazi dute gerra. De Gaullek esango zukeen bezala: 1936ko bataila galdu egin genuen; baina 1975ekoa, irabazi. Eutsi egin genion. Iraun.

MATTIN: Gero, beste pertsonajea oso inportantea izan zena gure aitaren bizitzan: Aita Donosti, musikalaria.

Jende horiek guztiak, neurri batean edo bestean, bazuten zerikusirik PNVrekin. Orduan, abertzale zirenak Batzokira joaten ziren: batasun bat bezala zegoen mugimendu abertzalean. Eta mugimendu horren barnean zeuden, ba, alor kulturalak, alor politikoak, alor elektoralak eta denetatik pixka bat; baina zera zen: gizarte osoa bizirik, ideia baten inguruan.

1936ko gerratean

MATTIN: Zoritxar handia izan zen 1936ko gerra: zoritxarrik handiena. Tragedia izan zen, drama izugarria. Uste dut oraindik ez dugula aztertu drama hura zer izan zen. Aitarentzat ere bai: bera bakegizona zen, bakezalea. Denak bezala, e! Partidua ez zen... PNV ez zen gerrarako partidua; ezta inola ere! Euskara, euskal lana, Euskal Herria...; baina gerra? Ezta pentsatu ere! Gerra ez zen sartzen haien pentsamenduan; eta gutxiago, gerra zibila. Baina orduan sortu zen, eta orduan...

RAMON: Lehenengo aldiz egin zen gerra bat eusko abertzaletasunaren izenean: ez zen egin Don Karlosen izenean edo fueroen izenean; baizik eta eusko abertzaletasun baten izenean. Hor jende asko hil zen, jende asko joan zen kanpora, eta, nolabait, ba, herri honetan sortu zen mugimendu berri bat: gaur egun ezagutzen duguna.

RAMON: Bere argiekin eta, baita ere, egunotan ikusten dugun bezala, bere akatsekin, bere ilunekin. Baina zerbait jarri zen martxan. Dudarik gabe.

MATTIN: Hemen, Tolosan, hamabi hil zituzten: gorriek edo milizianoek hamabi hil zituzten. Gure aitari leporatu zioten hori (bera zegoelako Tolosako alkate), eta, orduan, nahitanahiez alde egin beharra izan zuen.

RAMON: Besteak beste, politikan ere sartu zen edo sartu zuten aita. Bera abertzalea zen, dudarik gabe: abertzalea kulturaren aldetik, seguru asko, politikaren aldetik baino gehiago —hor beti izan da muga bat bezala kulturaren eta politikaren artean—. Baina politikan sartu zen, Tolosako alkate izan zen eta, hemen gertatu zirenak ikusiz, Tolosako alkategotik Sarako atzerrira joan zen, Donibane Lohitzuneko atzerrira: exiliora, esaten den bezala.

Exiliatua

RAMON: Gure aitak, besteak beste, Ipar aldean asko irakurri zuen, horretarako denbora izan zuelako; Tolosan ez zeukana. Berak alemanez oso ongi zekien, ingelesez ere bai, frantsesez ere bai. Eta asko irakurri zuen eta asko euskaratu zuen: Bertolt Brecht eta horrelakoak. Horrek beste neurri bat eman zion, dudarik gabe: Tolosako mutil gazteak ez zeukan neurria. Gure aitaren bilakaera autodidakta batena da: sortzen da, joaten da eskola-

pioetara, gero ematen dizkiote Zaragozan estudio komertzial batzuk eta, gero, lan-tegira. Hori horrela izaten zen. Eta hortik aurrera, berak ikasten zuena, berak harrapatzen zuena Tolosako giro hartan (Tolosako giroak zeuzkan mugekin 1920an, 1925ean eta 1934an). Gero Ipar aldera pasa zen, eta handik itzultitakoan antzerkilaria ez da berbera, beste gizon bat da.

MATTIN: Gure aita ez balitz erbestera joan, ez zen izango izan zena, aizu. Dudarik gabe. Erbesteak markatu zuen; erbesteak pixka bat indartu, gogortu edo zaildu egin zuen. Alde guztietatik, gainera. Ikasi egin zuen. Hortaz, ez zen dena txarra izan; erbesteak bere alderdi ona izan zuen, kultura aldetik.

RAMON: Gerra denboran izan zuen gutxi ezagutzen den misio bat (uste dut 1937an izan zela). Garai hartan, Londresen kongresu bat izan zen, estaturik gabeko nazioen kongresu bat, eta gure aita joan zen Euskadiko Gobernuaren izenean. Hura izan zen bere azkeneko ekintza politikoa. Orduztik, gizona benetan leporaino sartu zen kulturaren munduan, eta hor jardun zuen, hil arte.

Azken urteak

RAMON: Gure aitaren belaunaldi hori, nik uste, beti itxaropenean bizi izan zela. Gauzak ikuspegi pragmatiko batetik begiratuta, pixka bat *ilus* bezala izan ziren, ameslariak; baina, azkenean, asmatu egin zuten.

MATTIN: 1964an egin zen *Bihotz begietan*, Lizardiri egin zitzaion omenaldia, hemen, Tolosan. Omenaldi hori gure aitak antolatu zuen. Gure aita ez zen agertzen, teloiaren atzean zegoen, bera ez zen agertzen; baina bera ari izan zen hariak manejatzen.

RAMON: Hizkuntzaren alde hartu ziren zenbait erabaki Euskaltzaindian (adibidez, hatxe letraren gaia eta hori dena), eta erabaki horiek interpretatu ziren manio-bra politiko bat bezala. Gure aitak ez zuen hori onartu. Gauza da Euskaltzaindiatik alde egin zuela eta, beno, urte askotan benetan harreman zakar-rak izan zituztela batak eta besteek, edo talde batak bestearekin. Gero, pittinka-pittinka, gauzak samurtzen dira, konpontzen dira, eta, azken urteetan, gure aitak benetan armonia osoa zeukan: berak onartua zeukan... ez dut esango euskara batua, baizik eta gaur egun sortzen ari den euskara. Ez dakit zer euskara den: pentsatzen dut telebis-taren euskara dela.

MATTIN: Arantzazun batzar bat egin zuten (1968an egin zen batzar nagusi hori) Koldo Mitxelenak eta Euskaltzaindiako jendeak (gure aitak eta horiek). Txilardegi ere han zen, ez dizut aipatu lehenago. Idazle ona da; hori ere ezin da ukatu. Jakintsu azkarra da; baina... To!

Egin zen batzarra, eta orduan sortu ziren bi talde: hatxeren aldekoak eta hatxeren kontrakoak. Gure aita orduan jarri zen hatxeren kontra.

MATTIN: Bere ustez, hatxe letrarena jokaldi politikoa zen, ezkerrarena. Sabino Aranaren kontra zihoazen, eta, orduan, gure aita kontra jarri zitzaien.

Benoa! Pasa ziren urteak, eta gure aitak zera aitortu zuen: *Euskararen batasunerako, neure joera pixka bat bigunduko dut.* Eta orduan, ba, hatxeri eman zion bere... "ongi etorria" esango dugu? Ba, eman zion bere ongi etorria, eta hasi zen bera ere hatxerekin idazten. 86 urte zituela egin zuen hori.

Hori bai dela gauza handia: 86 urterekin eman zuen amore, zuzendu zuen bere postura. Hori gauza handia eta ederra da! Umildade lekzio bat eman zuen, esanaz: *Ni oker nengibilen eta, beraz, zuzendu egiten dut. Ni Akademiaren menpean jartzzen naiz. Akademiak onartu egin du hatxe, eta nik ere onartzen dut. Akademiak esaten duena onartu egin behar dugu; disziplinagatik, sikiera.*

Horretan izan zuen jarrera bat oso... tolerantzia-keinu bat egin zuen.

RAMON: Kontuan hartu Franco hil zenean gure aitak bazituela 77 urte, ez zela galtzamatzeko mutikoa; agurea zela, aitona. Baina ikusi zuela... nik uste dut belaualdi horrek izan zuela bataila irabazi duenaren sentimendua. Hor egon ziren, 40 urtez, ea nor hiltzen zen lehenago: Franco ala beraiek. Eta Franco hil zen lehena. Horrelako zerbait izan zuten: bataila irabazi duenaren sentimendua.

RAMON: Eta, gero, benetan izugarria izan zen giroaren aldaketa: berriro ekintza politikoak eta... Aita bera ez zen zuzenki sartu (interesa aspalditik galdua zuen); baina, bai, bai, ingurune kulturala mugitzen hasi zen eta berpizte bat eza-gutu zuen Euskal Herriak. Eta aitak bizi izan zituen berpizte horren hogeitau urte. Suerte handia izan zuen gure aitak: denetarik ikusi zuen.

MATTIN: Gure aita gizon konpletoa zen: denetatik zekien, denetatik idazten zuen... Gaue-tan, batez ere gauez hitz egiten genuen, eta denetatik zekien; arteaz ere bai, asko. Lastima izan zen aita hiltzea. Urteak ere bazituen, 97 urte bazituen, eta azkenean, ba... Baina...

RAMON: Gure aitaren kasuan, bere azken urtee-tan ezagutu zuen hainbeste ametsen loratzea. Suerte hori izan du: berak eza-gutu eta bere begiekin ikusi bere gazta-roan posible izatea ez zirudiena posible bihurtzen.

Mittoa

MATTIN: Aitak zera egin du, idazle bezala: artiku-luak, teatroak, hitzaldiak... Eta itzulpe-nak ere bai. Bizitza batean egin daitekeen lana, nik uste, egin duela.

Jainkoari eskerrak, luzaro bizi izan da eta poz handia eman digu, eta hiltzean pena handia eman digu. Baina horixe egin du: lana.

MATTIN: Orain alfer samarrak gara. Aitak hori esaten zuen, eta egia da: alfertu egin gara. Hori egia da. Lehenago, etxean sartu eta, benga! Hor, txoko horretan aritzen zen lanean. Sartu eta, benga! Orduak eta orduak eta orduak idazten. *Gratis amore!*

Gainera hori, beste gauza bat: lana egin zuen, bai; baina dena doan, ezer kobratu gabe. Gainera, bere poltsikotik, bere dirutik jarrita, gainera!

RAMON: Gauza asko egin ditu euskararen alde, eta, neurri horretan, gaur eguneko gizar-tearen alde zerbait egin du gure aitak. Nolabait, sinbolo bihurtu da. Pertsonaia horiek guztiak mitifikatu egiten dira eta, azkenean, benetako garrantzia duena ez da errealitatea, ez da zer izan ziren; baizik eta jendearen ustez izan zirena. Sinboloa da errealitatea baino inportanteago, eta gure aitaren kasuan ere hala izan da.

Belaunaldi horrek asko eman ditu horrelakoak, eusko mito bihurtu diren pertsonaiak. Literaturan, hor dauzkagu Orixe eta Lizardi; kulturan, Barandiaran eta Lekuona. Eta hainbeste jende erdi mitifikatua, hil baino lehen mitifikatuak izan direnak: besteak beste, gure aita.

Hor dago, hor sortu dugu gizaldi honetan, nolabait, eusko olinpo bat bezala; eta hor daude gizon horiek. Nik uste dut edozein gizartek, edozein naziok behar duela bere olinpoa.

MATTIN: Euskaldunok gara... badakizu zer garen? Pixka bat mitozaleak, mitosortzaileak gara. Orain ere jarraitzen dugu. Hala esaten zuen gure aitak: mitosortzaileak garela. Errealitateari pixka bat bizkarra ematen diogu; eta hori ezin da, aizu! Orain ere, politikan, ikusi egin behar da Euskal Herriko errealitatea.

RAMON: Herri batek behar ditu liturgiak eta behar ditu sinboloak. Eta behar ditu olinpo bateko gizonak; eta nik uste dut, beno, gure aita, bere neurrian, olinpo horretako partaide dela. Eta hori inportantea da; izan ere, azkenean, denek onartzen dituzten pertsonaiak izaten dira: beren akatsekin, beren ahultasunekin...; baina jendeak onartzen ditu.

MATTIN: Tolerantziaren aldetik, asko lagundu dit: ni zorretan nago aitarekin. Lastima, hil zela! Mekatxis! Gehien behar nuenean, orduan joan zen. Hasia nintzen ikasten, hasia nintzen pixka bat zabaltzen, eta orduan hil behar. Jos! *¡Qué faena, e!* Zer faena!

Zubimendiren beste gidoi batzuk, bideogintza profesionalean:

- *Uztapideri omenaldi*, EITB, 1982, 30 minutu.
- *On Joxe Migel Barandiaran: ehun urte*, Orio Produkzioak, 1989, 60 minutu.
- *Euskal Herriko ipuin zaharrak*, Orio Produkzioak, 1989, 150 minutu.
- *PAX: isiltasuna eresi*, (ekoizteke), 1990, 60 minutu.
- *Gipuzkoa 2000: kultura eta turismoa*, Orio Produkzioak, 1991, 20 minutu.

Bidezkoak

Aurkibidea

Herriko plaza	7-38
♦ Ez aztoratu! ♦ Dolumin	
♦ Ezberdinari, gorroto ♦ Lozorroan	
♦ Amets gaiztoa egin dut bart ♦ Oparia	
♦ Ongi egin ♦ Basora nahi ezik	
♦ Herri-dirua ♦ Arteleku, progreleku?	
♦ Munstroen ametsak ♦ Ala Ala!	
♦ Oinarri ahulak ♦ Euskaldunon izaeraz	
Euskaraz	39-63
♦ Latinetik!? ♦ Ohizkoa	
♦ Gramatika eta mitoa	
♦ Euskara batuaren ajeak	
♦ Hika: To! eta No!	
♦ Argi eta garbi, on eta merke	
♦ Euskaltzaindiak erabaki du	
Bertsoak eta areago	65-82
♦ Auspoa ♦ Sekulako bertsoak	
♦ Lazkao Txiki ♦ Auspoaren hauspoa	
♦ Hori da ezin eramana!	
♦ Xabier "Euzkitze"	
Euskararen abarrak	83-99
♦ Urdina ♦ Legea, lege?	
♦ Euskara, Donostian ♦ Orioko euskara	
♦ Ai, eñe!	
♦ Borrow, euskaldunak eta euskara	

Antzinakoei antzematen	101-134
• Zozomikoteak • Oilasko-jokoa	
• Kukua • Kukua eta txantxangorria	
• Ernio • Ernioko uztaiak • Ilargia lagun	
• Jaiotza jartzen • Jaiotzari begira	
• Urtea • Olentzero bada nor	
• Mari eta Basajaun	
• Ditxosozko Rh gurea! • National Rh	
Umore ona?	135-150
• Umorea? • Komunean • Txotxl	
• Ezkondu: bai ala ez? • Usaina	
• Kiratsa • Jatuna, asea eta gosea	
Izenak eta izanak	151-176
• Herria da Zubieta • Añorga • Ijitoak	
• Mamuak • Biblia • Autobidea • Ekain	
• Agur t'erdi, Ixabel • Andatzarrate	
• Leku-izenak • Jaunaren deia	
• Aralarko hiru piztiak	
Gizabanakoak	177-202
• Oteiza ez da jainko txikia	
• Aresti, igarle • Alzaga eta Antzoki Iluna	
• Cela • Birila eta txoria • Agur, Karlos!	
• San Benito • Artetxe, Joxe • Apurrrak	
• Zer deritzozu?	
Labaien, hitz bitan	203-222



1051085
G-128/102



Joxe Ramon Zubimendi

Aspalditik ezagutzen dut Joxe Ramon Zubimendi, eta orain, bere nortasunari buruzkoohar bat egin beharreko honetan, zera ikusten dut garbi: ez duela bide ibili-etatik inora joan nahi izan; beti izan duela arrunkeriak urruti uzteko gogoia. Egun batean, hizkuntzaren inguruko borrokak puri-purian zeudenean, euskara batuaren aurka zeudenei erasoka ikusiko zenuen; hurrengoan, Gabriel Aresti bereziki ar-buiatzen zen bolada batean, poetari bere mirespena eta maitasuna azaltzen; hurrena-gokoan, berriz, euskara batuaren okerdura edota gehiegikeriak salatu eta tradizioa goraiatzaren. Behin ere ez gehiengoarekin, baizik eta bere gisara, desertuan predika-tzeak ematen duen tentsioa bereganatu nahi balu bezala: egoskor batzuetan, zorrotz askotan, umoretsu gehienetan. Eta beti aurrera, aurrera beti.

Bernardo Atxaga

ISBN 84-89080-51 8



9 788489 080515